

GRADU AMAIERAKO LANA

**Ekonomia feminista: klima larrialdiari eta gizarte krisiari aurre
egiteko irtenbidea**

AUTOREA:

Maialen Alonso Canellada

ZUZENDARIA:

Eusebio Lasa Altuna

**ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZA GRADUA
DONOSTIAKO SEKZIOA**

Donostia, Ekaina 2023

Eskerrak

Eskerrak eman nahi ditut lan honetan nirekin elkarlanean aritu diren pertsona guztiei. Lehenik eta behin, nire tutoreari, Eusebio Lasari, Gradu Amaierako Lana egiteko eman didan laguntza eta planifikazio guztiarengatik.

Bigarrenik, Yolanda Jubeto eta Mirene Begiristaini, elkarrizketak egiteko aukera emateagatik eta haien adimen eta esperientziak nirekin partekatzeagatik.

Hirugarrenik, Ekonomia Feministaren VIII. Kongresua osatu duten kideei. Aurtengoan birtualki parte hartzeko aukera izan dut, eta horri esker, leku eta mugimendu ezberdinetako jendearen iritzi eta ikuspuntuak ezagutzeko eta partekatzeko aukera izan dugu.

Azkenik, familia eta lagunei, lau urte hauetan eskaini didaten laguntzarengatik eta aurrera jarraitzea bultzatu nautelako.

Laburpena

Gradu Amaierako Lana honetan emakumeek garapen ekonomikoan izan duten papera aztertzea da. Kapitalismoaren aurrean ekonomia ikusteko beste alternatiba iraunkor eta jasangarria aztertzen eta proposatzen da: ekonomia feminista.

Horretarako, lehendabizi, emakumeek historian zehar izan duten papera aztertu da. Bigarrenik, ekonomia kapitalistaren garapenean emakumeak jasan duten zapalkuntza agerian utzi da. Izan ere, korrante eta aditu guztien pentsaeran (Smith, Marx, Engels...) emakumeek zaintza eta erreprodukzioan egindako lan guztia baztertu dute. Emakumeekin egin duten bezala, kapitalismoak ez du kontuan izan natura baliabideen sostenimendua.

Beste aldetik, feminismoaren garapena eta historian zehar eman diren olatu ezberdinak aztertu dira. Feminismo honen ondorioz, ekonomia feminista deituriko korrantea aztertu da eta kapitalismoaren aurrean alternatiba gisa proposatu da. Horretarako, ekonomia feministak ematen dituen aldagaiak definitu dira. Ateratako aldagaiak egiaztatzeko, lehen eskuko informazioa jaso da, elkarriketa kualitatiboak erabiliz.

Bukatzeko, ondorio nagusiak atera dira. Gaur egungo sistema ekonomikoa kolokan dagoela agerian utzi da, eta lehenago edo beranduago bere amaiera iritsiko da. Sistema ekonomikoaren aldaketa prozesu luzea izan daiteke, baina onura asko ekarriko ditu bai gizakion ongizaterako, baita ekosistema eta naturaren iraunkortasunerako.

Hitz gakoak: Ekonomia feminista, Eredu Sozioekonomiko Alternatiboa, Ahalduntzea, Generoa

Resumen

En este Trabajo de Fin de Grado se analiza el papel histórico de la mujer en el desarrollo económico, político y social. Se estudia y se propone otra alternativa sostenible y duradera de la economía frente al capitalismo: la economía feminista.

Para ello, en primer lugar, se ha analizado el papel de las mujeres a lo largo de la historia. En segundo lugar, se ha puesto de manifiesto la opresión que han sufrido las mujeres en el desarrollo de la economía capitalista. De hecho, en la mentalidad de todas las personas expertas y corrientes (Smith, Marx, Engels) se ha rechazado todo el trabajo realizado por las mujeres en el ámbito de los cuidados y de la reproducción. Además, lo mismo que ha pasado con las mujeres, el capitalismo no ha tenido en cuenta la sostenibilidad de los recursos naturales.

Por otro lado, se ha analizado el desarrollo del feminismo y de las diferentes olas que se han dado a lo largo de la historia. Como consecuencia de este feminismo, se ha analizado la corriente denominada economía feminista y se ha propuesto como alternativa al capitalismo. Para ello se han definido las variables que aporta la economía feminista. Para comprobar las variables extraídas se ha recogido información de primera mano utilizando entrevistas cualitativas.

Finalmente, se han extraído las principales conclusiones. Se ha puesto de manifiesto que el sistema económico actual se tambalea y tarde o temprano llegará a su fin. El cambio del sistema económico puede ser un proceso largo, pero aportará muchos beneficios tanto para el bienestar humano como para el mantenimiento del ecosistema y de la naturaleza.

Palabras clave: Economía feminista, Modelo Socioeconómico Alternativo, Empoderamiento, Género

Abstract

This thesis analyzes the historical role of women in economical, political and social development. Another sustainable and lasting economic alternative to capitalism is studied and proposed: feminist economics.

On one hand, firstly, the role of women throughout history has been analyzed. Secondly, the oppression suffered by women in the development of the capitalist economy has been highlighted. In fact, in the mentality of all the experts and currents (Smith, Marx, Engels) all the work of care and reproduction that women have done has been rejected. As with women, capitalism has not taken into account the sustainability of natural resources.

On the other hand, the development of feminism and the different waves that have occurred throughout history have been analyzed. As a consequence of this feminism, the current called feminist economics has been analyzed and proposed as an alternative to capitalism. To this end, the variables contributed by feminist economics have been defined. To verify the extracted variables extracted, first-hand information has been collected using qualitative interviews.

Finally, the main conclusions have been drawn. It has become clear that the current economic system is faltering and sooner or later will come to an end. The change of the economic system may be a long process; however, it will bring benefits both for human welfare and for the maintenance of the ecosystem and nature.

Keywords: Feminist economics, Alternative Socioeconomic Model, Empowerment, Genre

Maialen Alonso Canellada

Ekonomia feminista: klima larrialdiari eta gizarte krisiari aurre egiteko irtenbidea

AURKIBIDEA

1.1.	LANA HAU EGITEKO ARRAZOIAK	1
1.2.	LANAREN HELBURUAK	1
1.3.	LANAREN METODOLOGIA	1
1.4.	LANAREN EGITURA	2
2.	MARKO TEORIKOA	3
2.1.	EKONOMIA	3
2.1.1.	EKONOMIA, KONTZEPTUA	3
2.1.2.	HISTORIA EKONOMIKOA GENERO IKUSPUNTUTIK	3
2.1.3.	SISTEMA KAPITALISTA: MUGAK ETA EMAKUMEEN ZAPALKUNTZA	5
2.2.	FEMINISMOA	6
2.2.1.	FEMINISMOAREN KONTZEPTUA	6
2.2.2.	FEMINISMOAREN OLATUAK	6
2.3.	EKONOMIA FEMINISTA	8
2.3.1.	EKONOMIA FEMINISTA, KONTZEPTUA	8
2.3.2.	EKONOMIA FEMINISTA SOLUZIO BEZALA	11
2.3.2.1.	Lanaren sexu banaketa	11
2.3.2.2.	Zaintzak, natura eta bizitza erdigunean	14
2.3.2.3.	Eraldaketa soziopolitikoarekiko konpromezua	18
2.4.	MARKO TEORIKOAREN EKONOMIA FEMINISTAREN ALDAGAIK	21
2.4.1.	Aberastasunaren banaketa	23
2.4.2.	Ekosistemen mantentzea, extraktibismoaren mugak	23
2.4.3.	Lanen banaketa ekitatiboa	23
2.4.4.	Neurri eta lege berriak	24
2.4.5.	Oinarrizko eskubideak	24
2.4.6.	Ahalduntzea	24
2.4.7.	Intersekzionalitatea	24
2.4.8.	Politika publikoak	24
3.	LANDA AZTERKETA	27
3.1.	LANDA AZTERKETAREN ABIAPUNTUA	27
3.1.1.	Yolanda Jubeto	27
3.1.2.	Mirene Begiristain	27
3.2.	LANDA AZTERKETAREN HAUSNARKETA NAGUSIAK	28
3.2.1.	Aberastasunaren banaketa	28
3.2.2.	Bizitza erdigunean	29

3.2.3. Lanaren banaketa ekitatiboa.....	30
3.2.4. Neurri eta lege berriak	32
3.2.5. Oinarrizko eskubideak.....	32
3.2.6. Ahalduntzea	33
3.2.7. Intersekzionalitatea.....	34
3.2.8. Politika publikoak	35
3.2.9. Hausnarketa osagarriak.....	36
3.3. LANDA AZTERKETAREN EKONOMIA FEMINISTAREN ALDAGAIK.....	38
3.3.1. Aberastasunaren banaketa	38
3.3.2. Bizitza erdigunean	39
3.3.3. Lanaren banaketa ekitatiboa.....	39
3.3.4. Neurri eta lege berriak	39
3.3.5. Oinarrizko eskubideak.....	39
3.3.6. Ahalduntzea	39
3.3.7. Intersekzionalitatea.....	40
3.3.8. Politika publikoak	40
3.3.9. Hausnarketa osagarriak.....	40
4. AZKEN ONDORIOAK.....	41
5. BIBLIOGRAFIA	43
6. ERANSKINAK.....	51
6.1. Elkarrizketa 1	51
6.2. Elkarrizketa 2	59

SARRERA

Ekonomia gure eguneroko esparru guztietan oso presente dago. Gizartearen gehiengoak diru etekina baino ez du bilatzen eta ekonomia kontzeptua kapitalaren metaketarekin bakarrik lotzen du. Errealitatea, ordea, ez da horrela. Ekonomia, kontzeptu oso zabala da eta diruaz gain beste hainbat aldagai biltzen ditu, hala nola zaintza-lanak, ekosistemen mantentzea, ekitatea, etorkizuna.

Izan ere, pertsonak gorputz ahuletan bizi gara eta besteen menpekotasuna dugu gure biziaren eusteko. Hots, zaintzari esker bizi gara. Era berean, gure etorkizuna eta ekosistemarena lotuta dago eta naturaren baldintza egokiak mantendu behar ditugu etorkizuna ziurtatzeko.

Komunikabideetan egunero, klima-aldaketarengatik datozen muturreko ondorio meteorologikoak ikusten ditugu. Honen arrazoa, sistema kapitalistak baliabide naturalen etengabeko ustiapenaren ondorio zuzena da, ez baitu limiterik ezartzen.

Gaur egun bizi garen sistema kapitalistak ez du interdependentzia hau kontuan hartzen, eta horregatik, sistema hau jasanezina da. Horren aurrean, alternatiba bat bilatzera behartuta gaude, gizakion ongizate eta naturaren iraunkortasunaren arteko oreka lortzea helburu duena.

1.1. LANA HAU EGITEKO ARRAZOIAK

Gradu Amaierako lanaren aukeren artean ekonomia feministaren hautua ikustean, bi hitz horien elkar-lotura harritu ninduen, ordura arte ez banituen elkarrekin ikusi edo erlazionatu, eta jakin-mina piztu zitzaidan. Gai honen inguruan sakontzen joan naizen heinean, ortodoxiatik urruntzen diren ekonomiaren beste alderdi batzuk ulertu ditut. Gure egungo sistema ekonomikoa bidegabea eta jasanezina dela ulertzeaz gain, emakumeei orain arte askatasuna ez bermatzearen “arrazoiak” ulertu ditut. Horregatik, oso interesgarria iruditzen zait ekonomia feministaren esparruan lan egitea eta haren printzipio eta oinarriak gizartearen esparru guztietara zabaltzea, hezkuntzatik hasita. Denok dakigu hezkuntzatik ahalbidetzen direla egiturazko aldaketak.

1.2. LANAREN HELBURUAK

Lan honen helburua, ekonomia feministaren hausnarketaren barruan ekarpen eraikitzaile bat egitea da, kontzeptuaren aldagai nagusiak identifikatuz eta garatuz eta etorkizuneko bilakaera aurreikusten saiatuz.

1.3. LANAREN METODOLOGIA

Lanaren metodologiari dagokionez, hasteko marko teoriko bat eraiki da ekonomia alternatiboaren eta ekonomia feministaren autore erreferente batzuk berrikusiz. Ondoren, bi elkarrizketa kualitatibo sakon egin dira ekonomia feministan eskarmentua duten bi adituekin.

1.4. LANAREN EGITURA

Lanaren egiturari dagokionez, hasteko Gradu Amaierako Lana era labur batean aurkezteko sarrera bat egin da. Ondoren, lan hau egitearen arrazoiak eta lanaren helburuak zeintzuk diren adierazi dira. Jarraitzeko, lana egiteko erabili den metodologia eta lanaren egitura azaldu da.

Gauzak horrela, marko teorikoari hasiera ematen diogu. Bertan, alde batetik, ekonomia kontzeptua, ekonomiaren historia genero ikuspuntutik eta sistema ekonomikoaren mugetaz hitz egiten da. Beste aldetik, feminismoa eta feminismoaren hiru olatuak lantzen dira. Ondoren, ekonomia feministaz hitz egiten da eta ekonomia feminista soluzio bezala proposatzen da. Bukatzeko, marko teorikoaren aldagai nagusiak atera dira. Hau ikusi eta gero, landa azterketan sartzen gara. Lehenik, landa azterketa honen abiapuntua azaltzen da. Ondoren, landa azterketaren hausnarketa nagusiak lantzen dira. Bukatzeko, landa azterketaren ondorio nagusiak atera dira. Amaitzeko, Gradu Amaierako Lan honen azken ondorio nagusiak atera dira eta jarraian, erabili den bibliografia eta egindako bi elkarrizketen eranskinak txertatu dira.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. EKONOMIA

2.1.1. EKONOMIA, KONTZEPTUA

Ekonomia hitza gure egunerokotasunean askotan entzuten eta erabiltzen dugu. Izan ere, gizakiok etengabe hartzen dugu parte ekonomian, eta bizitzaren arlo guztietan eragina du. Baina, zer da ekonomia? Zer ulertzen dugu ekonomia hitzaz?

Ekonomia hitzaren jatorria grekotik dator “oikonomía”. “Oiko” etxea eta “nomía” kudeaketa itzultzen dira, eta hiztegiara joan ezkerreko ondorengo definizioak aurkitzen ditugu, besteak beste: “ondasunen administrazio eraginkorra eta zentzuduna” (RAE, 2022), eta/edo “Gizarte bateko ondasunen ekoizte, banatze eta erabiltzearekin loturiko gertakari eta jardueren multzoa” (Euskaltzaindia, 2023).

Hala ere, ekonomia hitza entzuten dugunean orohar ondasun materialekin, diruarekin eta finantzarekin erlazionatzen dugu. Hau da, zentzu zabalean, merkatu, enpresa, irabazi, galera, BPG, inflazioa, eta abarrekin lotzen dugu, eta zentzu konkretuan, etxeko diruaren kudeaketarekin. Baina, hau al da ekonomia ulertzeko dugun modu bakarra?

2.1.2. HISTORIA EKONOMIKOA GENERO IKUSPUNTUTIK

Atal honen helburua, alde batetik, ekonomiaren garapena historian zehar genero ikuspuntutik aztertzea da, eta bestetik, gaur egun dugun sistema ekonomikoaren mugak eta akatsak finkatzea da.

Hainbat ikerketa eta artikuluen aburuz, gizarte primitibotan gizakion zereginak berdintasunez banatzen ziren generoari dagokionez. Emakumeek gizonen bezala, mota guztietako lanak egiten zituzten, hala nola, laborantza, abeltzaintza, arrantza eta ehiza. Horrez gain, etxeko zaintzaz ere arduratzen ziren.

Izan ere, harrigarria dirudien arren, naturarekiko erlazio handia daukaten gizarteak nahiko berdintsuak dira. Bonet (2023), Valentziako Historiaurreko Museoko zuzendariak dioen bezala “naturaren inguruan dabilzan eta naturarekin harreman zuzena duten gizarteek berdintasunez jokaten dute. Oraindik bizirik dirauten Amazoniako komunitateak, naturan murgilduta, portaera-jarraibide horien lekuko dira”. Esanak esan, denok daukagun historiaurreko irudia gizon ehiztariarena da, eta labar-pinturetan ehiztari eta animalien eguneroko eszenak islatzen dira. Baina non daude emakumeak...?

Mesopotamian, idazketaren aurkikuntzari, matematikaren erabilerari eta denboraren erabilerari esker, gaur egun ezagutzen dugun antzeko jarduera ekonomikoa egiten hasi ziren. Emakumeek ez zituzten gizonen eskubide berdinak. “Lurrak erosteko, dibortziatzeko eta maileguak eskatzeko eskubide zuten, besteak beste, baina lehenik emakumea gurasoen menpe zeuden, eta ondoren bere senarraren menpe” (Joshua, 2022).

Antzinako Grezian ere, ekonomia laborantzan oinarritzen zen, nahiz eta, komertzio eta artisautza jarduerak bere garrantzia izan. Emakumeen egoera ordea, ez zen onena “demokrazia” sortzaileen garaian. “Bertan emakumeak ez ziren hiritarrak, hiritarren emazteak baizik. Ezin zuten politikan parte hartu eta ez zituzten eskubide zibikorik. Emakumeen egoera esklabuen berdina zen” (Rodríguez-Ayllon, 2019).

Erromatar inperioaren erorketak sistema feudalaren sorrera ekarri zuen. Gizartea bi klase-sozialetan banatu zen; jaunak eta basailuak. Garai horretan, nekazariak gazteluetara hurbildu ziren, horrela jaun feudalen babespean zeuden, uzta kopuru zati baten truke. Nekazaritza eta abeltzaintza lanketaz bizi ziren.

Merkantilismoan, Estatuak paper handia hartu zuen, ekonomia eta jabetza pribatua zuzentzen baitzuen. Helburu ekonomikoa aberastasun handiena lortzea zen. Amerikaren aurkikuntzak, nabigazioak eta merkataritzak guzti hau sustatu zuen.

Arestian aipatutako gizarte, kultura eta zibilizazio horietan guztietan, sistema ekonomiko nagusia biziraupen ekonomian oinarritzen zen. Familiak sortzen zuen ekoizpena kontsumo propiora bideratuta zegoen. Soberakinekin trukeak egiten zituzten beste ondasunak lortu ahal izateko. Ez zegoen apenas espezializaziorik, bai emakumeek eta baita gizonek denetatik egiten zuten.

Gizarte hauetan, nekazaritza, abeltzaintza, ehiza, arrantza eta basa-frutak biltzeko lanak ziren ohikoenak. Baina, nork zuen erabakitzeke gaitasuna? Nor arduratzen zen zaintzaz? Nork egiten zituen etxeko lanak? Emakumeek lehen aipatutako lanak egiteaz gain, etxeko lanaz eta zaintzaz ere arduratzen ziren, nahiz eta erabakitzeke gaitasun askorik ez izan.

XVIII. mendearen amaieran, ekoizpen prozesuetan makineria sartzeak industrializazioa ekarri zuen. Biztanleria nekazal mundutik hirietara mugitu zen, nekazaritzan oinarritutako ekonomia alde batera utzita. Honek, bultzada ekonomiko eta sozial handia ekarri zuen. Hirien hazkundeak, behar berriak ekarri zituen, eta honek, lanpostu berriak sortu zituen. Lanak soldatapekoak izatera pasa ziren, eta klase sozial berriak, burgesia eta langileria jaio ziren. Gainera, kapitalismoa mundu osoan hedatzeko lehen pausoak eman ziren, burgesia klase menderatzailea ezarriz.

Halaber, lanpostu berriek behar zuten espezializazioak, lanaren sexu-banaketa ekarri zuen. Emakumeak lan mundura sartzen hasi ziren, baina lan baldintza txarrak eta soldata minimoak zituzten. Nahiz eta gizonek baino lan gehiago egin haien soldata baxuagoa zen. Ohikoa zen emakumeen eta haurren esplotazioa. Gainera, emakumeak berriz ere etxeko zaintzaz arduratzen ziren.

Industria iraultzatik gaur arte nagusitu den ekonomia sistema, kapitalismoa izan da. Bere ezaugarri nagusiak merkatu ekonomia librea babestea da. Lehiakortasun handia dago, eta merkatuko prezioak eskari eta eskaintzaren arabera finkatzen dira. Ekoizpena pribatua da. Sistema honetan ere emakumearekiko ezberdintasunak areagotu dira.

Argi dago emakumeen papera historia ekonomikoaren zehar garrantzitsua izan dela. Ordea, gizonen kontrol eta erabakien menpe egon da gehien bat. Azken 200 urteetan gizartearen hobekuntzak oso nabarmenak izan diren arren, hauek ez dute eragin berdina izan emakumezkoengan zein gizonezkoengan. Oraindik ere, gaur egungo demokraziak ez du ezberdintasunak zuzentzea lortu.

2.1.3. SISTEMA KAPITALISTA: MUGAK ETA EMAKUMEEN ZAPALKUNTZA

Lehen aipatu dudan bezala, sistema kapitalistak etekinak handitzea du helburu. Horretarako, bi aberastasun iturrietan oinarritzen da; lana eta natura. Karl Marx, Friedrich Engels eta beste hainbat filosofok, kapitalismoari kritika handia egin zioten. Marxek eta Engels-ek (1884) argitaratu zuten liburuan, “Familiaren jatorria, jabetza pribatua eta estatua” sistema kapitalistak sortzen dituen arazoak eta kritikak biltzen ditu.

Alde batetik, kapitalismoak, klase sozialen banaketa ekarri zuen, gatazka handiak sortu zituen. Nabarmentzekoa, aberastasunaren banaketa desberdina. Banaketa honekin, aberastasuna esku gutxitan geratzen zen, klase-sozial altuetan kontzentratzen zen, eta gainerako klaseak, geroz eta pobregoak ziren. Filosofo hauek, “homo economicus” kontzeptua kritikatu zuten, irabazi asmoa soilik baitzuten helburu. Are gehiago, irabazi pribatua, lehen aipatu dudan bezala.

Gainera, sistema kapitalistan lan baldintzak bidegabeak ziren. Langileek, gutxi gorabehera, egunean 14 lan ordu egiten zituzten eta gainera, soldata ez zegoen guztiz osatuta. Bestalde, kapitalismoak emakumeen zapalkuntza ere bultzatzen du. Alegia, lanaren sexu-banaketa asko finkatzen du.

Kapitalismoa eta patriarkatua eskutik doaz eta bien artean emakumeen zapalkuntza eta esplotazioa eutsi izan dute. Beauvoir (1976), filosofo frantsesak zioen bezala: “Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna ezinezkoa da sistema kapitalistan”. Ildo beretik, filosofo batzuek erreproduzio sozialaren teoria bultzatu zuten, ondorengo esanez: “ondasun eta zerbitzuen ekoizpena eta bizitzaren ekoizpena prozesu integratu baten parte dira”.

Beste aldetik, baliabide naturalen agortzea kritikatu zuten. Kapitalismoaren ekoizpen neurrigabea, lehengaiak mugagabeak zirelaren oinarria hartzen zuen, eta horrek, Marx-ek (1867) esan zuen bezala ez zen bideragarria, “Kapitalismoak bere burua suntsituko luke, hain zuzen, natura sistemaren predatzailea delako.” Bere “Kapitala” liburuan (1867) Engelsekin batera, sistema kapitalistaren produkzio sistema eta botere erlazioak aztertu zituzten, datu estatistiko eta praktikoak bilduta.

Sistema honen aurrean komunismoa sortu zen. Aipatutako bi filosofo hauek komunismoaren alde egin zuten. Komunismoarekin, jabetza pribatua publikoarekin ordezkatu nahi zen, eta klase sozialen banaketarekin amaitu. Hau da, bidezko banaketa ekonomiko baten alde egiten zuen.

Era berean, baliabide naturalen gehiegizko ustiapenaren eskutik, kutsadura dator. Sistema kapitalistak, produkzioa ahal duen guztia areagotzen du eta horrek, bai produktua sortzean baita produktua kontsumitzean poluzioa handitzea dakar. Guk ez badugu natura zaintzen, nork zainduko du? Baliabide naturalen esplotazioaren areagotzeak eta kutsadura asko handitzeak kezka sortu du azken 40 urteetan. Hori dela eta, beste pentsamendu motak sortu dira. Hala nola, ekonomia zirkularra, ekonomia soziala, ekofeminismoa, ekonomia feminista eta abar.

Ekonomia sistema batean, ingurumen arazoak baita arazo sozialen arteko lotura ezinbestekoa da (Herrero, 2020). Non ditugu mugak? Cristina Carrascok dioen bezala “Ekoizpen-baldintzak errepikatzeke gai ez den sistema bat bideraezina da eta desagertzera kondenatuta dago”(Carrasco, 2016).

2.2. FEMINISMOA

2.2.1. FEMINISMOAREN KONTZEPTUA

Asko gara urtero martxoak 8an kaleetara ateratzen garenak emakumeen eskubideen eta berdintasunaren alde. Asko dira egun horretan kalera irtetearekin nahikoa egiten dutela uste dutenak. Asko dira feminismoaren kontzeptua gizonen aurkako borroka dela uste dutenak.

Feminismoa eguneroko borroka da. Ez da soilik emakumeen borroka. Ez da gizonen aurkako borroka. Ez da soilik matxismoaren aurkako borroka. Kontzeptu hau gaizki ulertzearen arrazoiak, ezjakintasun falta da alde batetik, eta bestetik, feminismoaren aurka batzuek daukaten interesa. Feminismoa, bai gizon eta bai emakumeen borroka da. Hiztegira joan ezkerre, feminismoa emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa bezala definitzen da. Era berean, feminismoaren arlo guztietan gauzatze eraginkorraren alde borrokatzen den mugimendua dela esaten da (RAE, 2022).

Aldiz, beste artikulua batzuen arabera horrela definitzen da feminismoa: mugimendu politiko, sozial eta filosofiko erradikala da, emakumeak eskubideak dituzten pertsona direla baieztatzen duena (Salazar, 2017). Azken finean, feminismoak, patriarkatuak sortzen dituen gizon eta emakumeen arteko botere-harreman desberdinen aurkako borrokan arazoitzen da. Gizartearen ikuspegi androzentrikoa kritikatzeko, gizarte justuago eta berdintuago bat lortzeko, emakumeen kontrako biolentzia eta diskriminaziorik gabekoa.

2.2.2. FEMINISMOAREN OLATUAK

Denboran atzera egiten badugu, argi ikusten dugu emakumea beti bigarren plano batean egon dela gizonezkoekin alderatuta, eta beti gizonekiko menpekotasuna “izan” duela.

Adibidez, 1945. urtera arte, emakumeak Frantziara ezin zuten bozkatu. 60ko eta 70ko hamarkadetan, Espainian, senarren baimena behar zuten administrazioarekin edo banketxeekin edozein kudeaketa egiteko. 80ko hamarkadara arte ez zen abortua despenalizatu demokrazia liberaleen esparrutan. Gaur egun ere, oraindik, desberdintasunak daude. Hala nola, soldata-arrakala, kontziliazioa, indarkeria matxista edo kristalezko sabaia (Simon, 2023).

Zaila da esatea noiz hasi zen feminismoa. Egile batzuek, XIII. mendearen amaieran kokatu dituzte feminismoaren hastapenak, Bohemiako Guillerminen emakumeen eliza bat sortzea proposatu zuenean. Emakume honek, garai hartan, espiritu santuaren pertsonifikazioa femeninotzat hartu zuten. Beste batzuek, sorgina eta predikariak borroka feministatzat erreskatatzen dituzte (Gamba, 2008).

Hala ere, Frantziako Iraultzaren ondorioz, eta ilustrazioaren babespean, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna defendatzeko lehen mugimendu feministak agertu ziren mendebaldean, feminismoa ilustratua delakoa (Simon, 2023). Emakumeen borroka antolatu eta kolektibo honek, azken mendeetako gertaera historiko handietan parte hartu zuten. Hala nola, Errenazimenduan, Frantziako Iraultzan eta iraultza sozialistetan (Gamba, 2008).

Mugimendu horietan emakumeentzako eskubide zibil eta juridikoak ukatzearen aurkako protestak gauzatu ziren. Frantziako Iraultzaren garaian, 1789an, emakumeek “kexa koadernoak” batzarrera bidali zituzten.

Horrez gain, Gourgesek (1791), “Emakumeen eta Herritarren eskubideen deklarazioa” aldarrikatu zuen, “Gizonen eta Herritarren Eskubideen deklarazioa” argitaratu ostean. Bigarren honek, giza eskubideen aitzindarietako dokumentu bat zen, eta ez zituen emakumeak eskubide subjektu bezala kontuan hartzen (Simon, 2023) zen. Olympe-ren deklarazioa ez zen kontuan hartu eta bere salaketaren ondorioz, gobernu berak Olympe de Gourgesek gillotinatu zuen.

Garai artako autore nabarmen batzuk, Rousseauk adibidez, emakumeak eta haurrak hiritar eskubideetatik kanpo uztea defendatzen zuen. Wollstonecraft (1792), filosofo eta idazle ingelesa, emakumearen figuraren ahanztura salatu zuen, estatu liberalen eraikuntzetan. “Emakumeen eskubideen adierazpena” liburuarekin, feminismo modernoaren oinarriak ezarri zituen (Simon, 2023).

Lehen olatu feminista, XIX. mende osoan eta XX. mende hasieran garatu zen. Nahiz eta munduko hainbat lekutan suertatu, Ingalaterrako, AEBetako eta Latinoamerikako mugimenduak nabarmentzen dira. Garaiko feminismoaren helburuek, ezkontzaren eskubideak eta sufragioa bezalako eskubide politiko batzuk bilatzen zituzten.

Clara Campoamorrek, Victoria Kenten kontra, 1931ko urriaren 1ean, emakume generoarentzako garaipen historiko bat lortu zuen: sufragio unibertsala. Feminismoaren lehen olatuko helburua argia zen: gizarteak emakumeak pertsonak zirela onartzea, eta ez bizitegi edo merkataritza jabetza.

Ondoren, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan bigarren olatu feminista gertatu zen. Gai ugaritan oinarritu zen borroka, ez bakarrik arlo juridiko edo eskubide zibilen aitortzearen (lehenengo olatuan egin zen bezala). Hala nola, sexu eta ugalketa eskubideak (abortua), etxetik kanpoko lana, etxeko lanen ikusezintasunaren salaketa, eta abar. Bigarren mundu gerrak indar handiz lagundu zuen emakumea lan munduan sartzera. Gizonezkoak frentera borrokatzera joan behar zirenean, emakumeek fabriketako lanpostuak betetzen zituzten. Handik sortu zen “We Can Do It” The Riverterrek (1943) sortutako kartel ospetsua, non emakumeak fabriketan lan egitera bultatzen zuen (Simon, 2023).

Bigarren olatu honetan, Beauvoir (1949), Friedan (1963) eta Millet (1970) bezalako egileak nabarmentzen dira, bigarren sexua, Femitate mistika, eta Sexu politikaren liburuaren argitalpenekin, hurrenez hurren.

Feminismoaren hirugarren olatua, 90ko hamarkadatik gaur egun arte kokatzen da. Mugimendu honetan, ez dago emakume estereotipo bakar bat, generoarekiko interpretazio berriak agertzen hasten dira. Emakumeen artean zegoen aniztasunean jarri zuen arreta; klasea, kultura, arraza, etnia edo erreferentzia sexuala bezalako gaiak kontuan hartuta. Interseksionalitate hitza agertzen hasten da. Hala ere, hirugarren olatu honen elementu garrantzitsuenetako bat, gizonek emakumeen gain duten hierarkiaz jabetzea izan da. Mendeetan ezarrita egon den gizarte egitura baten oinarria izan den patriarkatua (Simon, 2023).

Jabetza honek, emakumeen ahalduntzea bilatzen du. Emakumeari buruzko IV. mundu konferentzian du jatorria, 1995.urtean, Bijing-en, Pekinen ospatu zen. Emakumeen boterea eskuratzeko eta haien parte-hartzea eta erabakiak hartzeko helburuarekin sortu zen ahalduntzearen kontzeptua, generoen arteko ekitatea aurrera eramateko helburuarekin. Ojiamboren (2020) hitzetan, Nazio Batuen munduko paktuan: ebidentzia argia da, emakumeak ahaldunduta daudenean, guztiek jasotzen dute onura.

Ezin dugu ahaztu, erlijio nagusiak izan duten papera emakumeen desberdintasuna legitimatzen (Alonso, 2019). Askotan esaten da erlijioa eta emakumeak ez direla lagunak. Era garbian ulertzeko, oraindik Egiptoko herrialde batzuetan, emakumeen mutilazio genitalak egiten dira. Era berean, Afrikan eta Asiako zenbait lurraldeetan, ezkonsariak eta emaztegaiaren prezioen erabilerak ere oso ohikoak dira (Baffour, 2019). Tamayo-Acosta (2008), Teologian doktorearen arabera, Virginia Primok (2008) idatzitako artikulua arabera, diskriminazioaren hiru alderdi nagusiak doktrina, egitura eta esperientziak dira. Doktrinari dagokionez, testuak hizkera patriarkalekin eginak daudela dio.

Bigarrenik, erlijio egitura hierarkikoan emakumea diskriminatua izan dela aipatzen du Tamayok. Azkenik, gizonen esperientzia erlijioan beti izan da jarraibide, eta emakumeena berriz haluzinogenotzat hartu izan da (Primo, 2008).

Bukatzeko, ezin dugu ahaztu azken urteetan teknologia berriaren eskutik iristen ari diren erronkak. Izan ere, Inteligentzia artifiziala erabiltzen diren erreferentzia eta modeloak, daukagun gizarte patriarkalaren ereduan oinarritu beharrean, gizarte berdintsuago batean oinarritu behar da, feminismoak pauso izugarria eman dadin (Harcour, 2023).

2.3. EKONOMIA FEMINISTA

2.3.1. EKONOMIA FEMINISTA, KONTZEPTUA

Ekonomia feminista kontzeptua azken urteetan geroz eta indar gehiago hartzen ari da. Berriz, gizartearen zati handi batek oraindik ez du kontzeptu hau ezagutzen. Era berean, ekonomia korronte hau lehen aldiz entzuten dutenek, soilik feminismoarekin eta emakumeen borrokarekin lotzen dute.

Ekonomia feminista, ordea, ez da hori bakarrik. Nola da posible gizartearen gehiengo batek ekonomia mota hau ez ezagutzea? Nola liteke ekonomia honetaz hitz egiterakoan kontzeptu okerrak izatea? Eta ez hori bakarrik, zergatik sortzen da korronte hau? Zein arazori aurre egin nahi dio ekonomia pentsamendu honek? Zein helburu ditu?

Aipatu ditudan bi kontzeptuak batuz, hala nola, ekonomia eta feminismoa, ekonomia feministaren kontzeptua sortzen da. Ordea, ez da bakarrik dugun ekonomia sistemari emakumeak gehitzea eta nahastea Harding filosofak aipatu zuen bezala (Beneria, 1999). Ekonomia feminista, egungo sistema ekonomikoaren arazoak zuzentzeko asmoarekin sortu zen eta *feminismoan sustraitzen da* (Larrañaga eta Jubeto, 2014).

80. hamarkadan sortu zen lehen aldiz ekonomia feministaren kontzeptua, berdintasun eta enpleguen obserbatorioan eta 1992. urtean indartzen hasi zen, *International Association of Feminist Economics* (IAFFE) sorkuntzarekin, baita *Feminist Economics* (1995) aldizkariaren argitalpenarekin. Bi gertakari hauek, aurre pauso handiak izan ziren ekonomia konbentzionalak zalantzan jartzeko, oinarrizko suposizio batzuk baztertzeko eta genero desberdintasunak analisi ekonomikoaren gai nagusi gisa sartzeko (Benería, 1999).

Aurretik, 1960eko hamarkadan, atsekabe soziala dela medio Vietnam gerraren kontrako mugimendua, *Hippie* mugimendua, Frantziako ikasle mugimendua, Latino Ameriketako liberazio mugimendua, eta mugimendu feministak sortzen hasi ziren. Mugimendu feministak, gizarte kapitalistaren androzentrismo sakona erakutsi zuen. Sistemaren funtsezko ezaugarriak zalantzan jartzen hasi ziren, hala nola, materialismoa, errepresio sexuala, irabazleen etika, eta abar (Carrasco, 2017).

Beranduago, 1970eko hamarkadan, mugimendu feministak lana produktiboa eta ugalketa lana bereiztea zeukan garrantzia nabarmendu zuen. Alde batetik, emakumeek ugalketaren eta ordaindu gabeko lanaren ikusezintasuna agerian utzi zuten, emakumeek alor honetan zuten kontzentrazio nabarmena salatzen. Beste aldetik, lan honek sistema kapitalistari eusteko zeukan garrantzia azpimarratu nahi zen (Beneria, 2006).

Ekonomia feminista, gaur egungo ekonomia, errealitate eta bizitzatik oso urruti zegoela ohartarazi zirenean sortu zen (Pazos, 2008). Izan ere, ekonomia kapitalistak, gizartearen errealitate bakar bat kontuan hartzen du, gizonezkoen ikuspuntutik eta ekoizpen materialean oinarrituta.

Honekin lotuta, Euskal Herriko Unibertsitateko Larrañagak eta Jubetok (2014), horrela definitzen dute ekonomia feministaren helburuetako bat: “emakume eta gizonen arteko gizarte-harremanetan (zentzu zabalean) ekitatea bilatzea eta emakumeek aspaldidanik jasan behar izan dituzten bereizkeriak gainditzea. Horretarako, ordea, gaur egun munduan zehar, toki askotan nagusi diren harreman kapitalista heteropatriarkal zapaltzaileei aurre egin behar zaie.

Alegia, ekonomiak, sektoreak modu dikotomiko batean banatzen zituen, sistema kapitalistaren ondorioa zena. Hau azaltzeko “iceberg” kontzeptua sortu zuen. Goiko muturrean, merkatu kapitalista, finantza ekonomia eta Estatua egongo lirarteke, eta beheko eremu ikusezinean berriz, naturatik lortutako baliabideak eta zaintza lanak, gehienetan emakumeek egindako lanak (Carrasco, 2017). Izkutatuko eremua, izeber bezala, zati handiena da, eta gainera, goiko muturra eusten du, nahiz eta “ekonomian” apenas inpakturik ez izan.

Beste era batera esanda, Carrascoren (2017) eskutik, “ibilbide honen interesa, funtsean, politikoa da: emakumeek egindako lanak ikusaraztea, jasan dituzten desposesio-prozesuekin batera, haien giza eta gizarte garrantzia berreskuratzea, eta baztertze eta ahanztura historia bat haustea. Beraz, ekonomia feministak salatzen duen oinarrizko printzipioetako bat lanaren sexu-banaketa bidegabea da.

Ekonomia feministaren beste ardatz bat, eta ziurrenik garrantzitsuena, bizitzaren iraunkortasuna da. Hori izan behar baita jarduera ekonomikoen xede nagusia. Hortaz, bizitzaren ugalketa prozesu zabala azterketa ekonomikoaren erdigunean kokatu behar dugu, baliabide materialak zein zaintza-lanak edota estimu eta adiskidetasuna eskatzen dituen (Picchio, 2001; Carrasco, 2003)

Hau da, egungo ekonomiak soilik helburu materialak lortu nahi ditu, hala nola, merkatua eta kapitala. Ekonomia feministak berriz, helburu materialak bakarrik bilatu beharrean, ongizatea eta zaintza-lanak ere erdigunean kokatzen ditu. Bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jartzen du. Beste era batera esanda, sistema kapitalistak ondasunen emaitza soilik kontuan hartzen du. Hots, erreproduzioak egindako lan guztia merkatutik kanpo uzten du, hain zuzen ere, ugalketa sozialerako behar den erreproduzio hori (Carrasco, 2017).

Bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jartzen badugu, ezin dugu alde batera utzi naturarekiko dagoen lotura eta gizakien arteko interdependentzia. Lehenengo bien arteko harremanak, baliabide naturalen erabilera iraunkorra egitera behartzen gaitu. Ildo honetatik, ekonomia zirkular eta ekonomia ekologikoarekin bat egiten du ekonomia feministak, kontsumo erantzukizun eta jasangarri baten alde.

Interdependentziaren ikusezintasuna, pertsonen arteko harremanen eta loturen zentraltasun antropologikoen desbalorizazioa, eta enpatiaren mendekotasunak dira gizarte patriarkalaren funtsezko ezaugarriak. Zenbat eta debalatuagoa egon diskurtso sozialean loturak eta emozioak, orduan eta patriarkalagoa da gizartea (Herrero, 2006).

Definizio zehatz bat ematea zaila da, kontzeptu zabala bait da. Larrañagaren (2017) hitzetan, “Ez da pentsamendu monolitikoa, ez da pentsamendu korrante bakarra, ez baitago feminismo bakarra, ezta ekonomiaren ikuspegi bakarra ere”. Orohar, esan daiteke ekonomia feminista korrante eta mugimendu ezberdinetan sustatzen dela. Esaterako, mugimendu feminista, antikapitalista, antipatriarkala, ekologista, antikoloniala, antiarrazista, antiklasista, eta abar.

Izan ere, hainbat alor biltzen ditu eta hainbat ikuspuntutatik begira daiteke, ikuspuntu sozial, politiko, filosofo, eta abar. Nahiz eta autore batzuk abiapuntu desberdinetatik hasi, haien ibilbide eta helburua antzekoa da. Ekonomia feminista beraz, ez da bakarrik mundu akademiko eta intelektual sektore batetik gaur egungo egoera ekonomikoari, eta sistema kapitalistari buruz egiten den irakurketa edo hausnarketa bat. Feminismo metodologia erabiliz eta aktibismo politiko eta sozialetik sistema mugatu honen kontrako apustu militantea baizik.

Inposatutako sistema patriarkal, kapitalista, kolonialaren kateak hausteko apustu bat da. Egoera eta ikerketa zehatz batetik, eta politika publikoak erabiliz genero bretxa hausteko tresna bat da. Gizarte solidario eta berdintsua eraikitzeko bizitzaren mantenu helburu duena. Planetan bizi diren beste espezie eta elementuekiko errespetuz jokatzeko duena, jakinda, gizakion bizitzaren iraupena planetaren iraupenarekin bat lotuta dagoela. Luz de la Cal-ek (2017) esan duen bezala, sistema honen marka lanaren sexu banaketa da, sistema patriarkal/kapitalisten ondorioa dena.

2.3.2. EKONOMIA FEMINISTA SOLUZIO BEZALA

2.3.2.1. Lanaren sexu banaketa

Esan dugun bezala, ekonomia feministaren kontzeptua XX. mendean 2. erdialdean hasi zen garatzen. Nolanahi ere, ekonomia feminista ondo ulertzeko, historian zehar ibilbide bat egin behar da XIX. mendean pentsalari klasikoek ugalketa-prozesuari buruz egin zituzten hausnarketetan sakonduz (Carrasco, 2017). Horretarako, herentzia kutsatuaren kontzeptu definitu behar dugu, Beneriaren (2006) eskutik iritsi zaiguna; Herentzia kutsatu hau, ugalketa kontzeptuak merkatutik kanpo lan guztia ezkututzen duela adierazten du. Hain zuzen, erreproduzio sozialerako beharrezkoa den lan hori.

Erreproduzioaren kontzeptuaren lehengo xehetasunak David Ricardok eta Karl Marxek eman zituzten. Haiek, azterketa ekonomikoa ugalketa ezaugarrietan oinarrituta bideratu zuten, sistema ekonomikoek- irauin ahal izateko- beren ugalketa baldintzak erreproduzitu behar zutela aitortuta. Ricardok kontuan hartu zuen, halaber, ekoizpen prozesuetan naturak egindako ekarpenak, baliabide naturalen urritasunarengatik hazkunde ekonomikoa mugagabea ez zela (Carrasco, 2017).

Honen ostean, Marxek, Ricardoren hazkunde ekonomikoaren aipaturako azken kontzeptu hau bereganatu zuen. Kapitalismoak bere burua suntsituko zuen, naturaren sistema predatzailea baitzen (Carrasco, 2017). Horrez gain, metabolismo sozialaren kontzeptua ere landu zuen. Gizarte eta naturaren arteko harremanak deskribatzeko, eta gizarte eta natura-ingurunearen artean trukatzeko diren energia eta materia fluxuak aztertze eta kalkulatzeko. Izan ere, sistema naturalen material eta energia fluxuak pertsonentzako baliabide bihurtzen dira giza-bitarteko kate luze baten bidez. Bitartekaritza hori ez balego, ezingo liriteke beharrak ase (Herrero, 2016).

Marxek, lana eta merkataritza ekoizpenari dagokionez, gainbalioaren eta metatze kapitalistaren ideia garatu zuen. Lan indarra erreproduzitzeko beharra zehaztu zuen, lan prozesua egunez egun errepikatu ahal izateko, belaunaldien arteko ugalketa prozesu horretan sartuz. Era berean, ekoizpen baldintzak eta ugalketa baldintzak berdinak zirela planteatu zituen. Gainera, ugalketa prozesuek ezberdintasun eta esplotazioaren iturri osatzen zutela antzeman zuen. Izan ere, kapitalaren erreproduzioak ezberdintasuna bermatzen eta metatzen duten baldintza politiko, sozial, instituzional eta kulturalak islatzen ditu (Carrasco, 2017).

Marxen (1867) ustez, metatze honekin kapitalismoa sortzeko premisa bat izan zen. Ustiapenean oinarritutako funtzionamenduari esker, metatze prozesuarekin jarraitu ahalko zen. Prozesu guzti honetan, Marxek ez zuen etxeetan egindako lan guztia aintzat hartu. Batez ere emakumeak egindako lana, beharrezkoa dena lana erreproduzitzeko. Marxek (1867), bakarrik merkaturatutako erositako ondasunak hartzen zituen kontuan, eta lan-indarra beraz, soldatarekin auto erreproduzitzen zen. Ondorioz, etxeko lanak eta zaintza-lanak ez ziren gainbalioan sartzen. Horrela, lan hori, merkataritza-espaziotik kanpo gelditzen dena, ikusezin bihurtuko da. Ez bakarrik gizartearen aurrean, baizik eta metatze prozesutik ere desagertuko dira (Carrasco, 2017).

Aurretik, Adam Smithek, etxeetan egindako lana, haurren biziraupenerako eta familiaren ugalketa ekonomikorako garrantzitsua zela onartzen zuen, baino ez zion maila ekonomikorik eman (Carrasco, 2017). Smithek soldata definitzeko izaera bikoitza erabili zuen. Alde batetik, familia ugalketaren kostua zegoen, eta bestetik, produkzio kostua.

Horrela, bi espazioen arteko lotura jarri zuen azterketaren erdigunean, soldata eta irabazien arteko antagonismoa nabarmenduz. Horrela, emakumeen langile-klasearen ugalketarako beharrezkoak diren etxeko lanei eta zaintza lanei garrantzia eman zion (Carrasco, 2017).

Edonola ere, ekonomialari ilustratu eta zentzudun hauen pentsamendua, itsutasun patriarkal baten ondorio zuzena dela uler dezakegu. Izan ere, ugalketa sozioekonomikoko baldintzak aztertzean, pertsonak heuren biziraupen eta baldintza duinetan mantentzeko, etxeko eremutan egiten diren zaintza lanak beharrezkoak zirela, ez ziren ikusteko gai izan. Normalean, lana hori emakumeok egiten zuten eta beraz, ezingo da inoiz erabat merkantilizatu edo kolektibizatu (Carrasco, 2017).

Ondoren, tradizio klasiko honen oinarriak eskola Sraffianoak izan ziren. Haiek, gizarte ugalketa hau beste ikuspuntu batetik begiratzen zuten, eta “salgaiak merkantzien bidez ekoiztea” bultzatzen zuten. Hala ere, tituluak jada adierazten digu bere kezka merkantziatan oinarritzen dela, eta ez naturatik datozen baliabideetan edota merkantziak ekoizteko beharrezkoa den lan-indarrean (Carrasco, 2017).

Jarraitzeko, eskola honetako beste ekonomialari batek, Alfons Barcelók (1981) erreproduktzioaren kontzeptua zabaldu zuen, “erreproduktzio soziala” izenarekin ezagutuko dena. Hau aitortzen zuen: gizarteak bere bizi baldintza materialak sortu eta erreproduktzitzen ditu naturarekiko metabolismotik abiatuta. Harreman transistematiko bat da, gizarte eraketaren ezaugarri historikoak gainditzen dituen. Hala ere, analisi honetan ere ez dugu aurkitzen merkatutik kanpo dauden lanak. Izan ere, Alfons Barcelóren (1981) oinarritzako legeak dio: sistema ekonomikoro gizonen eta ondasunen bidezko ugalketa nozioak definitzen du, gizonen eta ondasunen bidez, eta baliabide naturalen parte hartzearekin (eta ondorengo aldatetarekin).

Pentsalari hauek, pixkanaka, naturaren ekarpenak eta baliabide naturalekin sortutako arazoak haien eredu eta perspektibetan txertatuz joan ziren. Baina ez ziren gai izan etxean egindako lana txertatzeko, nabaria den gauza hain garrantzitsua, bai biztanleriaren ugalketarako zein lan indarrerako beharrezkoa dena. Hori gabe, kapitalismoa desagertzera kondenatuta egongo litzatekeena (Carrasco, 2016).

Bestalde, ekonomia feministarentzat genero ezberdintasunak, sozioekonomiko maila ezberdinetan eragiten du. Hasteko, mikro mailan, genero harreman hierarkikoak banakako, etxeetako eta enpresetako bertako prozesuei eragiten die. Arreta etxeetan jarriarik, bertan, sexuen arteko lanaren banaketak oso desorekatua jarraitzen du (Larrañaga et al, 2014).

Izan ere, etxeetako lan banaketa sexualak, desorekak eta gatazkak sortu ditzake. Gary S. Beckerrek, “familia Beckertar”en kontzeptuaren sorrerarekin beste ikuspuntu altruista bat proposatu zuen. Haren arabera, «familiaburu» altruistak bere baliagarritasun-funtzioan gainerako kideen ongizate-funtzioak hartzen ditu. Planteamendu horrek, familia instituzio harmoniatsutzat eta interes-gatazkarik gabekotzat hartzen zuen eta familia-unitatearen lehenetsuen ordena erabaki dezan onartuko luke. Hau da, familia onbera (Larrañaga et al, 2014).

Diktadore onbera etxean baino ez litzateke izango horrelakoa, eta etxetik kanpo, eraldatze-kasu bitxi baten bidez —Dr. Jekyll eta Mr. Hyde gogorarazteko moduan— onberatasuna utzi, eta merkataritzako gune publikoan bere interesaren alde bakar-bakarrik jokatu luke (Larrañaga et al, 2014). Familia Beckertar honetan lehen aipatu

dudan dualismoa areagotzen da. Eta, era berean, familiaren jokabide hori kontraesana du ekonomia neoklasikoaren oinarriko printzipio batekin, individualismo metodologikoaren printzipioarekin, alegia. Diktadore onberak ez du betetzen «homo economicus» delakoaren funtsezko ezaugarri bat, hots, norbereikotasuna (Larrañaga et al, 2014).

Meso mailan berriz, generoak lan-merkatuen funtzionamenduan du eragina, sexuaren arabera bananduta egonik, enplegurako eskaintzen dituzten aukerak eta baldintzak bestelakoak eta desberdinak dira eta. Tokiko eta eskualdeko administrazioen politikek ere, sarri, sexuaren araberako lan-banaketa indartzen duten joera horiek berak jasotzen dituzte. (Larrañaga et al, 2014).

Merkataritza arloak onartzen zuen, lan egiten zutenak egunero lanpostura “agertzen” ziren pertsonak zirela. Kargarik eta zaintza-premiarik gabekoak, lanerako prest zeudenak. Eredu hori, bidegabea izan arren, erreproduzio sozialerako funtzionala zen (Herrero, 2006). Gainera, Herrero (2006) dioen bezala, hirigintza-eredu berak zailtzen eta areagotzen ditu zaintzarako behar diren denborak. Izan ere, hirigintza-eredua gizonek sortu zuten, eta ez zuten ulertzen zaintza lanaren garrantzia, ezta gizarte-ugalketa bermatzeko kontuan hartu behar diren dimentsio aniztasuna ere.

Hirigintza-ereduak, hirigintzarako eraikuntzak eta makineriak sistema ekonomikoaren zerbitzura jartzen zituen. Horrela, lurraldearen antolamendua emakumeei erasotzeko modu berri bat bihurtzen zen, gizartea sostengatzeko beharrezkoak diren jarduerak garatzen diren espazio berriak urrunduz (Herrero, 2006).

Egia da emakumeen papera lan merkatuan asko aldatu dela, baina oraindik ere asko dago borrokatzeko. Lan asko oso prekarizatuak daude, eta gehienetan emakumeak dira lan prekario horietan jarduten dutenak. Luz de la Calek (2017) dioenez, “Ez egonkortasunak eta prekaritateak benetako gizarte-krisia ekarri du, gizartea babesteko mekanismoek ez baitute behar bezala erantzun.”

Azkenik, makro mailan, “alde batetik, agregatu makroekonomiko handiak, Barne Produktu Gordinak (BPG) kasu, ekonomiari buruzko oso ikusmolde estu eta maskulino bati dagozkio, eta, beste alde batetik, makro-mailako politika handiak, hala nola, zerga-politikak, truke-tasei buruzko politikak, merkataritza-politikak ez dira neutralak generoaren aldetik.” (Larrañaga et al, 2014). Marilyn Waringek (1986), "If woman counted" liburuan salatu zuen nola kontabilitate nazionalak ez zuen emakumeen papera kontuan hartzen BPGan, baino bai kontabilizatzen ziren armagintza industria, planeta suntsitzen laguntzen zuten industriak, ezkutuko ekonomia, eta abar. Nola da posible, zaintza lanak eta etxeetako lanak ez kontabilizatzea eta armagintza bai?

Ekonomia kapitalistak eta produktiboak sexuaren lan-banaketa ezartzen du, eta horrela emakumea ugalketa esparrura mugatzen du. Bigarren mailako papera ematen dio, gehienetan ikusezina dena. Gainera, beste esparru batzuetan garatu ahal izatea eragozten zaiona. Adibidez, hezkuntza mailan, profesional mailan baita maila pertsonalean ere atzean geratzen da.

Bigarren mailako zeregin honek atek itxi dizkio ekoizpen mailan, ugalketa rola esleitu zaizkiolako eta ugalketa lan horretan denbora gehiago eman behar izan duelako. Horregatik guztiagatik, eremu publikoko emakumeen lanak okerragoak dira, kualifikazio txikiagoarekin, lanaldi partzialarekin eta okerrago ordainduak.

Guzti honek diskriminazioa eta desberdintasuna betiketzen du, eta genero indarkeriaren beste modu bat da. Emakumeek ezin dute lanpostu garrantzitsurik lortu, edota horiek lortzeko gizonen baino gaitasun handiagoa erakutsi behar dute. Halaber, emakumeak lan merkatuan sartu izana ez du arindu etxeetan egin behar izan duten lana. Izan ere, lan karga bikoiztu egin da kasu askotan. Aduitu batzuen artean ironikoki esaten da: “ez da gauza bera dena izatea, eta dena egin behar izatea”.

Amaia Perez Orozcok (2006) dioen bezala, lanaren banaketa sexuala dimentsio bikoitza dauka. Alde batetik, klasikoa, lana generoaren arabera banatzen duena (gizona soldatapeko lana, eta emakumeek etxeetako lanak). Beste aldetik, berriagoa dena eta aurreko banaketarekin korrelazionaturik dagoena, lan merkatuarekin erlazionatuta dagoena segmentazio bertikala eta horizontala.

Lan munduan genero banaketaren joera nabarmena da. Kontuan hartuta emakumeak biztanleriaren erdia direla, hauen langabezia askoz handiagoa da. Segmentazio horizontalari dagokionez, gizonetzako industria sektoreari lotuta dago, eta emakumezkoak ordea, zaintza eta zerbitzu eremuari gehien bat. Hala nola, garbiketalanak, erresidentziak, etxeko zaintzak eta abar. Segmentazio bertikalean ere, edozein enpresan nabarmena da emakumeen falta eskala hierarkikoa igotzen den heinean. Halaber, enpresa askotan, emakumeek ez dute gizonen soldata berdina jasotzen, lan berdina egin arren.

Ekonomia feministak, diskriminazio hau betiketzen duen sistema kapitalista horrekiko haustura bilatzen du. Kontua ez da emakumeek botere esfera horietan egon behar direla, baina bai gizonen aukera berdinak edukitzea. Ekonomia feministak, kapitalismoak inposatutako lan sexu banaketak ekiditen duen genero ekitate eta berdintasunaren alde borrokatzen du.

2.3.2.2. Zaintzak, natura eta bizitza erdigunean

Egungo ekonomien helburuen artean, ahalik eta etekin handiena lortzea dago. Soilik irabaziak lortu nahi dituzte, kapitalaren metaketa. Horretarako, merkatuan jartzen dute foku, han baita eskari eta eskaintzaren trukeak egiten diren lekua. Bestalde, kapitalismoak ez du kontuan hartzen bizitzaren mantenturako ezinbestekoa eta ezkutuan geratzen diren zaintza lanak. Alegia, aipatutako merkatu horietara joan ahal izateko, beteak izan behar ditugun gutxieneko beharrak.

Izan ere, ekonomia eskoletan erakutsi izan ohi diguten “homo economicus” pertsonaia, sujetu erabat arrazionala, berekoa, independentea, osasungarria, merkatuan aktiboa eta bere ongizatea irabazi ekonomikoen bidez bilatzen duena, ez da existitzen (Jubeto et al, 2014). Gizakiok bata bestearekiko menpekotasuna dugu, eta elkar zaintza behar dugu jaiotzatik heriotza arte, neurri handiagoa edo txikiagoan. Beharrezkoa da garbi uztea, etxean ez ezik, etxetik kanpo ere zaintza dagoela. Zaintza horietan, sektore publikoak, enpresak eta ekonomia sozial eta solidarioko erakundeek parte hartzen dute (Larrañaga et al, 2014).

Ekonomia feministak, bizitzaren iraunkortasuna jartzen du erdigunean. Zaintza-lanen ekonomiari garrantzia ematen dio. Beraz, ikuspuntu zabalagoa da, ez baita merkatuan bakarrik gelditzen. Honekin, munduaren ikuspegi dikotomikoa hausten da. Merkataritzako eremua eta merkataritza kanpoko eremuaren arteko loturak ikusaraziz (Dalla Costa, 1972).

Halaber, interseksionalitatea, feminismoaren funtsezko kontzeptuetako bat bihurtu da. Kontzeptu hau, lotura estua du feminismoaren hirugarren olatuko korrontearen garapenarekin. Kimberlé Crenshaw (1989), arrazaren teoria kritikoan espezializatutako irakasle eta akademiko estatubatuarrak sortu zuen, eta ondorengo eran definitzen du: gizabanako bakoitzak gizartearen kategoria anitzeko kide izateagatik jasaten duen zapalkuntza edo pribilegioa (Valiña, 2019). Beste era batera esanda, interseksionalitatea, pertsona bat definitzen duen bi faktore sozialen edo gehiagoren arteko interakzioa da. Identitateari buruzko gaiek, hala nola, generoak, etniak, arrazak, kokapen geografikoak, eta adinak, besteak beste, abantaila edo desabantailak sortu ditzakete gizabanakoei (Rios, 2022).

Interseksionalitateak geroz eta indar gehiago hartzen ari da azken urteetan, baina betidanik egon da gure gizartean presente, batez ere zaintza lanetan. Kasu gehienetan, emakumeek eta gorputz feminizatuek etxeetako eta zaintza lanak egiten dituzte. Hots, sexismoak, arrazakeriak eta klasismoak bereizten eta desberdintzen dituzte jarduera hauek. Gainera, zaintza gauzatzeko baldintzak geroz eta prekariagoak dira (Perez-Orozco, 2005).

Esan dugun bezala, zaintza lanak sexismoak, kolonialismoak eta arrazakeriak bereizten eta baldintzatzen ditu. Hau da, normalean emakumeak eta gehienetan kanpotarrak dira lan hauek egiten dituztenak, eta ondorioz, zaintza-kate globalak sortzen dira. Zaintza-jardueretan aritzen diren pertsonak (batez ere emakumeak), beraien herrialdeetatik migratu dute, haien seme-alabak jatorrizko herrialdeetan utzita. Ondorioz, beste pertsona batzuk (normalean familiako kideak eta emakumeak) haien seme-alabak zaintzeaz arduratzen dira (Rodriguez-Enriquez, 2015).

Zainketa kate globalak bi krisi mota sortu ditu. Alde batetik, herrialde pobreetako gizarte-ugalketako krisia dago. Diru sarrera bat lortzeko, emakume eta gizonezko asko emigratzera behartzen dituena. Bestetik, zaintza-krisiak iparraldeko herrialdeetan (Jubeto, 2014).

Argi dago, gizakiok bizitzeko bata bestearekiko menpekotasuna dugula, eta menpekotasun horretan zaintza sartzen da. Beraz, ekonomia konbentzionalak helburu ekonomikoa soilik gizakion bidez bilatu beharrean, gizaki beraren ongizatea helburutzat izan beharko luke. Ongizate helburuak lortzeko, ingurumenarekin etengabeko interakzioak sortzen ditugu. Beraz, ingurumena eta natura ere kontuan izan behar dugu. Baina errealitatea ez da horrela. Ekonomia konbentzionalak, kapitalistak, helburu materialak lortzeko baliabide naturalak etengabe ustiatzen ditu, kontuan izan gabe baliabide horiek mugagabeak ez direla.

Ez hori bakarrik, gizakiok naturarekiko menpekotasuna daukagu. Gizakiek heuren baldintza materialak sortzen eta erreproduzitzen dituzte naturarekiko metabolismotik abiatuta. Baldintza hori auresoziala, funtsezkoa eta betierekoa da (Gonzalez, 2011; Toledo, 2011).

Honen aurrean, ekonomia feministaz gain, beste korronte mota batzuk sortu dira. Hala nola, ekofeminismoa, ekonomia ekologikoa, eta abar. Korronte hauek, pentsamendu hegemonikoak gutxiesten dituen prozesu eta subjektuei balioa ematen diete. Giza existentziarentzat ezinbestekoak izanik, ikusezin bihurtu direnak (Herrero, 2006).

Oso ohikoa da extraktibismo hitza entzutea ekologiaz edo naturataz hitz egiten ari garenean. Extraktibismoa, lurrazalean dauden materia eta energia fosilen erauzketa, manei u eta erabiltzea da. Jatorrizko baliabide-kalitatara itzuli gabe, zikloak eta eguzkiaren erabilera hautsiz. Gizartean funtzionamendu materialaren eraldaketa horiek guztiek, oso denbora gutxian, metabolismo organikotik metabolismo industrialera aldatzea ekarri dute (Herrero, 2020). Extraktibismoak, kapital inbertsio handiak eskatzen ditu, normalean korporazio transnasionaletakoak. Lurraldearen okupazio intentsiboaren dinamika du (lurren metatzea). Beste ekoizpen-modu batzuen desplazamenduan eragiten du (tokiko edo eskualdeko ekonomiak), eta ingurumenerako eta bizimoduetarako inpaktu negatiboak sortzen ditu (Wagner, 2020; Herrero EF 2023).

Baliabide naturalak ez dira mugagabeak. Limite bat dute, eta kontuan hartu behar dira. Bestela, gure gizarte eta planetaren suntsipena ekarriko du. Erromako klubak sortutako “Hazkundearen mugak” (1972) txosten ospetsuaren agertzeak, arreta handia piztu zuen gizartean. Txosten honek zera dio: industrializazioak, kutsadurak, elikagaien ekoizpenak, eta baliabide naturalen ustiapenak aldaketarik gabe jarraitzen badute, lurra muga absolutuetara iritsiko da datozen ehun urteetan.

Era berean, Herrero (2006) dio, prozesu biofisikoetan zenbait planeta-muga daudela, eta hauek funtsezkoak direla naturako prozesuen jarraitutasuna bermatzeko. Izan ere, muga hauek gainditzeak ziurgabetasun-eszenatoki batean kokatzen gaitu. Hortik, eskala eta abiadura handiko aldaketak gerta daitezke, gizakiontzat onuragarriak ez direnak, eta beste natura baldintza batzuetara eraman gaitezkeena. Gizaki hitzaren jatorria bilatzen badugu, *humus* hitzarekin erlazionatuta dagoela ohartzen gara. Izan ere, *humus* hitzak, lur eta lurzorua esan nahi du (Herrero, 2020). Gezurra dirudi gu gizarte bezala, gure lurra, hondatzearen erantzuleak izatea.

Ekonomia kapitalistak, bere negozio eta etekinak lortzen saiatzen da ingurumenari arreta eman gabe. Hori dela eta, kapitala-bizitza eztabaida sortzen da. Sortu diren legeek negozio hauek ingurugiroan duten inpaktua murrizten saiatzen dira, eta eredu-aldaketa jasangarriago bat bilatzen dute. Hala ere, legediaren helburua ez da izan behar inpaktua murriztea, ezeztatzea baizik.

Natura zaintzea geure burua zaintzea da. Elkarrekiko mendekotasuna eta ekodependentzia ukazina da (Svampa 2015; Mies eta Shiva 1998; Martínez-Alier 2004). Harreman hau hausteak edo ukatzeak, egungo sistema ekonomikoak gauzatzen duen bezala, gaur egun aurrean dugun hondamendi bioklimatikoan eragina du (Bosch et al., 2005; Carrasco, 2009; Herrero, 2012).

Honen aurrean, gizakion apustuak bat, Herrero (2006) dioen bezala, metabolismo soziala berbideratzea izango litzake. Egungo ereduaren ondorio suntsitzaileak saihestuz, edo gutxienez, natura eta gizakien muga fisikoetara egokituz. Hau da, ikuspegi antropologiko baterantz eboluzionatzen saiatuz.

Aurrean aipatutako guztia, “iceberg” ereduari biltzen da. Goiko muturrean, merkatuak eta metatze-logika androzentrikoak egongo lirateke (merkatu kapitalista, finantza ekonomia eta Estatuak), eta beheko eremu ikusezinean berriz, bizitzaren beharrak eta tentsioak

aurrera eramateko beharrezkoak diren lanak (naturatik lortutako baliabideak eta zaintza lanak). Beraz argi dago, natura eta zaintza lanak egungo sistema ekonomikoaren oinarritzko bi zutabeak direla. Nahiz eta eremu ikusezinean egon, haiek gabe sistema hau eroriko litzateke (Carrasco, 2017).

Beste aldetik, zaintza lanak merkantilizatzeak (privatizatzeak), hauen degradazioa ekarri du, bai kalitatean edota lan baldintzetan ere, produktibitatea lortu nahi delako, bai kalitatean edota lanean ere. Aldi berean, lan mundu produktiboan emakumeak sartu izana, kontziliatzeko zailtasunak ekarri ditu. Bi kontzeptu hauek, iceberg modelo ekonomiko berrantolatzea dakar. Izan ere, “iceberg” ekonomiko horren oinarrian emakumeak daude. Gainera modelo honetan, emakumeen papera ezkututik presentziara pasa beharrean, presentzia bikoitza izatera igarotzen dira (Perez-Orozco, 2006).

Honen aurrean, ekonomia feministaren korrontetik bi estrategia sortzen dira: Kontziliatzioren ekonomia feministarena, eta hausturazko ekonomia feminista. Alde batetik, kontziliazioren (bateragarritasuna) ekonomia feministak, aurretik zeuden paradigma androzentrikoak eta ikuspegi feministak eskatzen dituen aldaketak uztartzea posible dela uste du (Perez-Orozco, 2005).

Hots, Perez-Orozco (2006) dioten bezala, emakumeen jarduera ikusezinak berreskuratu, desberdintasunezko genero-harremanak ikusarazi eta emakumeen errealitate osoa adieraztea eta haien jarduera ekonomikoa txertatzea du helburu. Desberdintasun eta ikusezintasun hauek, adibidez, etxeetako zaintza-lanetan islatzen dira.

Waringek (1986) “If Woman Counted” idatzitako liburuan, argi adierazten da nola Estatu Batuetako kontabilitate nazionalak ez duen emakumeek egindako zaintzak kontabilitatean sartzen, eta bai berriz, militar edo naturak hondatzen dituen jarduerak. Emakumeak, haurrak eta ingurumenak inongo baliorik ez duten bitartean, nazioarteko sistema ekonomikoak, gerrak produktibotzat eta baliotzat hartzen ditu (5.orr). Hau da, kontziliazioren ekonomia feministak, egungo sistema ekonomikoari aldaketak sartu nahi dizkio, baina bere muina galdu gabe.

Beste aldetik, hausturaren ekonomia feministak, aldaketa askoz sakonagoak aldarrikatzen ditu, diskurtso androzentrikoen oinarriak zalantzan jarritz, bai epistemologiari dagokionez, bai kontzeptu eta metodoei dagokionez (Perez-Orozco, 2005).

Korronte honek zeregin nagusizat, alde batetik, bizitzaren iraunkortasuna erdigunean kokatzea proposatzen du. Aurreko kontzeptu eta metodologiak zalantzan jarrita. Beste aldetik, emakumeen eta gizonezkoen arteko desberdintasunak ez ezik, emakumeen arteko botere harremanak ere erreparatzen ditu (Perez-Orozco, 2005; Harcour, 2023). Gainera, hausturaren korronte honen arabera kontziliazioren ekonomia feministak arazoak ekarri ditzakeela esaten du. Amaia Perez Orozkozkoen esanetan, hausturaren ekonomia feministaren kontzeptuak prozesuak erakarri nahi ditu, eta ez esentziak soilik. (Perez-Orozco, 2005).

Bizitzaren iraunkortasuna bermatzerakoan, ardura nork duen, eta lanak banatzean botere-harremanak nola birstortzen diren, garrantzi handiko galderak dira. Galdera hauek, bizitzaren jasagarritasunaren kontzeptua testuinguru kapitalista batean aplikatuzetik ondorio zuzena da (Perez-Orozco, 2005).

2.3.2.3. Eraldaketa soziopolitikoarekiko konpromezua

Aurreko bi ataletan azaldu dut nola gaur egungo gizarteak, eta zehatzago esanda, sistema kapitalista/patriarkalak, beti emakumea rol ikusezin batera xedatzen duen. Ugalketa eta zaintza lanetan oinarritutako zeregin horiek, ordea, sistema osoaren oinarriak dira.

Aldi berean, sistema ekonomikoak ezartzen duen lanaren sexu-banaketak, emakumeak gizartean egin ditzakeen beste eginkizunak betetzen eragozten ditu. Gainera, beste faktore batzuk, hala nola, arraza eta jatorriak, aipatutako bi zereginetan (ugalketa eta zaintza lanetan) ere eragina dute. Faktore hauek garai kolonialista baten oinordekoak dira, eta emakume askoren egoera larriagotzen dute.

Nahiz eta zenbait lege onartu badira ere, esaterako, berdintasunari, generoari, mendekotasunari eta kontziliazioari buruzko legeak, ekonomia feministaren helburuak konpromezu askoz sakonagoa eskatzen du. Konpromezu bat non, lege berriak sortuz eta aplikatuz, sistema ekonomikoaren erabateko egitura berri bat ekarriko duena.

Ekonomia feministak, ditugun arazoak konpontzeko eskaintzen dituen tresnak eta politikak asko dira. Hauen eredu, ordea, Perez-Orozkok Espainiako kongresuaren Gizarte Politiketako eta Zaintza Sistemako lantaldearen aurreko agerraldian proposatu zituen politikak dira. 2020ko maiatzaren 29an gauzatu zen komisio hau, Berreraikuntza Sozial eta Ekonomikoko batzordean.

Tresna eta politika hauek ez dute soilik emakumeen eskubideei aldaketa bat ekarriko. Desberdintasun sozialen aurkako aldaketa bat ekarriko dute, bizitza erdigunean dagoela esaten duen mundu ezberdin bat eraikitzeko helburu izango duena. Konpromezu honek, helburu bikoitza erantzuteko gai den politikak eskatzen ditu. Alde batetik, egungo sistemaren larrialdiei erantzun azkar bat emateko. Zaintza lanetan, arazo asko daudelako, konpontzeke daude, eta oso prekarioak dira. Beste aldetik, aldaketa sistemiko baten oinarriak finkatzea, mundua aldatzen ari delako. Hau da, mundua trantsizioan dago, eta beraz, munduaren etorkizunaz arduratu behar gara.

Ezinbestean zuzendu behar dugu trantsizio eko-soziala (kolapso ekologiko baten aurre gaude). Daukagun eredu ekonomiko, produktiboa eta jasanezinak, bere sostengune diren zainketa lanak bidegabeki banatu dituelako. Hots, ugaltze eredu iraunkor batera igaro behar gara, non bizitza kolektiboaren zaintza ardatz egituratzailea izango den.

Hau guztia betetzeko, bi epeetako politikak planteatzen dira. Lehenengoak, epe ertainerako politikak dira. Politika hauen helburua, zainketa sistema estatal baten oinarriak finkatzea dira. Horretarako, hiru politika mota planteatzen dira; itsasargi politika (trantsizioa gidatzeko), palanka politika (zaintzatik politika publikoaren gainerako aldaketak bultzatzeko), eta azkenik, politika espezifikoak (zainketa duinetarako eskubide unibertsala bihurtzeko politikak). Bigarrena, epe laburreko politika (berehalakoa). Prozesu honetan, talka-plan bat proposatzen da, urgentziazko egoerei aurre egiteko.

Epe ertaineko politiken helburua, zainketa sistema estatal batean oinarriak finkatzea dira, sare instituzionalean jartzeko gai izango dena. Helburu hau galdu ez dadin, itsasargi politika planteatzen da.

Trantsizio une honetako erantzukizuna geure gain hartu behar badugu, galdera nagusi bat planteatu behar dugu: Norantz joan nahi dugu? Horretarako, sistema sozioekonomikoa behetik gora begiratu behar dugu. Bizitza berberetik, egitura orokorretara, zainketa lanak baitira egitura ekonomikoaren sostengunea.

Zainketatik abiatuta, egungo egoerari heldu behar diogu, non egiturazko berregokitze plan bat beharrezkoa den. Hau da, egitura sozioekonomiko osoa aldatu behar da, bizitza kolektiboaren zerbitzura egon dadin. Izan ere, begi-bistan geratu da COVID 19 pandemian, zaintza lanak izan direla funtzionamenduan geratu diren oinarritzko jarduerak. Egitura berregokitzeko plan honek hainbat lekutatik pentsatzea eskatzen du, eta ez soilik merkatu ikuspuntutik. Sozialki beharrezkoak diren lanak planteatzea eskatzen digu.

Harreman gaizto bat ikusten ari gara, non zenbat eta funtsezkoagoak izan lanak, eta zenbat eta balio sozial handiagoa duten, orduan eta txikiagoa da merkatuko balioa. Halaber, zaintza lanak irabazi asmoari lotuta badaude hauek prekarizatzen dira. Era berean, ikusi da, egitura kolektibo nahikorik ez daudenean, erantzun komunitarioak ematen direla. Zainketak ezin dira irabazi asmoaren mende egon, eta ezin dira publiko eta pribatuaren logikan mugitu. Zaintzak publiko eta sozial-komunitarioaren logikan mugitu behar dira. Horretarako, beharrezkoa da erakundeen eta komunitateen arteko artikulazio ezberdinetan pentsatzen hastea, etorkizunean funtzionatuko duen logika komun bat izateko.

Arrazoi guzti hauengatik, beharrezkoa da sare instituzional bat sortzea, bere egituran zaintzei buruzko behatoki bat izango duena. Itsasargi politika honen ideiak martxan jartzeko mekanismo instituzionalak ezarri behar dira.

Epe ertaineko bigarren politikan, zaintzak, palanka politika bezala erabiltzen dira. Tresna honekin, gainerako politika publikoak bultzatzen dira. Izan ere, zainketa lanak egitura guztiaren oinarri badira, oinarritik bultzatu behar dugu gainerako guztiaren aldaketa. Honekin, bi egoera saihestuko genituzke. Alde batetik, zaintza lanak ordainduak gabeak ez izatea. Izan ere, lan hauek emakumeek batez ere egiten dituzte. Beste aldetik, etxeetako lanak, eskubide laboral eta sozial gabe ez izatea. Besteak beste, langabezia, pentsioak, laneko baja, eta abar.

Hainbat aldiz komentatu dugun bezala, zainketa lanak eremu ikusezinean daude. Zenbat eta gehiago zaindu, orduan eta ahulezia sozioekonomiko handiagoa dago. Gainera, zainketak emakume eta gizonen arteko fluxu asimetrikoen inguruan antolatzen dira: emakumeetatik gizonezkoetara; behe mailako klaseetatik, klase ertain-altuetara; migratutako biztanleriatik, bertako populaziora; hego globaletik, iparralde globalera.

Guzti honek, politika ekonomikoa aldatzea eskatzen du. Lehenik eta behin, zaintzak erantzukizun kolektibo gisa hartzen duen politikak sortu behar dira. Gainera, baliabide publikoaz hornitu behar ditugu. Finantzaketa nahikorik ez badago, kostuak oinarri ikusezin horretara bideratzen dira berriro. Zaintzak eremu ikusezinerara pasatzen dira berriro.

Bigarrenik, erreforma fiskal progresibo sakon bat egin behar da. Esate baterako, errenten gaineko zergen progresibotasuna bermatzea eta handitzea, sozietateen gaineko zerga progresiboa bihurtzea, ondarearen gaineko zerga berreskuratzea, fiskalitate ekologiko baterantz mugitzea, eta abar. Guzti hau beharrezkoa da kostuak ikusezinek eta betikoek bere gain ez hartzeko.

Azkenik, lan legeria bultzatu eta aldatu behar da. Hau da, lan-legedi bat behar dugu non, langileak inor zaintzeko ardurarik ez duten subjektu gisa pentsatzen uzten duena. Azken finean, hori ez baita existitzen, eta bakarrik existitzen da, koltxoi ikusezin bati esker. Horretarako, kontziliaziozko eskubideak eta lanaldi murrizketak azpimarratzen dira. Estatuko zaintza sistema horren bidez, sare instituzional bat sortuz. Zainketak gainerako politika publikoen bultzatzen hasteko.

Epe ertaineko azken politika, politika espezifikokoak dira. Politika espezifikoko hauekin, zaintzarako eskubidea eskubide unibertsal gisa bihurtu nahi da. Zaurgarritasun handiena duten pertsonen (mendekotasuna, haurtzaroa eta dibertsitate funtzionala) arreta bermatuko duten politikak, eta aldi berean, langileen lan eskubideak bermatuko dituztenak.

Politika espezifikotan pentsatzen hasteko, autonomia pertsonala sustatzen duen sistema indartu eta argitaratu behar da. Hala nola, etxez etxeko laguntza zerbitzuekin, eguneko zentroen sareekin, etxebizitza kolektiboekin, haur-hezkuntzako zaintza sistema integratuarekin, eta abar. Bitartekaritza agentzia publiko bat behar da etxeko enpleguan. Agentzia hau, epe ertaineko zaintza sistema estatuala osatuz joan liteke. Zaintzarako eskubide unibertsal hori bermatzeko, erantzukizun integralaren ideian oinarritua.

Epe laburreko politiketan sartuta, talka-plana proposatzen da. Plan honek bi helburu ditu: mezu indartsu, sendo eta instituzional bat zabaltzea, eta aldi berean, gaur egungo egoera larrienak, edo gutxienez batzuk, konpondu ahal izatea.

Talka-plan honek ondorengo ezinbesteko ideiak eduki beharko lituzke. Hasteko, zaintzei buruzko elkarrizketa sozialeko sare bat eta erakundeen arteko mahai bat sortzea, estatuko zainketa-sistema hori sortzen hasteko. Bigarrenik, etxeko enpleguan talka plan bat egitea, langileen eskubideak parekatzeko eta heuren bizitza babesteko. Enpleguko talka plan honek, gutxienez ondorengo ideiak bildu beharko lituzke. Alde batetik, Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmeneko (LANE) 189 eta 201 artikuluen berehalako berrestea, etxeko langileen lanaren inguruan hitz egiten duena. Beste aldetik, langabeziaren prestazioa onartzea. Horrez gain, enplegatzaileak atzera egiteko aukera bertan behera uztea, uko hori kaleratze askea bihurtzen baita. Azkenik, egoera administratibo eta erregularrean dauden langile guztien baldintzen erregularizazio plana.

Hirugarrenik, mendekotasunari dagokionez, beharrezkoa da enplegu publiko edo publiko-sozial komunitarioaren figuran, plantilla handitzea eta lan baldintzak hobetzea. Haurtzaroari dagokionez, haurtzako sare-zerbitzu bat behar da, haur-eskolen sarean oinarritua.

Azkenik, etxeetan egiten diren ordaindu gabeko zainketa-lanei dagokionez, adingabeak zaintzeko prestazio bat onartzea. Baldintzarik gabekoa, lanaldi-murrizketa %100 arte hartzeko aukera ematen duena, eta langabezia egoeran dauden pertsonen ere eragiten diena, nahiz eta ofizialki langabetzat aitortuta ez egon. Adineko pertsonak zaintzen duten

familiei, zerbitzu publiko falta dela medio, prestazio ekonomikoa eman behar diegu eta gizarte segurantzian kotizazioa bermatu behar zaie. Denbora erabilerari buruzko inkestak edo antzeko ikerketak behar ditugu, zaintzaren konponketak berrantolatzen eta denboraren erabilerak nola berrantolatzen diren jakiteko.

Elementu horiek guztiek bat egin dezakete talka-plan honetan. Plan honek, aldi berean, epe ertainean zaintza-sistema batean jar dezake foku. Hau da, aldaketa sistemiko horren ardatz egituratzailea. Beste era batera esanda, bizitzaren zaintza kolektiboa erdigunean jartzeko joera duen egitura, doikuntza ardatz gisa.

2.4. MARKO TEORIKOAREN EKONOMIA FEMINISTAREN ALDAGAIAK

Puntu honetara iritsita, hainbat ondorio atera ditzakegu gure gizartearen egungo egoerari buruz. Gizarte hau ezagutzen dugun moduan mantentzea, bere iraupena arriskuan jartzen du sistema ekonomikoren bideragarritasuna dela medio. Eta ez hori bakarrik, baita planetaren bizitza eta etorkizunaren iraunkortasuna ere.

Marxek (1867) adierazi zuenez, sistema kapitalista desagertzera bideratuta zegoen, mugarik gabeko baliabide naturalen ustiapenean oinarritzen baitzen. Gaur egun, mundu guztia ados dago baliabide naturalen gehiegizko ustiapenak biosferaren degradazioa ekarriko duela. Horrek, zalantzan jartzen du etorkizuneko belaunaldien bizi kalitatea, baita planetako bizitzaren bideragarritasun bera ere.

Garraiorako eta industria produkzioarako erregai fosilen erabilera masiboak arazoak eragiten ditu. Adibidez, berotegi efektua, karbono dioxidoaren gehiegizko sorreraren ondorioz. Izan ere, berotegi efektuak lurra gehiegi berotzea eta poloen urtzea dakar. Urtze hori, itsasoaren maila handitzea eragiten du, eta erabateko desoreka sortzen du fenomeno meteorologikoetan, muturreko efektuak sortzen.

Basoak gehiegi ustiatzeak industria ekoizpenak sortutako CO₂aren zati bat oxigeno bihurtzea eragozten du. Horrek, atmosferaren kutsadura areagotzen du. CFCak kontrolik gabe erabiltzeak ozono geruzaren zuloa handitzea eragiten du, minbizia sortzeko aukerak handituz, erradiazio izpi ultramoreetatik ez pasatzeagatik. Zorionez, zulo hau murrizten ari da bere erabilerari ezarritako murrizketengatik. Itsasoak gehiegi ustiatzeak eta mugarik gabeko edo kontrolik gabeko arrantzak espezieen eskilma eragiten du. Kate antropologikoa arriskuan jartzen du, etorkizuneko belaunaldien sostengua eta elikadura zalantzan jartzeaz gain.

Mota guztietako hondakinen sorrerak lurraren zein itsasoaren kutsadura eta degradazioa areagotzen du. Esate baterako, itsas espezie askotan aurkitutako merkurio eta mikro plastiko kopuru altuekin, ibai, laku eta itsaso askoren toxikotasunarekin eta abar.

Azken batean, planetaren bizitzari eusteko begirune handiagoz tratatu behar dira dauden baliabide naturalak, eta gutxiago kontsumitu. Kontziente izan behar gara, edo gure ekosistemarekiko errespetu handiagoz jokatu behar dugula, edo geure espeziearen amaiera aldaera jo dezakegula. Hazkundera ezin da mugagabea izan baliabideak mugatuak badira.

Hala ere, gaur egun herrialde guztiek hazkunde ekonomikoa jotzen dute garapen sozialerako oinarritzat. Gainera, gizartearen zati handiena baliabideen banaketa bidezkoagoa bilatu beharrean, aberastasuna eta kapitalaren metaketa bilatzen dute. Zalantza da ea sistema kapitalista honek noiz egingo duen porrot planetarekin amaitu aurretik edo ondoren...

Bestalde, zalantzan jarri behar dugu daukagun sistema ekonomikoa, non gizarte erdia, emakumeak, tratu txarrak jasaten ari dira modu sistematikoan. Mugimendu feministen agerpenak, eskaera eta borroka askoren ondoren lortu dute emakumeei indarrez kendu zaizkien hainbat eskubide berreskuratzea. “Arrek” inposatu duen sistema patriarkalak bigarren mailako aktore izatera baztertu du emakumea eskubideei dagokionez, baina betebeharrei dagokionez lehenengo mailako planoan daude.

Gaur egun alderdi kontserbadore zein liberalek feministen rol faltsua bereganatzen dute, mugimenduaren zeharkakotasuna aitzakiatzat hartuta, emakumeen botoa erakartzeko asmoarekin. Hala ere, ez dute onartzen emakumeen autonomia bere gorputzari buruzko erabakietan, hala nola, abortuan. Gainera, alderdi horiek diskurtso arrazista eta klasista dute, feminismoaren berdintasun oinarrien aurkakoa dena. Era berean, sistema patriarkala iraunarazten dute, etorkinen eskubideak mugatzeko legeak babestuz, sexu bereko pertsonen arteko ezkontza ukatuz, eta abar.

Kontuan hartu behar dira, halaber, digitalizazioaren aro berriak feminismoarentzat dituen erronkak. Aro berria egituratzeko eta definitzeko erabiltzen diren eredu gehienak gizartean dauden eredu patriarkaletan eta kapitalistetan oinarritzen dira. Egoera horrek, feminismoak defendatzen duen berdintasunaren bilaketan atzera pausoa egitera eragin dezake.

Gizonen eta emakumeen arteko gizarte-harremani dagokienez, eta zehazkiago, lan-munduari dagokionez, ukazina da lanaren sexu banaketa dagoela, lehenik sistema patriarkalak eta ondoren sistema kapitalistak inposatutakoa. Banaketa hori jakina, ez da kasualitatea, eta are gutxiago orekatua. Emakumea argi eta garbi baztertzen du.

Eredu androzentriko, patriarkal eta era berean kolonialista bati jarraiki, emakumeari “bigarren” mailako zeregina ematen dio, familiaren sostengupearen oinarritzat beharrak asetzerantz bideratuta. Egoera honek, gizona eremu publikoan protagonista bihurtzen du. Horrela, baliabide ekonomiko edo materialen hornitzaile izatea lortzen duen, eta emakumearekiko lehentasunezko posizioan egotea bermatzen dio. Horrela, eremu publikoan emakumeentzat geratzen diren lanak zerbitzuen sektorean kontzentratzen dira, ordainsari txikiagoa ematen zaie eta kasu askotan, lanaldi partziala dute. Horrek guztiak, emakumea gizonaren maila berean garatu ahal izatea eta haien askatasuna bermatuko duen independentzia ekonomikoa lortzea eragozten du.

Zaintzak eta zainketen ekonomia dira gizarte honen ikuspuntu androzentriko, patriarkal eta kapitalistaren frogarik nabarmenenak. Oso gutxi dira, inor ez esatearren, zaintzaren zama jasaten duten gizonak. Asko jota, batzuek beren erantzukizuna “askatzen” dute etxean egiten duten “laguntzarekin”. Zaintzak erabat feminizatuak daude, eta eremu publikoan ordaintzen diren baldintzen eta soldaten prekarizazioa dela eta, osagai post-kolonialista dute, emakume etorkinak baitira kasu gehienetan zeregin horiek betetzen

dituztenak. Gizarte Segurantzako araubide bereziek ez diete langabeziarako eskubiderik ematen, nahiz eta erabat ustiatuak egon. Horrek gainera, ikuspegi klasista eta arrazista sortzen du emakumeen artean, langile eta nagusiaren artean bereizten dena. Ereku pribatuan rol hori hartzen duten emakumeek, kontraturik eta soldatarik ez dutenak, ez dute ere ez langile arrunt baten eskubide berdinak eskuratzeko aukerarik.

Guzti honekin, gizonak sistema honetaz eta ezkutuko lan honetaz baliatzeko aukera dute. Zaintza lan guztiek (haurrak haztea, familia elikatzea eta garbitzea eta abar), ereku pribatuan emakume ikusezinek egiten dituzte, eta ereku publikoan berriz, emakume migratuek eta gaizki ordaindutako emakumeek. Izan ere, dohain egiten diren lan hauek dira sistema kapitalista hau eusten dutenak.

COVID 19aren etorrerak erakutsi digu zaintza lan hauek direla benetan garrantzitsuenak direnak, eta gizarte gutxieneko funtzionamenduan egon denean, zainketa lanak izan dira mantendu diren jarduera bakarrak.

Eguno eredu ekonomikoaren ondorio tamalgarri horien guztien aurrean alternatiba integratzailea, justua eta iraunkorra aurkezten zaigu. Ekonomia feministan oinarritutako ereduak, gizakia, bizitza eta honen kalitatea erdigunean jartzen dituzten konponbideak eskaintzen dizkigu. Gainera, eredu honek agerian utzi du guzti hau ez dela lortuko pertsonen arteko ekitatea eta biosferaren oreka naturala errespetatzen ez bada. Jarraian, marko teorikoan ateratako aldagai nagusiak azaltzen dira.

2.4.1. Aberastasunaren banaketa

Sistema kapitalistak produktibitate ekonomikoa eta kapital metaketa proposatzen duen bitartean, ekonomia feministak aberastasuna banatzea proposatzen du. Hau da, ekonomia feministak helburu materialaz gain, beste helburu asko lortu nahi ditu, askotan ikusten ez direnak edo ikusi nahi ez direnak. Helburu hauek, emakumeek eta klase ahulenak egiten dituzten lan prekarizazioarekin amaitzea eta oinarrizko beharrak bermatzea dira, bizi-maila duina lortu ahal izateko.

2.4.2. Ekosistemen mantentzea, ekstraktibismoaren mugak

Gehiegizko ustiatze eta baliabide naturalen erauzketaren aurrean, planetako biodibertsitatea eta ekosistemak mantentzea bilatzen du, gure belaunaldien eta etorkizuneko belaunaldien bizi kalitatea mantentzea oinarrizko printzipioa baita. Azken finean, naturarekiko menpekotasuna dugu, eta natura hau etengabe ustiatzen badugu, mugagabeak ez diren, baliabide hauekin amaituko genuke eta ondoren, gizakion amaierara iritxiko zen. Beraz, bizitza erdigunean jarri behar da.

2.4.3. Lanen banaketa ekitatiboa

Ereku pribatuan genero desberdintasunak betikotu beharrian, gizonari zuzendari papera eta emakumeari ugalketa eta zaintza lanak emanez, etxeko lanen banaketa ekitatiboa proposatzen du. Emakumeak izan dira beti zaintza lanak egiten dituztenak, eta gizonak berriz, “lan munduko lanak” egiten dituzte. Horren aurrean, ekonomia feministak ugalketa eta zaintza lan hauek beste era batean banatzea proposatzen du, bai gizon eta baita emakumeek egin ditzaten.

2.4.4. Neurri eta lege berriak

Eremu publikoan neurriak inplementatu beharrean, soilik emakumeek lan eremua eta familia bateratu ahal izateko, neurri berriak proposatzen ditu gizonak zaintzari dagozkien lanak bere gain har ditzan. Adibidez, baimenak trukagarriak ez izatea gizon eta emakumeen artean. Zaintza lanak egiten ari diren emakumeentzako legeak sustatu nahi dira, lan horri benetako aitorpena emateko, eta oinarrizko premiak betetzeko lan eskubideak bultzatzea. Atzerritarren bezalako legeak indargabetzea sustatzen du. Lege honek, klase ezberdintasunak betiketzen ditu eta pertsona migratuen arazoa larriagotzen du. Egoera ezegonkorra izateaz gain, legez kanpokoak bihurtzen ditu.

2.4.5. Oinarrizko eskubideak

Emakumea kontsumo merkantzia gisa ez tratatzea bilatzen du. Leku askotan, emakumeen gorputza merkantilizatzen dira, prostituitzen dira, salerosketa zurian erabiltzen dira, hitzartutako ezkontzetara behartzen zaie eta nahitaezko lanak egiteko erabiltzen dira. Hau da, badira oraindik ere emakume askok haien gorputzen jabe ez direnak, eta hori bidegabea da.

2.4.6. Ahalduntzea

Emakumeen ahalduntzea bilatzen du, baita lan eremuan ere. Horretarako, kalitatezko enplegua, diskriminaziorik gabekoa eta gizonen independentziak ematen duen soldata-parekatzea proposatzen du. Oraindik ere badaude emakume eta gizonak era ezberdinean tratatzen dituztenak, eta tratu horietan emakumeak beti menpekoak geratzen dira. Ahalduntzarekin, emakume bakoitza bere bizitzaren jabe izatea sustatu nahi da. Hau da, haien ekintzekin berdintasunaren aldeko borroka bultzatzea.

2.4.7. Interseksionalitatea

Pertsonen arteko ekitatea eskatzen du, jatorria, arraza eta sexua alde batera utzita. Pertsona bakoitza, inguratzen duen interseksionalitateak definitzen duela ulertzen du, interseksionalitate hau ezaugarri aberasgarria izanik. Lehen aipatu dudak bezala, zaintzalan gehienak gorputz feminizatuek egiten dituzte. Hots, sistema kapitalista honek, sexismoak, arrazakeriak eta klasismoak betiketzen ditu, eta azken finean interseksionalitateak, gizabanako bakoitzak gizarteko talde batekoa izateagatik jasaten duen diskriminazioarekin amaitu nahi du.

2.4.8. Politika publikoak

Zaintzak eremu publikotik aitortzea eskatzen du, horiek babestu eta kudeatuko dituzten politika publikoen babeseekin, aurrekontu partidak emanez, sektore pribatuak beste ustiapen elementu bat bihur ez dezan. Ekonomia feministak, ikuspegi indibidualista eta egozentrikoari eusten dion sistemaren ondorio negatiboak konpondu nahi ditu, eta ekitatean, gizarte ongizatean, eta bizitza eustean oinarritutako bizitza balioesten du, zainketan oinarrituta (denak behar eta daukaguna). Azken batean, eta modu grafikoan adieraztearren, ekonomia feministak lehen aipatutako izeberga piramide batean bihurtzeko apustua egiten du, non zaintza eta bizitza beste guztiaren oinarri izango diren. Modu ikusgarrian adierazteko, taula batean jarri dira aldagaiak:

Taula 1: Ekonomia feministaren aldagaiak

1	Aberastasunaren banaketa <ul style="list-style-type: none"> - Merkatutik haratago, ez soilik kapitala (“Homo economicus”) - Bizitzeko gutxieneko baldintza ekonomikoak bermatu
2	Bizitza erdigunean <ul style="list-style-type: none"> - Bizi kalitatea bermatu - Zaintzaren garrantzia - Ekosistemen mantentzea - Extraktibismoaren mugak
3	Lanen banaketa ekitatiboa <ul style="list-style-type: none"> - Arlo pribatuan zaintza lanak denen ardura izatea, ez soilik emakumena - Arlo publikoan, lan banaketa sexualarekin eta genero indarkeriekin amaitu: lan merkatuan, lanetik kanpo...
4	Neurri eta lege berriak <ul style="list-style-type: none"> - Gizonak zaintza lanak kontziliatzeko eta arduratzeko - Zaintzarako benetako eskubideak bermatu - Atzerritar legea indargabetu
5	Oinarrizko eskubideak <ul style="list-style-type: none"> - Emakume gorputzaren esplotazioarekin amaitu - Sexu indarkeriarekin amaitu - Emakume bakoitza bere buruaren jabe izatea
6	Ahalduntzea 1995.urtean Pekinen ospatu zen emakumeari buruzko IV. Kongresuaren 7 printzipioak: <ol style="list-style-type: none"> 1. Goi zuzendaritzatik genero indarkeria suntsitu 2. Lanean gizon eta emakumeak ekitatez tratatzea: Giza eskubideak eta diskriminazio eza defendatu eta errespetatu 3. Langile guztien osasuna, segurtasuna eta ongizatea zaindu 4. Emakumeen hezkuntza, gaikuntza eta garapen profesionala sustatu 5. Emakumeen ahalduntzearen aldeko enpresa garapena, marketin praktikak eta hornidura kateko praktikak ezarri 6. Berdintasuna sustatu ekimen komunitarioaren ereduaren bidez 7. Genero berdintasunaren alde egiteko aurrerapenak ebaluatu eta zabaldu
7	Interseksionalitatea <ul style="list-style-type: none"> - Jatorria, arraza eta sexuaren diskriminaziokin amaitu - Ezberdintasuna elementu aberasgarria da
8	Politika publikoak <ul style="list-style-type: none"> - Epe laburrean larrialdi egoerak zuzentzeko politikak - Epe ertain-luzean sistema ekonomiko osoa aldatzeko politikak

Iturria: geuk egina, 2023

Maialen Alonso Canellada

Ekonomia feminista: klima larrialdiari eta gizarte krisiari aurre egiteko irtenbidea

3. LANDA AZTERKETA

3.1. LANDA AZTERKETAREN ABIAPUNTUA

Landa azterketa honen abiapuntua, marko teorikoan landutako aldagaiak sakontzea eta garatzea da. Bereziki, ekonomia feministaren aldagai nagusien inguruan hausnarketa eta adituen ikuspuntuak txertatzea da.

Azterketa hau egiteko bi elkarrizketa kualitatibo egin dira ekonomia feministaren inguruan adituak direnei. Bi pertsona hauek aukeratzearen arrazoiak, alde batetik, haien artikuluak eta bideoak lantzen aritu garelako da, eta beste aldetik, parte hartu izan nuen Ekonomia Feministaren VIII. kongresuan biek parte hartu zutelako, eta beraz, iritzi eguneratuak eta interesgarriak zituztela iruditu zitzaigun.

Elkarrizketa kualitatibo horiek egiteko galdetegi zabal bat prestatu da. Galderak aldagai nagusietan zentratuz egin dira eta etorkizunari buruzko aurre ikuspenak txertatu dira.

3.1.1. Yolanda Jubeto

Euskal Herriko Unibertsitatean ekonomian doktorea da, eta 1999. urtetik klaseak irakasten aritu da bai graduetan eta baita masterretan ere. Ekonomia Feministan aditua, genero ikuspegia duten aurrekontu publikoei buruzko Europako esperientzien azterketetan eta emakumeek lanean parte hartzeko ereduetan ere aditua da.

Bere lanek lan-denboren eta bizitzaren antolaketarekin lotutako gaiak barneratzen dituzte. Bere ikuspegi eta analisi nagusiak, ekonomia feminista ekonomia ortodoxoaren alternatiba gisa garatzera bideratuta daude, agerian utzita sistema ekonomikoak ez lukeela funtzionatuko, merkatuko moneta-zirkulutik kanpo egiten diren eta ikusezinak diren jarduerak egingo ez balira, normalean emakumeek egiten dituzten lanak. Ikusaraziz, bizitzaren iraunkortasuna eta erreproduktzio soziala bezalako gaiek ere garrantzia dutela eta gai horietara heldu behar garela.

Gainera, euskal administrazio publikoekin lankidetzan aritu da aurrekontu publikoen partidak genero-ikuspegitik duten eragina aztertzeko, justizia sozialaren aurrerapena sendotzeko helburuarekin, emakumeen eta gizonen arteko ekitate ikuspegitik.

3.1.2. Mirene Begiristain

Euskal Herriko Unibertsitatean ekonomian doktorea da, eta 1999. urtetik klaseak irakasten aritu da marketinarekin eta merkaturatzearekin lotutako irakasgaietan.

Bere ikerketa-lana, nekazaritza-merkaturatzearen eta elikadura-sistemen esparruan zentratzen da, begirada agroekologiko eta ekofeminismoa garatuz, elikagaien subiranotasuna helburu lortzeko. Ekonomia feministaren eta ekonomia ekologikoaren lotura bultzatzen du, ekonomia feministan eta ekologikoan aditua izanik. Gainera, Euskadiko nekazaritza-sektorea gertutik ezagutzeko aukera izan du, hainbat jarduera eta ekimenen bidez. Elikadura-estrategia, prozesu eta proiektuen definizio eta garapena sakondu du, hala nola, lehen sektoreari lotutako azterketa sozioekonomikoak edo elikadura sistema iraunkorrak eraikitzeke gobernantza ereduetan lana eginez.

3.2. LANDA AZTERKETAREN HAUSNARKETA NAGUSIAK

3.2.1. Aberastasunaren banaketa

Aberastasunaren banaketaren inguruan, bai Jubetok, bai Begiristainek ikuspuntu bera dute. Ekonomia feministak, ekonomia kapitalistaren (ortodoxoaren) aurrean, ekonomia ulertzeko beste pentsamendu, korrante eta klabeak ematen dizkigu. Ez hori bakarrik, Begiristainek esaten duen bezala, denontzat bizitza hobetuzko eraikitzearen zenbait praktika eta mugimendu sozial bat eskaintzen digu.

Gaur egungo ekonomiak, oso ikuspegi estua dauka eta zati batean soilik zentratzen da, merkatuan, hain zuzen ere, merkatu harreman kapitalistetan. Hau da, soilik etekin ekonomikoak lortzea ditu helburu. Etekin ekonomiko hauekin batera, noski, hazkunde ekonomiko bera dago eta hazkunde ekonomikoarekin lotutako guztia. Etekin ekonomikoek lehentasuna ematen zaie eta berdina zaio zer ekoitzi eta nola ekoizten den.

Jubetoren hitzetan, ekonomia ortodoxoak gabeziak ditu eta ezegonkortasun handiak sortzen ditu. Gabezia eta ezegonkortasun horiek egotearen arrazoia, aurrerago aipatu den bezala, egungo ekonomiak soilik faktore eta helburu batzuk kontuan hartzen dituelako da. Baina errealitatea, ordea, ez da horrela, eta beste hainbat faktore daude egungo ekonomia eusten eta mantentzen dutenak, eta horiek egongo ez balira ekonomia kapitalista hau ez luke funtzionatuko. Beraz, ekonomia feministak bertan jartzen du fokua, ekonomia ez dela soilik dirua eta merkatua, beste hainbat faktore daudela kontuan hartu behar direla. Hots, gizartean dauden desberdintasun eta desorekak ez direla soilik monetarioak. Gainera, desoreka monetario hauek sistema kapitalistak gehiago areagotzen ditu.

Ekonomia feministak, munduan dauden arazoak identifikatzeko tresnak ematen dizkigu, egungo mundua ulertzeko, baita lan-harremanak eta enplegua berrantolatzearen klabeak ere. Jubetok, adibide batzuk ematen dizkigu. Bere ustez, lan jarduerak eta enplegu orduak murriztu behar dira guztiontzat. Enpresak ezin dute funtzionatu XIX. mendean bezala, gizonak enpresan eta emakumeak etxean daudela pentsatuz.

Ezinbestekoa da ikuspegi hau barneratzea, mundua eta gure erronkak ulertzeko. Gainera, ekonomia feministak, justiziaren ikuspegitik onurak ekartzen ditu. Halaber, Begiristainek azpimarratzen du, ekonomia feministak eskaintzen dituen abantaila horiek lortzeak, konfrontazio garbia ekartzen duela; sistema kapitalistaren kontrako iraultza. Nahiz eta ekonomia feministak gaur egun aplikazioan dagoen ekonomia ortodoxoari soluzioak eman, oraindik badago gizartearen zati handi bat ekonomia feminista bultzatzen ez duena.

Alde batetik, Begiristainek, gizarte patriarkal batean bizitzeagatik gertatzen dela adierazten du. Berak, unibertsitateko klaseetan Cristina Carrascok sortu zuen izeberraren metafora azaltzen du. Metafora horretan garbi adierazten da gaur egungo paradigma ekonomikoa; zer den publikoa dena eta zer pribatua dena, begi-bistan dagoena eta ikusezina dena. Izeberraren puntan, merkatua eta Estatua kokatzen da, eta menperatzen den logika horretan, BPG da erabiltzen den irizpide maximoa. Horiek eraikitzen dute gaur egungo merkatu ekonomiaren eta ekonomia kapitalistaren ikusgarria den izeberraren atala.

Bestalde, merkatua eta Estatuaz gain, badago beste atal handiago bat ikusezina dena, eta ekonomia feministak hori seinalatzen du. Bere ustez, bereziki zaintza lanak azpimarratzen dira, interdependentzia. Denok beharrezkoa baitugu zaintza, bizitza on bat izateko. Bizitzako momentu guztietan, lehenago edo beranduago, eta era desberdinean, baina beharrezkoak dira. Hala ere, alderdi ikusezin horretan badaude zaintzaz gain faktore batzuk kontuan hartu behar direnak; natur sistemak eta komunitateak. Beharrezkoak dira hiru kate-maila horiek bisibleak diren beste biak eutsi ahal izateko. Beraz, ekonomia feministak ezkutuan dauden kate-mailak begi bistan jartzen saiatzen da, baina logika kapitalista, heteropatriarkal, kolonialista, hirizentrikoak kate-maila guzti hauek nahita izkutatu nahi ditu.

Begiristainen aburuz, gizarte patriarkal honetan gaudelako gertatzen da ekonomia feminista bultzatzearen beharra. Zentzu horretan, ekonomia feminista ez gailentzeko erabakiak hartzen dituztenak, ekonomia patriarkal eta kapitalistan eusteko erabakiak hartzen dituzten berberak dira. Generoan oinarritutako sistema bat dago, patriarkatuan gaudelako eta honen soluzioa, iceberga iraultzea dela uste du.

Jubetoren iritziz, zenbait proposamen eremu publikora irtetzen ari dira eztabaidak sortuz. Baina, arazoa da, pentsamendu hegemonikoa duten ekonomialari boteretsuei, ekonomia feministak bultzatzen dituen helburuak ez zaizkiela interesatzen. Ez dute interesa, sistema honekin onurak lortzen dituztelako, eta sistema aldatzea haien pribilegioak galtzea suposatuko lukeelako. Beraz, emakumeen arazoak bigarren mailakoak gelditzen dira. Era berean, bere ustez, mugimendu feministak azken urteetan gorputzaren eta sexu identitateen arazoetan fokua jartzen ari da, eta arazo ekonomikoa aurreko mendeko arazo bezala geratu da. Hala ere, administrazio publikoetan pixkanaka zaintza-lanen inguruan gehiago hitz egiten ari dira. Arazoa, guzti honek aurrekontu handi bat eskatzen duela da.

Azken finean, arazo estruktural bati aurre egiteko prozesua luzea da eta ez da batere erraza, oztopo asko baitaude. Esate baterako, guzti honen (ekonomia feminista) inguruan komunikabideetan ez da entzuten eta ez dago formakuntzarik honen inguruan. Beraz, zaila da jendeak guzti hau ikusaraztea eta bultzatzea. Hala ere, Jubetok, ekonomia feminista aurrera ateratzeko esperantza dauka (batez ere emakumeengan).

3.2.2. Bizitza erdigunean

Jubetoren ustez, bizitza erdigunearen kontzeptuari heltzea, ekonomiari jartzen dizkiogun mugak haustea da. Muga horiek hausteko, sistema kapitalista gainditu behar da, sistema hori baita gure sare komunitarioen harremanak eta beste era batean bizitzeko aukerak hausten dizkigunak. Sistema hau, merkaturaren zentratua dagoelako, etekinetan, eta berdina zaio natura ustiatzea edo gizakiok bizitzeko baldintza minimoak haustea, bere helburua lortzeko. Bere ustez, sistema biolento batean murgilduak gaude, eta beraz, bizitza erdigunean jartzeak, bizi kalitatea, justizia soziala, eta batez ere, gu geu gure buruaren jabe izatea bultzatzen du, burujabetasuna.

Gainera, bizitza erdigunean jartzea, ekonomia feminista eta ekonomia ekologikoaren arteko lotura indartzen du. Ekonomia ekologikotik, ekonomia feministak asko ikasi du. Izan ere, ekonomia ekologikoak, 70. hamarkadatik gaur egun arte darama azpimarratzen sistema honek planetarekin duen lotura estua, gizaki eta naturaren lotura. Azken finean, gizakiok gure artean interdependentzia izateaz gain, naturarekiko ere interdependentzia daukagu. Sistema kapitalistarekin jarraitzen badugu, bai planeta eta

baita gure gizartea ere kolokan egongo dira. Era berean, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak areagotuko dira. Bere iritziz, bizitza erdigunean jartzea erronka handi bat da eta mundua pentsatzeko beste deialdi bat eskatzen du. Hau da, antolatzeke era berri bat sortu. Esan daiteke, planteamendu filosofikoa ere badela, bizitza zer den galdetzea ere iristen bagara.

Begiristainen eta Jubetoren iritzia gai honen inguruan antzekoak dira. Izan ere, Begiristainek zenbait ideia azpimarratzen ditu. Bere ustez, bizitza erdigunera kontzeptuari heltzeko, bizitza ona zer den definitu behar da, eta horrek, hiru bide eskatzen ditu.

Lehenik, elkarrekin bizi nahi dugun bizitzaren beste ideia bat eraiki behar da. Horretarako, alde batetik, bizitza ona guztiontzat izatea beharrezkoa da, eta ez soilik gizartearen zati batentzat. Beste aldetik, bizitza ona lortzeko aniztasuna errespetatzea funtsezkoa da; desberdina dena errespetatzea, trantsizio horizonte horretan bizikidetzat egokia zer izango litzatekeen beste ideia bat eraikitzeke. Horrez gain, egitura sozio-ekonomiko egokiak zeintzuk diren identifikatu behar dira bizitza on hori eraiki ahal izateke. Esate baterako, trantsizio energetiko egoki bat eraikitzea, baina aldi berean elikadura sistema ekologiko eta iraunkor bat eraikitzea, eta mugikortasun eredu logiko bat eraikitzea.

Bigarrenik, bizitza ona guztiontzat eta modu anitzean izateaz gain, eraikitzen ditugun egitura sozioekonomikoak egunerokotasunarekin lotuta egon behar dira. Hau da, nola erantzun bizitza erdigunean kontzeptu horri, egunerokotasunean ditugun behar horiei erantzunez; energia beharrak, elikadura beharrak, mugikortasun beharrak, zaintza beharrak... Hirugarrenik, eta azkenik, modu subiranoan eraiki behar da. Zer behar den, nola behar den eta denok erabakiak hartuz, modu burujabe batean eginez.

Guzti honek, egiturak berreraikitzea ekartzen du. Izeberra irauli behar da, bizitza ona zer den, denontzat, modu anitz batean, egunerokotasun errealitatearekin lotuta eta gainera burujabean eta subiranoan izan dadin. Horretarako, begirada antropozentrikoa eta androzentrikoa gainditu behar da. Hau da, gizakia ez dago puntu guzti hauen erdigunean, eta noski, gizonezkoa ezta ere. Zentzu horretan ere bizitza ona eraikitzeke beste espezieak ere kontuan hartu behar dira. Orokorrean, kapitalismotik kanpo gure burua imajinatu behar dugu, benetako errealitatea eraiki ahal izateke. Ekonomia feminista eta ekonomia ekologikoaren lotura kontuan hartuz.

3.2.3. Lanaren banaketa ekitatiboa

Lanaren banaketa ekitatiboaren inguruan, Begiristainen ustez, bai lana eta bai ekitatea definitzea zaila da. Gaur egun, lanak soilik soldatapekoak direla esaten da, eta ez du zertan horrela izan behar. Orduan, lanaren definizioa zabaltzeak ekitatearen aukerak lantzeko lagunduko liguke, eta hori izango zen lehenengo pausoa. Gainera, bere ustez, sistema ekonomikoak, nahiz eta jatorri eta egoera ezberdinak eduki, gizabanako guztiei baldintza berdinak jartzen die, eta hori aldatu egin beharko litzakete.

Baldintza berdinak jartzen baditugu, adibidez Gizarte Segurantzako ordainketan, ekoizpen eredu txiki agroekologiko bat daukan proiektu bati, edo eredu agroindustrialean inbertsio-fondo bat duen proiektu bati, ezinezkoa bihurtzen da zaintzea. Proiektu txikia duen pertsonak, ezingo du bere ingurukoak zaindu, ezingo du bere buruaz zaindu, prekarizatuko da. Egoera horretan, bi eredu oso ezberdinak konparatzen ari gara, baina baldintza berdinetan jokatu behar dute, eta ezinezkoa da, batak izeber osoa kontuan hartzen duelako eta besteak soilik izeberraren punta. Gainera, egoera horretan emakumeak ekoizpen eredu txiki agroekologiko bat izango balu, beste baldintza okerrago batzuk edukiko lituzke emakumea izateagatik. Dena dela, bere ustez, aipatzen diren gizon eta emakumeen rolak, sistemaren logikarengatik sortu dira.

Jubetoren esanetan, lanaren banaketa sexuala denboran zehar aldatuz joan da. Izan ere, feudalismo garaian, lanak nahiko banatuta zeuden. Bere ustez, lana sexuaren arabera banatzearen arrazoa kultura ezberdinetatik dator. Esaterako, zenbait kulturetan gizona da merkatura joaten dena, eta beste kultura batzuetan emakumeak dira. Antropologo batzuen aburuz, gizarte bezala gizonak edo emakumeak egindako lanei balio ezberdina ematen diogu. Bertan dago arazo larriena. Hau da, balio kontu bat da, eta argi ikusten da, adibidez etxeko lanetan. Etxeko lanen kasuan, lana oso garrantzitsua eta baliotsua da gure gizarterako eta erreprodukziorako, baina emakumeak egiten dutenez ez zaie baliorik ematen. Orduan gero lan horiek merkatura ateratzean, oso gutxi ordaintzen zaie eta gainera lan duinekin.

Baino guzti hau ez da gaur egungo kontua, XVIII. mendean sortutako gizarte utopikoaren kontzeptutik dator. Gizarte utopikoan pentsatzen zuten gizartea segregatuta egon behar zuela, eta emakume eta gizonak banatuak egon behar zirela. Ikuspuntu oso patriarkal batetik esaten zuten emakumeak lan-aukerak lortzeko aukera txikiagoa izan behar zutela, emakumea etxeko rolaekin lotzen baitzituzten (eremu pribatuan).

Adibidez, Alfred Marshall britaniarrak ere esaten zuen, emakumea gizonarekin ezkontzean, bere rola etxean zeudela eta hori betetzen ez bazen, pizgarri negatiboak izango zituela. Era horretan, enpresetan balio bera duen lanaren truke emakumeak gutxiago kobratuko luke, eta gero krisi garaian familiako kide bat etxean geratu behar bazen, soldata gutxien jasoko zuena izango zen, hau da, emakumea.

Modu batean edo bestean, pentsalari klasikoek emakumeak etxean egon behar zutela justifikatzen zuten. Hala ere, ikusi izan da adibidez industria iraultzan, emakumeak (batez ere langile klasekoak) enplegura irten izan behar zutela, gizonak baino soldata gutxiagoren truke, gizonen soldatarekin nahikoa ez zelako. Nahiz eta denbora pasa ahala egoera hobetu den, oraindik ere badaude leku askotan lan-banaketa hauek egiten diren. Lehen aipatu dugun bezala, sistema ekonomikoaren helburu bakarra errentabilitatea da.

Aldaketa kultural baten beharra dago, eta hori erreferenteak izaten lortzen da. Erreferenteak lortzen badira, gizakion pentsatzeko era asko aldatu daiteke eta horrela pixkanaka gure sistema aldatu. Behin erreferenteak lorturik, lan baldintzak aldatu beharko lirarteke. Hau da, emakumeak lan guztietan egotea eta lan baldintza duinak izatea. Orokorrean, Jubetoren ustez lan mundua aldatzeko, emakumeak leku guztietan egon behar gara. Batez ere, eremu politikoan, legeak aldatzeko eta enpresei mugak jartzeko, eta gaur egun dauden arazoei jarraipena ere egin behar da, arazo horiek agerian jartzeko.

3.2.4. Neurri eta lege berriak

Zaintza munduan prekaritatea da nagusi, eta prekaritate hori gehienbat emakumeek bizi izaten dute. Ez da harritzekoa, eremu honetan gizonak ze papera hartzen duten galdetzea.

Begiristainen ustez, ez da gizonen kontu bat, baizik eta logika patriarkal baten kontua, eta hor gizonak dira pribilegiatuak. Hots, gizon txuriak, burgesak, hirian bizi direnak, eta gainera, hizkuntza hegemoniko jakin batean bizi direnak. Gainera, gizon horiek dira erabakiak hartzen dituztenak, eta bere pribilegioei uko egiteko inongo intentziorik ez dutenak. 80. hamarkadan, industrializazioarekin eta neoliberalismoarekin, logika hau sakontzen hasi zen modu bortitzean. Orain, neoliberalismoaren bigarren buelta bat ematen ari gara, eta hor dago gizon hori.

Legediaren aurrean, argi azpimarratzen da, sistema kolonialista eta arrazista batean bizi garela. Hau da, gure sistema eta ongizate sistema eraiki da herri jakin batzuen zapalkuntzapean, hegoaldekoena hain zuzen ere. Begiristainen ustez, hemen bertan ere gure hegoalde propioak ditugu, hau da zaintza kate globalak eraiki ditugu. *Kolektibo XXX*, Perez-Orozok erreklamaten ditu zeintzuk diren gauza minimoak, eta Begiristainek bat doa pentsamendu honekin: atzerritarrei buruzko legea indargabetzea, emakume migratzaileen oinarritzko eskubideak bermatzeko; osasunerako, etxebizitzarako, hezkuntzarako eta Gizarte Segurantzako sarbide unibertsala; pentsio duinak eta justuak; prostituzio eta esplotazio sexualaren abolizioa; hezkuntza dibertsitatearen benetako berdintasuna; migrazioarako eskubidea. Orokorrean, bere ustez, aipatu diren puntuak, gizabanako guztiek eduki behar ditugun gutxieneko baldintzak dira.

Jubetok ere Begiristainen antzeko iritzia dute legediaren inguruan. Bere ustez, atzerritartasun legeak izugarritzko kaltea egiten digu guztiei, batez ere etorkinei. Etorkinei egoera erraztu beharrean, oztopoak jartzen zaizkie, eta gizarte banaketa dakar xenofobia zabalduz; lana kentzen digutela esaten da baina, nor dago prest lan horiek egiteko?

Lehendabizi, atzerritartasun legea bertan behera utzi beharko zen eta beste lege berri bat egin, justuagoa eta erraztasunak emanez. Azken finean, gu ere herrialde emigratzaile bat gara. Lege honekin jarraituz, normalean emakumeak dira lan hauek egiten dituztenak, baino badaude gizon batzuek haiek zaintzeko gizonak nahi dituztenak. Egon badaude, gizonak zaintza-lanetaz arduratzen direnak, baino gutxiago dira. Egia esan oraingo belaunaldietan ikusten dut geroz eta kontzientzia handiagoa dagoela (gizonak barne), baino oraindik lan asko dago egiteko. Izan ere, gizon asko daude esaten dutenak “nik etxean laguntzen dut”, baino zeba da emakumearen lana? Hor dago arazoa... Gainera, ekonomia feminista ez da soilik emakumeen borroka, bai gizon eta emakumeen borroka da, eta emakumeen lorpenekin gizonentzat ere hobekuntzak eskuratzen dira.

3.2.5. Oinarritzko eskubideak

Gaur egun oraindik ere emakumeen gorputza esplotatzen jarraitzen da eta sexu indarkeriak pairatzen jarraitzen da. Indarkeria hauen aurrean, Jubetoren ustez, neurriak ezarri behar dira. Ez da erraza, hemen ere kultura sartzen baita, eta kulturetan emakumeak normalean bigarren paper bat bizi izan dute.

Eztabaida sakon bat egin behar da argitzeko zer den gorputzaren jabe izatea. Gorputz hauek, bereziki emakumeen gorputza, hipersexualizatuak baitaude. Umeetatik zenbait dinamika sortzen dira gorputz batzuk merkantilizatzeko, eta internet, pornografia eta prostituzioaren bidez emakumeen gorputza objektu bezala merkantilizatzen da. Guzti honi aurre egiteko, bere ustez, indarkeria jasotzen duten emakumeei entzun behar zaie. Haiekin harremanetan jarri eta entzun, benetan jakiteko nolako egoera bizitzen duten, gero aurre ahal izateko. Hau da, kontzientzia izan behar dugu, eztabaidak sortu behar direla, jakiteko zergatik jendeak indarkeriak erabiltzen dituen, gero soluzioak emateko. Horrela hurrengo belaunaldiak ondo formatu ahal izango ditugu benetako argudioak emanez. Edonoren gorputzak gure gorputzen ispilu bezala zaindu behar dira, eta guretzat nahi ez duguna besteentzako ere ez da baliagarria izan behar. Orokorrean, hausnarketa sakona eta anitza egin beharko genuke.

Begiristainek ere, Jubetoren iritzi antzekoa du, baina aurreko atalean aipatu ditugun oinarriko eskubideak bete beharko genituzkeela azpimarratzen du; atzeritarrei buruzko legea indargabetzea, emakume emigratzaileen oinarriko eskubideak bermatzeko; osasunerako, etxebizitzarako, hezkuntzarako eta Gizarte Segurantzako sarbide unibertsala; pentsio duinak eta justuak eraiki; prostituzio eta esplotazio sexualaren abolizioa; hezkuntza dibertsitatearen benetako berdintasuna; migrazioarako eskubidea.

3.2.6. Ahduntzea

1995.urtean, Pekinen, emakumeari buruzko IV. kongresua ospatu zen eta bertan emakumeen ahduntzerako zazpi printzipio ezarri ziren.

Jubetoren ustez, ezarri ziren zazpi printzipioak beteko balira nahikoak izango lirateke. Arazoa da printzipioak ez direla indarrean jartzen. Horretarako, baliabideak behar dira. Hau da, aurrekontuaren bitartez, dirua eta inbertsio handiak egin behar dira. Gainera, printzipio horiek eremu guztietan formatu behar dira. Askotan itunak eta legeak egitearekin nahikoa dela uste da, eta hori ez da horrela. Legeak eta itunak egin ondoren jarraipen bat egin behar da jakiteko ea benetan betetzen diren, eta zer nolako aldaketak eta hobekuntzak egin daitezkeen.

Ahduntzea oso prozesu konplexua da, eta gizakion barrutik atera behar da. Gainera, ez da prozesu indibiduala soilik, kolektiboa izatea ere eskatzen du. Bere ustez, Pekinen izugarriko lana egin zen eta lan horrekin mugimendu feminista nazioarte mailan indarra hartzen hasi zen. Hala ere, aurrera pauso handiak ematen jarraitu behar da, emakumeak eremu politikoetan egoteko, esate baterako. Ahduntzearekin agerian utzi zen emakumeen beharrek lotura estua zutela egitura politiko-kulturalarekin. Horregatik dio ituna bera interesgarria dela, zenbait hausnarketa edo pentsatzeko era aldatu zituelako, baino oraindik ere lurra hartzea falta zaio. Garrantzitsuena, Jubetoren ustez, ituna or dagoela kontuan hartzea da, eta alde batera ez baztertzea. Hau da, itunetik abiatuta ideia berriak gehitu, urratsak aurrera eramateko.

Begiristainek berriz, Jubetoren iritzi ezberdina du. Bere ustez, Pekineko itunean sortu ziren printzipioak ez dira nahikoak. Gaur egungo printzipioak errealitatera gehiago hurbildu behar dira. Adibidez, itunean, kristalezko sabaietaz hitz egiten da, eta bere ustez, kristalezko sabailak baino, buztinezko lurretaz hitz egin behar da. Bere ustez, Pekineko printzipioekin Garapen Iraunkorreko helburuekin bezala gertatzen da. Denak baldintza

beretik abiatzen garela uste da, eta ez da horrela. Ezin da eskatu iraunkortasun-maila berdina, Kolonbiako edo Nikaraguako pertsona bati edo hemengo pertsona bati. Bi pertsonak abiapuntu ezberdina dute, baldintza ezberdinak dituzte eta arazo ezberdinei aurre egin behar diete. Bere ustez Pekineko zazpi printzipioak ekonomia feministarekin lerrokatu beharrean genero ekonomiarekin lerrokatuta daude. Askotan bi ekonomia mota hauek nahastu egiten dira eta ezberdintasun handiak dituzte. Zenbait desberdintasun aipatu dira:

Alde batetik, genero ekonomiak, ekonomiak ezarritako esparruak kontuan hartzen ditu eta emakumea esparru horietara txertatzen du. Beste aldetik, kritika negatiboak egiten ditu etxeko lanek emakumeengan duen eraginerako. Ekonomia feministak berriz, alde batetik, ekonomiaren ikuspegi berri bat ezartzen du ekonomia androzentrikoa ezabatuz. Beste aldetik, merkatuaren ikuspegia zabaltzen du, zaintza lanak txertatuz. Beraz, Begiristainen ustez, Pekineko printzipioak ez dira nahikoak. Printzipio gehiago ezarri beharko lirerateke edo daudenak aldatu, eta benetan egunerokotasunean aplikatu beharko lirerateke.

3.2.7. Interseksionalitatea

Interseksionalitate hitza gure egunerokotasunean gehiago entzuten ari gara, eta Gobernuak ordea, arrazak, jatorriak eta kultura desberdinak bereizteko eta aukeratzeko interseksionalitatearen erabilera maltzurra ere egiten dute.

Bi adituek interseksionalitatearen inguruan berdina pentsatzen dute, kontzeptu garrantzitsua eta baliagarria dela. Hasteko, Jubetoren ustez, kontzeptu hau edozein erara erabili beharrean, bi adituek aurrerago aipatu duten bezala, interseksionalitateak emakume hauengana gerturatu eta haien egoera benetan ezagutu beharko genuke. Bere ustez, emakume hauek bizi duten egoerei ez zaie garrantzia ematen eta ez zaie entzuten. Adibidez, Foru Aldundiko berdintasun planean interseksionalitate hitza askotan agertzen da, baina errealitatean ez da sakontzen. Ez da sakontzen ez garelako emakume horien ingurura hurbiltzen, eta horrela ez dira ikusten zein den benetako errealitatea.

Azken finean, interseksionalitateak, komunitate ezberdinek jasotzen dituzten ezberdintasunak salatzen ditu. Gaur egun, denek ditugu arazoak, baina guk, jende “zuriak” beste egoera batean gaude eta orokorrean, beste gradu bateko arazoei aurre egin behar diegu. Interseksionalitatea, oso gai interesgarria eta funtsezkoa da, nahiz eta batzuetan administrazioek ez dieten benetan merezi duten garrantzia ematen.

Ondorioz, bere ustez martxan jartzen hasteko lehenengo pausoa jatorri ezberdinetako emakumeei, emakume murgilduei, entzutea da. Hau da, benetan haien egoerak ezagutu eta horrela haien nahiei eta beharrei erantzun. Guzti honek emakume horiek aurkitzen diren lekuetara mugitu behar izateak suposatzen du; adibidez, eskoletara, merkatutara eta abar. Horrez gain, sortutako politikak ebaluatzeko emakume horiek izan behar dira subjektua, haiek egin behar dituzte proposamenak. Askotan gure gizartea oso paternalista dela pentsatzen du Jubetok, eta erantzun eta soluzio guztiak guk ditugula uste da, baina ez da horrela. Gertutasun hori falta dela azpimarratzen du, eta horretarako, beste behin, leku horietara mugitu behar gara eta haien bizipenak ezagutu, haiengandik ikasi.

Ildo honetatik, Begiristainek, interseksionalitatea eta ekofeminismoaren lotura azpimarratzen du, ekofeminismoan ere, ekonomia feministan bezala, interseksionalitateaz hitz egiten baita. Ekofeminismoan aditu bezala, ekonomia ekologikoa eta feminismoaren arteko lotura azpimarratzen saiatzen da, bi ekonomia hauek interseksionalak direla eta aldi berean gertatzen direla baieztatzen du. Honen adibide, emakume baserritar bat da. Askotan fokua identitatean jartzen da, baina fokua identitate horrek sortzen dituen desberdintasun jarri beharko litzateke. Hots, desberdintasun materialetan eta legaletan. Esan dugun bezala, abiapuntu ezberdinetatik abiatzen gara, eta abiapuntu bakoitzak dituen baldintza horiek ere kontuan hartu behar dira, bestela kapitalismo arrazistak eraikitzen dituen egiturak berberak izango ditugu.

Izan ere, interseksionalitatea, feminismo beltzean sortzen da eta ulermen politikarizatu bat ekartzen du. Begiristainen ustez, politizatu egin behar da, ereduak sortzen dituen zapalkuntzak kategoriak ikusteko eta salatzeke. Hots, zer nolako desberdintasun eta zer nolako oinarri material politiko eta legalak sortzen dituen jakin behar dugu ereduak aldatzeko. Bestela askotan, interseksionalitatea bezalako kontzeptuak, diskurtso politikoan erraz erabiltzen dira eta horrekin nahikotzat hartzen dira. Garrantzitsua da benetan zapalkuntza horietan dauden subjektuak entzutea, eta behin egoeran ezagututa, eta desberdintasunak gainditzeko bestelako oinarri materialak erabilia, subjektu anitzak eraikitzen hasi gintezke.

3.2.8. Politika publikoak

Berdintasun legea, genero indarkeriaren kontrako legea, abortuaren legea, sexu askatasunaren eta nortasunaren legeak, feminismoaren azken lorpenen artean aipatzen dira. Baina lege horietaz aparte, bi adituek, beste zenbait politika inplementatzearen alde daude emakumeek benetako burujabetasuna izateko.

Jubetoren ustez, politika asko aztertu behar dira eta gero politika horiek eremu ezberdinetan aplikatu. Zenbait adibide aipatu dira. Alde batetik, aurrekontu planak genero ikuspuntutik egiten direla esaten denean, indarrean jartzen ari garen plan hori benetan ondo planteatzen ari garen aztertu beharko genuke. Beste aldetik, askotan hezkuntza publikoan ditugun erreferenteak gizonak dira, eta ez soilik, hezkuntzan, eremu guztietan gertatzen da emakume erreferenteak ez daudela. Osakidetzan, besteak beste, emakume asko daude lanean, baino lan berdina egiteagatik baldintza ezberdinak dituzte. Zer esanik ez etxeetako lanetan. Bertan ere hainbat politika sustatu behar dira. Bortizkeriaren aurrean, legea or dago, baina oraindik urrats asko eman behar dira, ez baita ikusten bortizkeria eremu guztietan dagoela.

Hau da, politikaz politika ikertuz joango bagina desberdintasun asko daudela ikusiko genuke, eta politika asko aldatu behar direla ohartuko gineteke, desberdintasun egoeran gaudelako. Gainera, gauza guzti hauek aldatzeko (kulturalki ere), inbertsio handia egin behar da. Legeak lehen esan dudak bezala, idatziak daude eta interesgarriak dira, baina baliabideak jarri behar dira, aniztasunean ere malgutasuna bilatu behar da eraldaketa prozesu gisa. Jubetoren ustez, lan asko dago egiteko. Daukagun administrazioa nahiko zurrinak dira, eta berdintasuna zerbait marjinala bezala ikusten dute. Berdintasuna lortzeko, denbora, formakuntza eta baliabideak (dirua) behar dira, bai pertsona eta baita materialen aldetik. Borroka horretan urratsak ematen ari dira, baina prozesu luzea da.

Begiristainen hitzetan, ekonomia arloan bestelako eredu ekonomikoak eraiki behar dira. Batetik, ekonomia arloan bizitza erdigunera eramango dituzten proiektu ekonomikoak eraiki behar dira, ekonomia sozial eta eraldatzailearen logikaren baitan. Bertan, lanaren burujabetasuna eskatzen da, zaintza kontuan hartzea, denboraren kudeaketa kontuan hartzea, merkatuaren logika gainditzen dituzten proiektuak kontuan hartzea eta abar. Bestetik, estrategia ekofeministak eraikitzea. Politikek emakumeen gorputzen gainean eta naturaren gainean sortzen diren zapalkuntzak aintzat hartuko dutenean, burujabetasun hori etorriko da. Orokorrean, dauden legeak gehiago sakondu behar direla diote bi adituek, eta bestela, daudenak aldatu sendotasuna txertatuz.

3.2.9. Hausnarketa osagarriak

Elkarrizketatu ditugun bi adituek, ekonomia feministaren VIII. Kongresuan parte hartu zuten. Kongresu horren amaieran, ekonomia feministaren eta mugimendu feministen oinarrien artean urruntasuna zegoela adierazi zen.

Begiristainek, hipotesi hori baieztatzen du. Bere ustez, errealitatea geroz eta konplexuagoa da, eta konplexutasun horrek oinarrietatik urruntzea ekartzen du. Bere ustez, oinarri horietara bueltatu behar gara eta horretarako praktikara heldu behar gara. Egoera ezberdinei aurre egiteko beste tresna batzuk eskatzen dira. Berak, ikerketa ekintzetan parte hartzera bultzatzen gaitu, mugimendu sozialetan parte hartuz eta ikerketak eta tresnak haiei esku jarrita, protagonistak baitira.

Jubetok ere zenbait alderdietan bat egiten du Begiristainekin. Bere ustez, mugimendu feministaren zati batentzat gai ekonomikoak ez dira kezka nagusia, eta beste gai batzuetan zentratzen dira. Hala nola, gorputz-kezka eta bortizkeria. Baina beste zati hori, langile mugimenduen eta emakume sindikatuen helburu berdinak bultzatzen ditu, eta zati hori ekonomia feministarekin lotzen da, haiek, zaintza-munduan ibiltzen diren pertsonak defendatzen dituzte. Berak ez du urruntasunik ezta oztoporik ikusten, harreman osasuntsu bat baizik. Ekonomia feministak hainbat esparru biltzen dituenez urruntasuna dagoela ematen du, baina helburuak berdinak dira bai ekonomia feminista eta mugimendu feministaren baseentzat. Gainera, aurtengo kongresua ekonomia feminista digitalizazioaren inguruan zentratu zenez, horrek itxurazko urruntasuna areagotu zuen.

Ildo beretik, bi adituei kongresutik atera zituzten konklusioak zeintzuk ziren eta lehengo urteko kongresutik gaur egun arte aurrerapenik egon diren baita ere galdetu genien. Lehenik, Begiristainek, Bilboko azken kongresutik segida gutxi zegoela aipatu zuen. Bere ustez, kongresu hauen haria galtzen ari da eta helburuetatik urruntzen goaz. Sare hauek, geroz eta handiagoak bihurtzen ari dira eta handitasun horrek sare horri heltzea eragozten du. Soluzio bezala, sare hauen re-lokalizazioa proposatzen du, des-hazkundera, ereduak txikitazunera ekartzea. Horrek ez du esan nahi hausnarketa globalik egon behar ez denik, egon behar dute, baina sustraietatik urrundu gabe.

Jubetok, kongresu bakoitza momentuko bakoitzeko egoetara moldatzen direla aipatzen du, eta gainera, gaur egungo egoera geroz eta konplexuagoak dira. Esaterako, Bilboko kongresua COVID-aren eraginagatik birtualagoa izan zen eta aurten, ekonomia feminista digitalaren gaiari heldu zitzaion. Beraz, ekonomia feministako zenbait puntu mantendu dira eta beste puntu batzuk sortu. Baina bere ustez, kongresu hauek oso aberasgarriak

dira. Harreman sendoak sortzeko gune aproposa da eta gainera, beste emakumeek bizi dituzten egoerak entzuteko eta ezagutzen aukera bikaina, nahiz eta gogorra izan.

Beste hausnarketa interesgarri bat, unibertsitatean ematen diren ikasgaien inguruan da. Unibertsitatean ematen den prestakuntza ekonomikoan, ekonomiaren kontzeptu klasikoan oinarri sendoak ematen dira. Baina horrez gain, ekonomia ulertzeko beste modu asko daude eta ikuspegi horien inguruan ez da irakasten.

Bai Begiristainek eta baita Jubetok ere iritzi berdina dute formakuntza horren inguruan. Bi adituek, kontzeptu horiei inguruan irakatsi behar delaren alde daude, eta modu batean edo beste, beraiek haien klaseetan zertzelada batzuk emateko aukera dute. Arazoa, unibertsitate irakaskuntzaren logikak soilik izeberraren begi-bistan gelditzen denari erantzun nahi diola da, merkatu ikuspegia. Errealitatea izeber puntan dago, eta kanpo geratzen dira ekonomia feministak bultzatzen dituen helburuak. Gainera, ekonomia klasikoaren ikuspuntua etengabe errepikatzen joaten bagara, naturalki barneratuko dugu eta ekonomia ortodoxo horretatik desberdintzen edo urruntzen den guztia arrarotzat hartzen da.

XVIII. eta XIX. mendera atzera bueltatzen bagara, ekonomia politikoa sortu zen garaira, ekonomiaren oinarrian etika zegoen eta orduz geroztik etika hori galtzen joan da etekinak helburu bihurtuz. Zentzu honetan asko dago egiteko, zaila egiten da irabazi asmoaren pentsaera hori aldatzea. Honek ez du esan nahi irakasten diren tresnak okerrak direla, erakusteko beste hainbat era daudela baizik.

Jubetok Bartzelonako udalak sortu zuen tresna batean parte hartu zuen. Tresna horretan, genero perspektibatik indarrean jarri ziren neurri eta politiken oreka neurtu nahi zen. Kolaborazioa Bartzelonako gobernu aldaketarekin batera hasi zen, Podemos eta Ada Colau gobernu progresistaren eskutik hain zuzen ere. Gobernu hau berdintasun politikek eraldaketa global baten beharra zutela ohartarazi zen. Hau da, berdintasun politika transbertsala izateko politika guztiak aldatu behar ziren.

Orokorrean, Pekineko ituneko printzipioak indarrean jarri behar zirela ohartarazi ziren. Baina aldaketa oro egiteko aurrekontua behar da, eta beraz, genero ikuspuntu eta transbertsalitatean oinarritutako aurrekontuak funtsezkoak zirela ere adostu zuten hor zeuden emakume feministek.

Aldaketa sakon hau egiteko ondorengo pausoak eman ziren. Lehenengo, udaletxeko pertsonalaren egoera aztertu behar zen, azken finean langileria politikaren parte handia dira. Adibidez, udaltzaingo departamentuan berdintasunaren alde pauso asko eman behar zirela aipatu zen, soldatan eta eskaletan dauden emakume eta gizonen arteko arrakala orekatzeko, emakume gehiago sartzeko, bortizkeriaren kontrako plana indartzeko, berdintasunean formakuntza emateko eta abar. Departamentu honetan bezala, beste guztietan ere gauza berdina egin behar zen.

Bigarrenik, egiten ziren politika bakoitzaren diagnostiko sakona egin zen, berdintasun ikuspuntutik zein nolako egoeretan aplikatzen ziren ikusteko, eta ondoren aurrekontuen pisua aztertu behar zen berdintasun planarekin zuten lotura aztertzeko.

Guzti honen helburua, aurrekontuen bidez genero berdintasunera doan politika eraldatzea sortzea zen. Berdintasuna ez zen bakarrik aurrekontuen berdintasun partidara aplikatu, arlo guztietan egiten ziren politika guztien aurrekontu guztiei baizik. Gaur egun, prozesu guzti honen kuantifikazio eta neurketa momentuan gaude. Izan ere prozesu eraldatzaile honek daukan inpaktua ikusteko, etengabeko azterketa eta hausnarketa egin behar da hobekuntza konstanteko prozesua izan dadin.

Hala ere, Jubetoren ustez, eraldatzailea den gobernu berdinarekin beste legegintza oso bat beharrezkoa da, prozesu honetako emaitzak benetan ikusteko eta sendotzeko. Horrez gain, Yolanda Jubetok Estatu mailan ere, zein neurri inplementatzen diren jakiteko *Forum Fem Pressupostos* aplikazioa jarri zuen martxan Jubetok 2019. urtean Valentziako kongresua ondoren. Urte hartan egin zen ekonomia feministaren kongresuan sortu zen ideia garatzeko interesa. Bertan bildu ziren emakume askoren artean, arazo eta esperientzia askok zeudela ikusita eta guzti hauek partekatzeko potentzialtasuna jakinda, estatu mailan sare birtual eta eskuragarria bat sortzea oso interesgarria zela nabarmendu zen, modu erreza batean hainbat txosten eta artikulu eskainiko zituena. 2021. urtean Bilboko kongresuan prozesua oraindik martxan zegoen. Baliabideak bilatu behar ziren eta ez zen erreza, pandemia tarte.

Dagoeneko martxan dago eta txostenak igotzen ari dira. Aldi berean, denen ahotan jartzen ari da, berdintasun teknikariak eta feminismo taldeak, besteak beste, oso partehartze interesgarria dutelako. Hala ere, orain, ekainean hauteskundeak daude eta udaletxeak, diputazioak eta erkide autonomikoak oso zentratuak daude hauteskundeetan eta ez dute beste gaietarako astirik izaten. Gainera gobernu berriak osatu beharko dira beraiek inplikatu ahal izateko.

3.3. LANDA AZTERKETAREN EKONOMIA FEMINISTAREN ALDAGAIK

Ekonomia feministaren inguruan bi elkarriketatuen iritzia jakinda, landa azterketaren ondorio nagusiak atera ditzakegu.

3.3.1. Aberastasunaren banaketa

Ekonomia kapitalistak izeber puntako faktoreak soilik kontuan hartzen dituen eta kapital metaketa lortzea helburu duen bitartean, ekonomia feministak ekonomia ulertzeko beste pentsamendu, korrante eta klabeak ematen dizkigu. Ekonomia feministak, aberastasuna banatzea proposatzen du, eta horretarako, izeber osatzen duten elementu guztiak kontuan hartzen ditu.

Ekonomia ortodoxoak, gabezia eta ezegonkortasun handiak sortzen ditu eta ezegonkortasun horiek gizarte patriarkal eta pentsaera kapitalista izateagatik dator. Merkatuaz gain, beste hainbat faktore daude kontuan hartzen ez direnak, eta ekonomia feministak hori salatzen du. Izan ere, gizakiok elkarren artean interdependentzia daukagula, zaintza beharrezkoa dela bai gure artean, eta baita naturarekiko ere. Gainera, alderdi ikusezinean dauden faktoreei esker izeber puntako faktoreak daude funtzionamenduan, horiek gabe, ekonomia ez luke funtzionatuko.

3.3.2. Bizitza erdigunean

Ekosistema mantentzea geroz eta zailagoa egiten da, eta gainera, ekonomia kapitalistak baliabide naturalak etengabe ustiatzen ditu. Horren aurrean, ekonomia feministak ekonomiari jartzen zaizkion mugak haustea proposatzen du, sistema kapitalista gaindituz. Sistema honekin jarraitzen badugu, bai planeta eta gure gizartea kolokan egongo baitira.

Hau da, ekonomia feministak egiturak berreraikitzea eskatzen du, izeberra iraultzea. Gaur egungo begirada antropozentrikoa eta androzentrikoa gainditzea. Azken finean, gizakiok naturarekiko menpekotasuna daukagu, eta beraz, natura errespetatu behar dugu.

Bizitza onaren beste ideia bat eraiki behar da, denontzat, modu anitz batean, era burujabea eta subiranoan, egunerokotasun errealtatearekin lotuta eta naturarekiko errespetuan oinarrituta.

3.3.3. Lanaren banaketa ekitatiboa

Laneko “roletan” gizonari zuzendari papera edo “merkatuko lanak” (soldatapekoak) esleitzen zaizkie eta emakumeei berriz zaintza eta ugalketa lanak. Ekonomia feministak ordea, lanaren definizioa zabaltzea ekartzen du ekitatearen aukerak lantzeko. Horrela, emakumeak hainbat esparrutan egoteko eskubidea bereganatuko dute. Izan ere, lanak sexu arabera banatzeak arrazoi kultural batengatik dela justifikatzen da. Horren aurrean, kulturalki aldaketa baten beharra dago, eta aldaketa hori emakume erreferenteak lortzen aldatu daiteke.

3.3.4. Neurri eta lege berriak

Ekonomia feministak neurri eta lege berriak proposatzen ditu sistema kolonialista eta arrazista honi aurre egiteko. Hala nola, atzeritarrei buruzko legea indargabetzea; osasunerako, etxebizitzarako, hezkuntzarako eta Gizarte Segurantzako sarbide unibertsala; pentsio duinak eta justuak; prostituzio eta esplotazio sexualaren abolizioa; hezkuntza dibertsitatearen benetako berdintasuna eta migrazioarako eskubidea.

3.3.5. Oinarrizko eskubideak

Hainbat emakumeen gorputzak hipersexualizatuak daude. Beraz, eztabaida sakon bat egin behar da gorputzaren jabea zer den argitzeko. Horretarako, indarkeria jasotzen duten emakumeei entzun behar zaie, haiekin harremanetan jartzen. Kontzientzia izan behar dugu, eztabaidak sortu behar direla, jendeak indarkeriak zergatik erabiltzen dituen jakiteko, gero soluzioak eman ahal izateko. Edonoren gorputzak gure gorputzen ispilu bezala zaindu behar dira.

3.3.6. Ahalduntzea

Ahalduntzearekin, emakumeen beharrak egitura politiko-kulturalarekin lotura estua duela agerian geratu da. Gainera, Pekineko IV. kongresuan ezarri ziren 7 printzipioak ez dira aplikatzen. Beraz, printzipioak benetan aplikatzen badira, nahikoak izango lirateke. Horrez gain, hauen lorpenei jarraipena egitea funtsezkoa da.

Hala ere, printzipioak gaur egungo errealitatera gehiago hurbildu behar direla ere aipatu da. Hori dela eta, zenbait printzipio eguneratzea eta hobetzea interesgarria izango litzateke.

3.3.7. Interseksionalitatea

Kontzeptu hau oso baliagarria eta interesgarria da. Honekin, pertsonen arteko ekitatea lortzen da, arraza, sexua eta jatorria alde batera utzita. Kontzeptu honen aplikazio egokia egiteko, jatorri ezberdinetako emakumeengana hurbildu behar gara, haien egoera benetan ezagutzeko.

Horrez gain, desberdinkeria hauek politizatu egin behar direla ere aipatu da, eredu kapitalistak sortzen dituen zapalkuntzak salatzen. Gainera, interseksionalitateak ekofeminismoarekin duen lotura ere nabarmendu da.

3.3.8. Politika publikoak

Gaur egun martxan dauden politikez gain, beste hainbat politika aplikatu behar dira. Hau da, beste eredu ekonomiko bat eraiki behar da, estrategia ekofeministari lotuta bizitza erdigunera eramateko. Horretarako, denbora, formakuntza eta inbertsio (aurrekontu) handia beharrezkoa da.

3.3.9. Hausnarketa osagarriak

Lan asko dago egiteko esparru guztietan. Unibertsitatearen irakaskuntza, ikerketa logika eta gaur egun dagoen logika ortodoxoa da. Soilik izeberraren begi-bistan gelditzen denari erantzuteko prest dago eta errealitatea ez da horrela. Errealitatera egokitu behar gara, dauden arazoak onartzen eta denentzako soluzioak bilatzen. Aldaketa baten beharra dago, eta aldaketa hori lehenbailehen eman behar da.

4. AZKEN ONDORIOAK

Emakumeak historian zehar izan duen garapen ekonomiko eta sozialean jarduera aztertu ondoren, rol protagonistatik jasan duen bazterketa egiaztatu dugu. Hala ere, emakumeek egindako lan ikusezinak gizarte osoaren aurrerapena eutsi du.

Sistema patriarkalak, lehenik, eta sistema kapitalistak, ondoren, emakumea bigarren mailako paper batera zigortu du, aukera eta eskubide gutxiagorekin. Gainera, kulturak, banaketa eta desberdintasun hauek areagotzen ditu, emakumeari zaintza eta ugalketa lanetara esleituta. Ekonomia feministak, lanaren definizioa zabaltzea ekartzen du, ekitatearen aukerak lantzeko. Izan ere, lanaren banaketa ekitatibo hori emakume erreferenteak izanik lortu daiteke. Hori guztia, gure bi adituekin izandako elkarrizketetan baieztatuzko aukera izan dugu.

Bestalde, agerian geratu da egungo sistema ekonomikoa, kapitalista, agortzeaz dagoela, jada agortuta ez badago. Egunez egun, arlo ezberdinetako hainbat zientzialariek, baliabide naturalen gehiegizko ustiapenaren eta ingurumenaren kutsaduraren ondorio larriak ekosistemaren etorkizuna kolokan dagoela adierazten dizkigute. Horren aurrean, ekonomia feminista, bizitza onaren beste ideia bat eraikitzea proposatzen du, ekonomiari jartzen zaizkion mugak hautsita, eta egitura berriak eraikita. Gaur egungo begirada antropozentriko eta androzentrikoa gainditzea bultzatzen du, azken finean, gizakiok naturarekiko menpekotasuna dugu eta beraz, menpekotasun hori zaindu behar da.

Hori nahikoa ez balitz, sistema kapitalistak aberastasunaren banaketa gaiztoa eta kapitalaren etengabeko metaketak, desberdintasun eta desoreka sozial ugari sortzen ditu. Argi geratu da, ekonomia kapitalistak izeber puntako faktoreak soilik kontuan hartzen dituela, hau da, merkatua eta estatua, eta horrek, gabezia eta ezegonkortasun handiak sortzen ditu. Ekonomia feminista, aberastasuna banatzea proposatzen du, izeberreko elementu guztiak kontuan hartuta, alderdi ikusezinean dauden faktoreei esker izeber puntako faktoreak funtzionamenduan baitaude. Hau da, interdependentzia funtsezkoa da bai gure artean baita naturarekiko ere.

Jarraitzeko, ekonomia feminista interseksionalitatearen garrantzia azpimarratzen du. Honekin, pertsonen ekitatea lortzen da, edozein izanik sexua, arraza edo jatorria. Aplikazio egokia egiteko, jatorri ezberdinetako emakumeengana hurbiltzea eskatzen da, haien benetako egoera jakiteko.

Azpimarratzekoa da oraindik ere badaudela zenbait emakume oinarrizko eskubiderik ez dituztenak, eta honen arrazoia kulturala da. Hainbat gorputz esplotatzen jarraitzen dira, eta indarkeria honekin amaitzeko, ekonomia feminista emakume hauengana gerturatzea bultzatzen du. Eskubide hauek Pekineko IV. Kongresuaren 7 printzipioekin lotura estua du. Itun honen inguruan, gizartean eta adituen artean ikuspuntu desberdinak daude. Batak, printzipioak nahikoak direla uste du, eta besteak, printzipio gehiago behar direla. Argi dago, gaur egun printzipio horiek ez direla aplikatzen, eta beraz, martxan jarriko balira emakume askoren egoera hobetuko zen.

Ekonomia feministak sistema kapitalista, arrazista, kolonialista eta patriarkalak sortzen dituen zapalkuntzei/desberdintasunei aurre egiteko neurri eta lege berriak proposatzen

ditu. Beste eredu ekonomiko bat eraiki behar da estrategia ekofeministari lotuta bizitza erdigunera eramateko.

Harrigarria dirudi, alderdi batzuetan lortu ditugun aurrerapenak, beste alderdi batzuetan inongo garapenik eduki gabe. Denbora pasa ahala munduak beste premia batzuk eskatzen ditu, baina errealitatea ez da premia horiei egokitzen. Gaur egungo formakuntzaren kasuan, bai kontestuak eta baita gizarteak ere, ekonomia ulertzeko beste modu batzuk lantzea eskatzen du, baina unibertsitatearen irakaskuntza logikak soilik izeberraren begibistan dauden faktoreak kontuan hartzen ditu. Hala nola, ekonomia klasikoaren oinarriak. Hausnarketa interesgarria izango litzateke unibertsitatearen irakaskuntzan beste ekonomia moten inguruan zerbait irakastea, testuinguruak hori eskatzen duelako eta horrela beste ikuspegi batzuk landu daitezke, gizabanakoa gehiago formatuz.

Trantsizio une batean gaude, eta sistemaren aldaketa sakon bat lehenago edo beranduago gertatuko da. Denon artean beste eredu alternatibo bat eraiki dezakegu. Eredu bat zein ekitatea, jasangarritasuna, berdintasuna eta justizia oinarrituta dagoena, aldaketa hau modu lasai batean eginez, indarkerian buka dezaketen gatazkak saihesteko, edo sistema honekin jarrai dezakegu amaierara iritsi arte, erabateko aldaketa dramatiko eta erradikala eragingo duena.

Ekonomia feminista, trantsizio une honetan, bizitzaren mantenimendua lehenetsiz, pertsonen aniztasuna errespetuz, arraza, sexua, klasea edota egoera edozein izanik alternatiba bat eskaintzen du, hain zuzen ere. Ekosistema zaintzen, aberastasunaren eta lanaren banaketa ekitatiboa ekarriko duen irtenbidea. Konponbide honek, oinarritzko eskubideak bermatzeko lege eta politika publikoak erabili behar ditu, non, gainera, emakumeek lehen mailako estatus-a lortuko duten, kapitalismoak eta patriarkatuak etengabe ukatu izan digutena.

5. BIBLIOGRAFIA

Alonso, M. J., (2019). Género y religión. A la búsqueda de un modelo de análisis. Aposta, revista de ciencias sociales.

<https://www.redalyc.org/journal/4959/495962852009/html/>

Artous, A., (2021). Oposición de la mujer y capitalismo - Viento Sur. Viento Sur.

<https://vientosur.info/opresion-de-la-mujer-y-capitalismo/>

Baffour, S., (2019). Ghana y el precio de la novia: estereotipos negativos. El país.

https://elpais.com/elpais/2019/09/23/planeta_futuro/1569249299_392913.html

Barceló, A., (1981). Teoría económica y enfoque de la reproducción. Cuadernos de la economía

[Barceló Alfons. Teoría económica y enfoque de la reproducción 1981.pdf](#)

Barrera, X., (2019). Recursos Naturales: Mercancías para el Capitalismo. Bloque Popular Juvenil.

<http://bloquepopularjuvenil.org/recursos-naturales-mercancias-para-el-capitalismo/#:~:text=De%20esta%20suerte%20de%201%C3%B3gica,el%20agua%20o%20la%20tierra.>

BBVA noticias. (2015). Historia de la economía: los cuatro grandes modelos económicos.

<https://www.bbva.com/es/la-economia-en-la-historia-una-mirada-al-pasado-una-vision-de-futuro/>

Beauvoir, S., (1949). El segundo Sexo. Feminismos.

[El segundo sexo, Simone Beauvoir.pdf](#)

Beauvoir, S., (1976): «La igualdad entre hombres y mujeres es imposible en el sistema capitalista» [entrevista] | La peste | contrainfo, saberes & experiencias antiautoritarias.

[https://lapeste.org/2014/01/simone-de-beauvoir-la-igualdad-entre-hombres-y-mujeres-es-imposible-en-el-sistema-capitalista/#:~:text=del%20capitalismo%20\(\).-La%20igualdad%20entre%20hombres%20y%20mujeres%20es%20imposible%20en%20el.de%20f%C3%A1bricas%2C%20negocios%2C%20etc.](https://lapeste.org/2014/01/simone-de-beauvoir-la-igualdad-entre-hombres-y-mujeres-es-imposible-en-el-sistema-capitalista/#:~:text=del%20capitalismo%20().-La%20igualdad%20entre%20hombres%20y%20mujeres%20es%20imposible%20en%20el.de%20f%C3%A1bricas%2C%20negocios%2C%20etc.)

Begiristain, M., (2023). Personal docente investigador. Hegoa. (s. f.).

<https://www.hegoa.ehu.eus/es/members/89>

Belén, V. S., (2022). Feudalismo. Economipedia.

<https://economipedia.com/definiciones/feudalismo.html?nab=0>

Bellagamba, L., (2022). Qué es la interseccionalidad y por qué te importa saberlo. ¿Y si hablamos de igualdad?

<https://blogs.iadb.org/igualdad/es/que-es-interseccionalidad/>

Beneria L., (1999). La aparición de la economía feminista. Historia agraria. Dialnet

[LaAparicionDeLaEconomiaFeminista.pdf](#)

Benería, L., (2006). Trabajo productivo/reproductivo, pobreza y políticas de conciliación. Nómadas.

[Beneria trabajo productivo-reproductivo y remunerado-no remunerado.pdf](#)

Benería, L., (2018). ¿Qué es la economía feminista? elDiario.es.

[https://www.eldiario.es/alternativaseconomicas/economiafeminista_132_2172909.html#:~:text=Fue%20a%20principios%20de%20los,Economics%20\(IAFFE\)%20en%20EEUU.](https://www.eldiario.es/alternativaseconomicas/economiafeminista_132_2172909.html#:~:text=Fue%20a%20principios%20de%20los,Economics%20(IAFFE)%20en%20EEUU.)

Bonet, H., (2023). La mujer en la prehistoria. Ciencias Sociales.

<https://graciela pintecnica1.jimdofree.com/2023/01/21/la-mujer-en-la-prehistoria/>

Bonilla, P., (2023). Por qué hay varias olas en el feminismo y en cuál estamos ahora, según las expertas. Newtral.

<https://www.newtral.es/por-que-hay-varias-olas-en-feminismo-y-en-que-ola-estamos-ahora-segun-expertas/20230214/>

Bonino, E., (2005). De la mujer y la religión. (s. f.). Mujeres en red. El país.

<https://www.mujeresenred.net/spip.php?article345>

Bosh, A., Carrasco, C., Grau, E., (2001). Verde que te quiero violeta.

[verde_que_te_quiero_violeta.pdf](#)

Caballero, D., (2018). El capital y la condición de mujeres. Conversatorio sobre la mujer en el capital de Marx. CELA.

<https://www.redalyc.org/journal/5350/535055132012/html/#:~:text=La%20sociedad%20capitalista%20asigna%20roles,la%20mujer%20en%20ese%20proceso.>

Carrasco, C., (2003). La sostenibilidad de la vida: ¿un asunto de mujeres? CLACSO

[La sostenibilidad de la vida, Un asunto de mujeres.pdf](#)

Carrasco, C., (2016). Sostenibilidad de la vida y ceguera patriarcal. Una reflexión necesaria. Atlánticas.

[Sostenibilidad de la vida y ceguera patriarcal. Una reflexión necesaria. Cristina Carrasco Bengoa.pdf](#)

Carrasco, C., (2017). La economía feminista. Un recorrido a través del concepto de reproducción. Ekonomiaz.

[La Economía Feminista. Un recorrido a través del concepto de reproducción.pdf](#)

Concepto (2023), Economía y finanzas. Industrialización: Concepto, características, causas y efectos. (s. f.).

<https://concepto.de/industrializacion/>

Congreso Economía Feminista Digital (2023), Barcelona 17,18,19 marzo.

[Congreso EcoFem 2023 programa \(con streaming\).pdf](#)

Dalla Costa M., (1972). Las mujeres y la subversión de la comunidad.

[Las mujeres y la subversion de la comunidad Dalla Rosa.pdf](#)

Economía solidaria ORG (2022). [Entrevista Antonella Picchio]: "El sistema económico está en deuda con las mujeres". Pikara magazine.

<https://www.economiasolidaria.org/noticias/el-sistema-economico-esta-en-deuda-con-las-mujeres/>

Elicabo. (2020). ¿Economía de género o economía feminista? Contemplando sus diferencias. Género y economía.

<https://generoyeconomia.wordpress.com/2020/03/27/economia-de-genero-o-economia-feminista-contemplando-sus-diferencias/>

Equipo editorial, Etecé. (2023). Comunismo: definición, representantes, características, capitalismo. Enciclopedia Humanidades.

<https://humanidades.com/comunismo/>

Equipo editorial, Etecé. (2023). 10 características del Industrialismo. Enciclopedia Humanidades.

<https://humanidades.com/industrialismo/>

Equipo editorial, Etecé. (2023). Mercantilismo: origen, funcionamiento y características. Enciclopedia Humanidades.

<https://humanidades.com/mercantilismo/>

Euskaltzaindia. (2023) (s.f.). Ekonomia. Real Academia de Lengua Vasca

https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?&option=com_hiztegiabilatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu&nondik=0&zenbat=100&entryId=13358

Feminist Economics (1995). (s. f.).

<https://www.feministeconomics.net/>

Friedan, B., (1963). La mística de la feminidad

[Betty Friedan - La mística de la feminidad.pdf](#)

Gamba, S., (2008). Feminismo: historia y corrientes. (s. f.). Mujeres en red. Periódico Feminista. Agenda de las mujeres.

<https://www.mujaresenred.net/spip.php?article1397>

Girondella, L., (2014). Capitalismo, sus críticas. Un análisis. Contrapeso.info.

<https://contrapeso.info/capitalismo-sus-criticas/>

Gonzalez, M. eta Toledo, V., (2011). El metabolismo social: una nueva teoría socio ecológica.

[Metabolismo social. Una nueva teoría socioecológica.pdf](#)

Gourges, O., (1791). Declaración de derechos de la mujer. ¿Una declaración de la segunda clase?

[Gourges, Declaración de derechos de la mujer 1791..pdf](#)

Harcour, W., (2023). Congreso Economía Feminista Digital.

[Congreso EcoFem 2023 programa \(con streaming\).pdf](#)

Herrero, Y., (2020), Tierra. ctxt.es | Contexto y Acción. (s.f.).

<https://ctxt.es/es/20200801/Firmas/33134/Yayo-Herrero-cinco-elementos-tierra-hambre-extractivismo-expropiacion-agroindustria.htm>

Herrero, Y., (2006). Economía ecológica y economía feminista. Un dialogo necesario y urgente. Revista de Economía crítica.

[Economía ecológica y economía feminista. Un dialogo necesario y urgente.pdf](#)

Islas, M. eta Trevilla, D., (2020). Cuidado y sostenibilidad de la vida: diálogos entre la agroecología y la ecología política feministas. Clasco.

[Cuidado y sostenibilidad de la vida diálogos entre la agroecología y la ecología política feministas.pdf](#)

Joshua, M., (2022). Mujeres en la Antigua Mesopotamia. Enciclopedia de la Historia del mundo

<https://www.worldhistory.org/trans/es/2-2081/mujeres-en-la-antigua-mesopotamia/>

Jubeto, Y., (2022). Personal docente investigador. Hegoa.

<https://www.hegoa.ehu.es/es/members/22>

Larrañaga M., Jubeto Y., eta Luz de la Cal M. (2011). Tiempos de Crisis, Tiempos de Desajuste, Tiempos precarios, Tiempos de mujeres.

[Tiempos de Crisis, Tiempos de Desajustes, Tiempos Precarios, Tiempos de Mujeres.pdf](#)

Larrañaga M. eta Jubeto Y., (2014). Economía solidarioa eraikitzen feminismitik eta gaitasunen ikuspegitik. Gizarte Ekonomia Euskal Aldizkaria.

[Ekonomia solidarioa eraikitzen feminismitik eta gaitasunen ikuspuntutik.pdf](#)

Larrañaga M. eta Jubeto Y., (2014). El Desarrollo Humano Local desde la equidad de género. Un proceso en construcción. Hegoa

[El Desarrollo Humano Local desde la equidad de género. Un proceso en construcción.pdf](#)

Larrañaga, M., (2017). Economía feminista ulertzeko hainbat klabe. Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos. (s. f.). - Gaiak – Euskonews

<https://www.euskonews.eus/0716zbn/gaia71605eu.html>

Larrañaga, M. eta Jubeto, Y. (2017). Este sistema no funcionaría si no se hicieran muchos trabajos que no se visibilizan. Doctoras en Economía-Elkarrizketa-Euskonews. Zerbitzua, B.I.

https://www.euskonews.eus/0723zbn/elkar_es.html

Larrañaga, M., (2017). Podcast- Economía feminista. Eusko ikaskuntza.

<https://www.eusko-ikaskuntza.eus/es/noticias/ekonomia-feminista-mertxe-larranaga/al-24557/>

Las mujeres durante la Revolución Industrial (2023). Una Wiki en el Colegio Estudio. (s. f.).

http://estudiopedia.org/index.php?title=Las_mujeres_durante_la_Revoluci%C3%B3n_Industrial

Luz de la Cal, M. (2017). Una nueva cultura del trabajo para un mercado y unas sociedades inclusivas. Zerbitzuan.

[Una nueva cultura del trabajo para un mercado laboral y unas sociedades inclusivas. Mª Luz de la Cal.pdf](#)

- Marrugat, G., (2021). División sexual del trabajo en el capitalismo. Movimiento Obrero.
http://www.unidadylucha.es/index.php?option=com_content&view=article&id=4516:division-sexual-del-trabajo-en-el-capitalismo&catid=15&Itemid=106
- Marx, K., (1867). El capital. Biblioteca de pensamiento socialista. Vol. 1. Los clásicos.
<https://proletarios.org/books/El-Capital-Vol-1-Libro-I-Karl-Marx.pdf>
- Marx, K., eta Engels F., (1884). Origen de la familia, propiedad privada y Estado.
https://www.marxists.org/espanol/m-e/1880s/origen/el_origen_de_la_familia.pdf
- Millet, K. (1970). Política sexual. Feminismos.
millet-kate-politica-sexual.pdf
- Observatorio de Igualdad y Empleo (2020). OIE. La economía feminista a lo largo del tiempo
<https://www.observatorioigualdadyempleo.es/la-economia-feminista-a-lo-largo-del-tiempo/>
- Ojiambo, S. (2020). Pacto Naciones Unidas.
<https://www.pactomundial.org/noticia/el-secretario-general-de-naciones-unidas-nombra-a-sanda-ojiambo-de-kenia-nueva-directora-ejecutiva-de-un-global-compact/>
- ONU (2011) Los siete Principios para el Empoderamiento de las Mujeres. Pacto Mundial.
[Principios empoderamiento mujeres 2011-pdf.pdf](http://Principios%20empoderamiento%20mujeres%202011.pdf.pdf)
- Pazos-Moran M., (2008). Desigualdad en el mercado de trabajo y en la economía. Lan Harremanak.
[Desigualdad en el mercado de trabajo y en la economía. Maria Pazos Moran.pdf](http://Desigualdad%20en%20el%20mercado%20de%20trabajo%20y%20en%20la%20economia.pdf)
- Pazos-Moran, M., (2020) Podcast. Economía feminista. (s. f.). Bilboko simposioa. La vida en el centro: ¿Qué tipo de políticas necesitamos?
<https://www.eusko-ikaskuntza.eus/fr/nouvelles/economia-feminista/al-25335/#>
- Pazos-Moran, M., (2020). Políticas para poner la vida en el centro. Euskonews. (s.f.).
<https://www.euskonews.eus/zbk/756/politicas-para-poner-la-vida-en-el-centro/ar-0756001001C/#.Y-4nk7CuQ7k.whatsapp>
- Perez-Orozco, A., (2006). La crisis de los cuidados y la reorganización del sistema económico.
[Amenaza tormenta.Crisis de los cuidados y la Organización del sistema económico. Amaia Perez Orozco.pdf](http://Amenaza%20tormenta.Crisis%20de%20los%20cuidados%20y%20la%20Organizaci%C3%B3n%20del%20sistema%20economico.Amaia%20Perez%20Orozco.pdf)
- Perez-Orozco, A., (2005). Economía de género y economía feminista: Conciliación o ruptura. Revista Venezolana de estudios de la mujer.
[Economía de género y economía feminista. Conciliación o ruptura. Amaia Perez Orozco.pdf](http://Econom%C3%ADa%20de%20g%C3%A9nero%20y%20econom%C3%ADa%20feminista.%20Conciliaci%C3%B3n%20o%20ruptura.%20Amaia%20Perez%20Orozco.pdf)
- Picchio, A., (2001). Enfoque macroeconómico ampliado de las condiciones de la vida. Dialnet.
[Enfoque Macroeconomico Ampliado. Antonella Picchio.pdf](http://Enfoque%20Macroeconomico%20Ampliado.%20Antonella%20Picchio.pdf)
- Primo, V., (2008). El papel de la mujer en la religión. Diario de Sevilla.
https://www.diariodesevilla.es/ocio/papel-mujer-religion_0_186281445.html

Público. (2021). Noventa años de voto femenino en España: recordamos el inolvidable discurso de Clara Campoamor. Público.

<https://www.publico.es/sociedad/noventa-anos-voto-femenino-espana-recordamos-inolvidable-discurso-clara-campoamor.html#:~:text=Clara%20Campoamor%2C%20abogada%20que%20defendi%C3%B3,%20g%C3%A9nero%20femenino%3A%20el%20sufragio%20universal>

Quiroa, M., (2021). Economía de Mesopotamia. Economipedia.

<https://economipedia.com/definiciones/economia-de-mesopotamia.html?nab=0>

RAE (2022) -. (s. f.). economía | Diccionario de la lengua española - Edición del Tricentenario

<https://dle.rae.es/econom%C3%ADa>

RAE (2022) -. (s. f.). feminismo | Diccionario de la lengua española - Edición del Tricentenario.

<https://dle.rae.es/feminismo>

Rios, L., (2022). Qué es la interseccionalidad y por qué te importa saberlo.

<https://blogs.iadb.org/igualdad/es/que-es-interseccionalidad/>

Rodriguez, A., (2019). I.E.S Colonial. Fuente Palmera. Córdoba. Las mujeres en la prehistoria y la historia antigua

<https://www.studocu.com/es/document/universidad-de-alcala/historia-del-pensamiento-politico/las-mujeres-en-la-historia/3519213>

Rodriguez Enriquez, C., (2015). Economía feminista y economía del cuidado. Aportes conceptuales para el estudio de la desigualdad | Nueva Sociedad. Democracia y política en America Latina

<https://nuso.org/articulo/economia-feminista-y-economia-del-cuidado-aportes-conceptuales-para-el-estudio-de-la-desigualdad/#:~:text=La%20econom%C3%ADa%20feminista%20se%20caracteriza,la%20reproducci%C3%B3n%20de%20la%20vida>

Salazar, M., (2017) ¿Qué es el feminismo y cuál es su importancia? (s. f.). IBERO.

<https://ibero.mx/prensa/debateibero-que-es-el-feminismo-y-cual-es-su-importancia>

Santaella, J., (2022). ¿Qué diferencia hay entre economía de subsistencia y economía de mercado? Economía3.

<https://economia3.com/diferencias-economia-subsistencia-mercado/>

Simón, L. (2023). Las olas del feminismo. Politocracia

<https://www.politocracia.com/feminismo/olas-del-feminismo/>

Svampa, M., Vega, E., Santillana, E. (2011). Más allá del desarrollo. Quito, Ecuador.

mas-alla-del-desarrollo_rls_2011.pdf

Valiña, C., (2019). Interseccionalidad: Definición y orígenes, Perifericas. Escuela de feminismos alternativos.

<https://perifericas.es/blogs/blog/interseccionalidad-definicion-y-origenes>

Wagner, L., (2020). Extractivismo. Diccionario del agro iberoamericano.

<https://www.teseopress.com/diccionarioagro/chapter/extractivismo/>

Waring, M. (2004). Si las mujeres contaran. Ed. Santillana Ediciones Generales S.L.

[Mariling Waring, si las mujeres contaran.pdf](#)

Web feminista para feministas (2023). Olas del Feminismo: ¿Cuántas olas hay en el feminismo? El feminismo.

<https://elfeminismo.com/conceptos-del-feminismo/olas-del-feminismo/>

Maialen Alonso Canellada

Ekonomia feminista: klima larrialdiari eta gizarte krisiari aurre egiteko irtenbidea

6. ERANSKINAK

6.1. Elkarriketa 1

Izen-abizenak	Yolanda Jubeto
Ardura	Ekonomian doktorea eta ekonomia feministan aditua
Tokia	Webex-aplikazioaren bitartez
Eguna	11/05/2023
Ordua	17:00
Iraupena	1'30min

1. Aberastasunaren banaketa

1.1. Sistema kapitalistaren aurrean, zeintzuk dira ekonomia feministak eskaintzen dituen abantailak?

Gaur egungo mundua ulertzeko klabe batzuk ematen dizkigu. Ekonomia kapitalistak, eta bereziki, ekonomia ortodoxoak (arrunta, fakultatetan ikasten duguna) bakarrik ekonomiaren zati bat ematen digu, merkatu harreman kapitalistetan oinarritzen diren ekimenetan. Oso ikuspegi estua dauka eta bakarrik etekin ekonomikoekin lotzen da.

Hazkunde ekonomikoa eta hazkunde ekonomikoaren arabera lotzen den guztia soilik lortu nahi dute, eta horrek, gabezia asko ditu. Esaterako, BPG sortu zuten ekonomiariek produkzioa neurtzeko adierazlea soilik zela onartzen zuten.

Nire ustez, ekonomia honek, ezinegontasun handiak sortzen ditu. Argazkitik ekonomia sostengatzen dituzten harremanak galtzen dira. Gainera, badakigu ekonomia oso disziplina soziala dela, baina ikasten dugun moduan matematikoa dela ematen du. Izan ere, XVIII. mendean, ekonomia, ekonomia politikoa deitura zuen. Bizi baldintzekin eta gure aukerekin lotura estua zeukan.

Ekonomia feminista botere harremanak erdigunean jartzen ditu. Hau da, desorekak eta ezberdintasunak ez direla soilik monetarioak. Monetarioaz gain, badaude desberdintasun sozialak, adibidez, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak. Gainera sistema kapitalistak desberdintasun hauek areagotzen ditu.

XIX. mendean, ekonomialari ortodoxoen bidez, banaketa eta desberdintasun hauek onartzen zituen ikuspegi soziala eratu zen. Alde batetik, merkatu ekonomia zegoen eta bestetik, familia-harremana (ez monetarioa). Izan ere, etekinik sortzen ez zituen eremuak baztertuak geratzen ziren, eta beraz, emakumeen lanak, emakumeen jarduerak, emakumei "lotutako" funtsezko jarduera pila bat kanpoan zeuden. Horregatik, estatistiketan populazio ez aktiboaren barruan etxeko lanak sartzen dira.

Ekonomia feministak, munduan dauden arazoak ulertzeko tresnak ematen dizkigu. Hau da, mundua ulertzeko eta lan-harremanak eta enplegua berrantolatzeko klabeak.

Adibidez, lan jarduera eta enplegu orduak murriztu behar dira guztiontzat. Enpresak ezin dute XIX. mendean bezala funtzionatu, bata enpresan eta bestea etxean (zaintzan) egon behar dela pentsatuz.

Hasiera batean, adibidez AEBtan, ekonomia feminista baztertu egin zen eta gero, ekonomia feministak egiten dituen zenbait irakurketa barneratzea ezinbestekoa zela konturatu ziren, nahiz eta ikuspuntu guztietan ados ez egon. Ezinbestekoa da ekonomia feminista barneratzea, mundua eta gure erronkak ulertzeko. Gainera, ekonomia feministak, justiziaren ikuspegitik onurak bakarrik ez ditu ekartzen.

1.2. Ekonomia feministak, bidegabea, mugatua eta desberdintasun asko dituen sistema bati irtenbideak ematen dizkio. Orduan, zergatik ez dago zure ustez gehiago sozial bat ekonomia mota hau babesten/bultzatzen duena?

Mugimendu feministak azken urteetan, zaintza lanetan aritzen diren pertsonen egoera prekarioak salatzen egon dira. Izan ere, enplegu feminizatuak dira baldintza eta arazo hauek dituztenak.

Nire ustez, zenbait proposamen eztabaidatzen eta eremu publikora irtetzen ari dira. Arazoa da pentsamendu hegemonikoari eta ekonomialari boteretsuenei ez zaiela ekonomia feminista interesatzen, sistema kapitalista honek onurak ematen dizkielako eta aldaketak egitea pribilegioak galtzea suposatzen die. Haienezkako, emakumeen arazoak bigarren mailako papera dute.

Mugimendu feminista indartsua da, baino azken urteetan gorputzaren eta sexu identitatearen arazoetan fokua jartzen ari da. Arazo ekonomikoak, aurreko mendeko arazotzat hartzen dute eta ez dute atentzio bertan jartzen. Hala ere, aurten arazo hau berriro ere indarra hartzen ari dira, bereziki, zaintza-lanen arazoa. Gainera, administrazio publikoetan zaintza lanetaz geroz eta gehiago hitz egiten dute, nahiz eta gero politiketan hainbeste kontuan ez izan. Aldaketak diru asko eskatzen du (aurrekontu handia).

Azken finean, legek eta gure ohiturak aldatzen doaz, eta arazo estruktural bati aurre egiteko prozesua ez da erraza. Gainera, oztopo asko daude, adibidez, komunikabideetan ez da guzti honetaz hitz egiten eta ekonomia feministaren inguruan ez dago formakuntza hedatua.

Uste dut ekonomia feministaren zenbait erronka bertan daudela. Hau da, oraindik gauza asko landu behar ditugu eta proposamen asko daude mahi-gainean.

2. Bizitza erdigunean

2.1. Ekonomia feministaren bizitza erdigunean jartzea zer inplikatzeko/suposatzeko du sozial eta ekonomikoki?

Ekonomikoki, ekonomiari jartzen dizkiogun mugekin apurtzea eta kapitalismotik haratago bizitza dagoela ikusaraztea ekartzen du. Nire ustez, pentsalari askok bat egiten dute esanez kapitalismoa gainditu behar dela. Hau da, harreman kapitalistak, gure sare komunitarioen harremanak eta bizitzeko aukerak hausten ditu, etekinetan zentratzen delako.

Sistema biolento batean murgilduak gaude eta orduan, bizitza erdigunean jartzeak, bizi kalitatea, justizia soziala, eta batez ere, gu geu gure buruaren jabe izatea bultzatzen du.

Bizitza erdigunean jartzea, ekonomia feminista eta ekonomia ekologikoaren arteko lotura indartzen du. Ekonomia ekologikoak, sistema honek planetarekin duen lotura estua azpimarratzen darama 70. hamarkadatik. Ekonomia feministak asko ikasi du ekonomia ekologikotik. Izan ere, sistema honekin jarraituz gero, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak areagotuko dira eta planeta eta gure gizarte harremanak kolokan egongo dira.

Nik esango nuke, bizitza erdigunean jartzea erronka handia dela eta mundua pentsatzeko beste deialdi bat ekartzen duela. Planteamendu filosofikoa ere da, bizitza zer den galdetzea pentsarazten du.

3. Lanaren banaketa ekitatiboa

3.1. Emakumeen eta gizonen rola oso definituak egon dira beti; emakumeak etxe lanetatik arduratu izan dira eta gizonak merkatuko lanetatik (soldatapekoak). Nahiz eta emakumeen egoera hobera igarotzen ari den, oraindik lan asko dago egiteko. Zeintzuk izan behar dira hurrengo pausoak zure ustez Lanaren Banaketa ekitatiboa lortzeko?

Lehenik eta behin, beti hori aldatuko nuke, azken finean egoera denboran zehar aldatu egin da. Izan ere, Europan feudalismoaren zehar nahiz eta lan banaketa sexuen arabera egin, batzutan baserrietan lan kolektibo hori egiten zen.

Gainera, gizarte ezberdinetan rola ezberdinak dira. Hau da, lana sexu arabera banatzea oso kulturala da. Zenbait kulturetan gizona joaten da merkatu eta beste batzuetan emakumea. Antropologo batzuen iritziz, arazo larriena lan horiei ematen zaien balio ezberdina da. Lan asko oso garrantzitsuak eta baliotsuak dira gure gizarterako eta erreproduktzioarako, baina emakumeak egiten dituztenez ez zaie baliorik ematen eta gero lan horiek merkatu ateratzean diru gutxi ordaintzen dira.

Kapitalismoa eratu zenetik, lanak banatuak egon dira. Gizarte utopikoan emakume eta gizonak segregatuak egon behar zirela pentsatzen zuten. Iritzi patriarkal batetik, emakumeak lan eta aukera txikiagoak izan behar zituela justifikatzen zuten.

Azken urteetan, pentsaera hori indartuz joan da. Adibidez, Alfred Marshall britaniarrak emakumea gizonarekin ezkontzean bere rola etxean zeudela esaten zuen eta betetzen ez bazen, pizgarri negatiboak izango zituen. Era berean, enpresetan lan berdinen truke emakumeak gutxiago kobratuko du, eta gero krisi garaian soldata baxuen jasotzen zuen kidea etxean geratuko zen (emakumea).

Hau da, pentsalari hauek justifikatzen zuten emakumeen papera etxean zegoela. Nahiz eta industria iraultzan ikusi da emakumeak (batez ere langile klasekoak) enplegura irten izan behar zutela gizonen soldatarekin nahikoa ez zelako.

Guzti honengatik aldaketa kultural baten beharra dago. Horretarako, lehenik, erreferenteak lortu behar dira, batez ere eremu publikoak, legeak aldatzeko eta enpresei mugak jartzeko. Bigarrenik, lan baldintzak aldatu behar dira (ordutegi malguagoak, lanaldia murriztea...) eta noski, guzti honen jarraipen sendoa egin.

4. Neurri eta lege berriak

4.1. Ikusten da zaintza-munduan prekaritatea dela nagusi, eskubide gabeko emigranteak osatua eta batez ere emakumeak. Non daude mundu honetan gizonezkoak? Zure ustez, zeintzuk dira bermatu behar diren lege eta eskubide minimoak? Nola eragiten du imigrazio legeak guzti honetan?

Atzerritartasun legeak izugarritzko kaltea egiten digu guztiei. Etorkinei egoera erraztu beharrean, oztopoak jartzen zaizkie, eta gizartea banatzeaz dakar xenofobia zabaldua.

Lehendabizi, atzerritartasun legea bertan behera utzi beharko zen eta beste lege berri bat egin, justuagoa eta erraztasunak eman. Azken finean, gu ere herrialde emigratzaile bat gara. Adibidez, emakume emigranteei soilik etxeko-lanak egiten uzten zaie, baino lan hauek funtsezkoak dira eta balioa eman behar zaie.

Gainera, badaude gizon batzuek haiek zaintzeko gizonak nahi dituztenak. Egia esan oraingo belaunaldietan geroz eta kontzientzia handiagoa dagoela ikusten dut (gizonak barne), baino oraindik lan asko dago egiteko. Izan ere, gizon asko daude esaten dutenak “nik etxean laguntzen dut”, baino zergatik da emakumearen lana? Bertan dago arazoa... Gainera, ekonomia feminista ez da soilik emakumeen borroka, bai gizon eta bai emakumeen borroka da, eta emakumeen lorpenekin gizonentzat lorpenak ere lortzen dira.

5. Oinarrizko eskubideak

5.1. Gaur egun badaude betezen ez diren emakumeen oinarrizko eskubideak. Zer egin behar dugu emakume gorputzaren esplotazioarekin eta sexu indarkeriarekin amaitzeko? Eta, emakume bakoitza bere buruaren jabe izateko?

Emakumeen gorputzarekiko hiper-sekxualizazio asko dago. Izan ere, umeetatik gorputza merkantilizatzen dituzten dinamikak sortzen dira. Gainera, internet, pornografiaren eta prostituzioaren bidez emakumea objektu bezala merkantilizatzen da.

Guzti honekin amaitzeko eztabaida sakon bat egin behar da gorputzaren papera zein den definituz, eta kulturak emen paper garrantzitsua dakar.

Ez da batere erreza, jarrerak oso kontrajarriak eta itxiak baitira. Azken finean, emakume hauekin harremanetan jarri behar gara eta haiei egoerak entzun. Hau da, kontzientzia izan behar dugu, gero eztabaidak egiteko eta hurrengo belaunaldiei ondo formatzeko.

Gure gorputzak besteen ispilu izan behar dira; niretzat nahi ez dudana besteentzako ezta ere. Benetan jakin indarkeria hauek zeba egiten diren, ondoren soluzioak bilatzeko.

Guzti honetan oso artea garrantzitsua da. Artearen bidez asko ikasten da eta eztabaida asko sortzen dira. Orokorrean, hausnarketa sakona eta anitza egin beharko genuke.

6. Ahalduntzea

6.1.28 urte pasa dira, Pekinen emakumeari buruzko IV. Kongresua ospatu zenetik. Nola baloratuko zenuke han egin ziren ahalduntzearen 7 printzipioen lorpenak? Eskasak dira? Nahikoak?

Nik uste dut indarrean jarriko balira potenteak direla. Pekineko IV. Kongresuan argi ikusi zen baliabideak eta dirua (aurrekontua) behar direla. Izan ere, mugimendu feministak finantziazioa eskatzen du. Askotan soilik itunak eta legeak firmatzen dira eta ez da jarraipenik egiten.

Ahalduntzea oso prozesu konplexua da eta ez da soilik indibiduala, kolektiboa ere da. Pekinen izugarritzko lana egin zen eta itunarekin mugimendu feminista nazioarte mahian indarra hartzen hasi zen. Emakumeen beharrak egitura politiko-kulturalarekin lotura estua zuela agerian utzi zen.

Egia da aurrera pauso handia eman dela. Esaterako, emakumeak eremu politikoetan daude, baina oraindik urratsak eman behar dira. Horrez gain, eremu guztiak formatu behar dira.

Ituna bera oso interesgarria da, baina lurra hartzea falta zaio. Gainera askotan dena azkar egin nahi da, baina batzuetan aldaketa sakonak lortzeko aurrerapausoak pixkanaka eman behar dira. Garrantzitsuena ituna ez baztertea da eta menpe edukitzea, ideia berriak sortuta eta urratsak emanez.

7. Interseksionalitatea

7.1. Ekonomia feministaren azken kongresuan hitz egin zen interseksionalitateaz aberastasun elementu gisa. Gobernuek ordea, arrazak, jatorriak eta kultura desberdinak bereizteko eta aukeratzeko interseksionalitateaz egiten dituzten erabilera maltzurra ere azpimarratu zen. Nola berbideratu daiteke egoera hau, batez ere gobernu “ezkertiarra” izanik?

Iruditzen zait emakume hauei oraindik ez zaiela benetako garrantzia ematen, ez zaiela guztiz ondo entzuten. Gainera, adibidez, Foru Aldundiko berdintasun planean interseksionalitate hitza askotan agertzen da, baina errealitatean ez da lantzen.

Azken finean, interseksionalitatea, komunitate ezberdinek jasotzen dituzten ezberdintasunak salatzen ditu. Denek ditugu arazoak. Baina guk, jende “zuriak” beste egoera batean gaude. Oso gai interesgarria eta funtsezkoa da, nahiz eta batzuetan administrazioek azaletik hartzen dute.

Nire ustez, jatorri ezberdinetako emakumeen nahiak eta beharrak (emakume murgilduei) entzutea beharrezkoa da. Horretarako, emakume horiek aurkitzen diren lekuetara mugitzea suposatzen du; adibidez, eskoletara, merkatutara eta abar. Gainera sortu behar diren politikak ebaluatzeke emakume horiek izan behar dira subjektua, haiek egin behar dituzte proposamenak.

Askotan gure gizartea oso paternalista da, eta erantzun eta soluzio guztiak guk ditugula uste da, baina ez da horrela. Gertutasun hori falta da, leku horietara mugitu eta haien bizipenak ezagutu, haiengandik ikasi.

8. Politika publikoak

8.1. Aipatzen dira, berdintasun legea, genero indarkeriaren kontrako legea, abortuaren legea, sexu askatasunaren eta nortasunaren legeak, feminismoaren azken lorpenen artean. Honetaz aparte, zeintzuk dira zure ustez epe motzean inplementatu behar diren politikak emakumeak benetako burujabetasuna izateko? Eta epe luzean, sistema ekonomikoaren aldaketa sakona lortzeko politikak?

Nire ustez, politika asko aztertu behar dira. Hau da, politikaz politika aztertzen joaten bagara desberdintasun hauek agertzen dira eta aldaketak egin behar direla ohartuko gara. Gainera, gauza guzti hauek aldatzeko inbertsio handia egin behar da. Legeak, lehen esan dudan bezala, idatziak daude eta interesgarriak dira, baina baliabideak jarri behar dira.

Lan asko dago egiteko. Daukagun administrazioa nahiko zurrinak da, eta berdintasuna zerbait marjinala bezala ikusten dute. Berdintasunak, denbora, formakuntza eta baliabideak (dirua) eskatzen du, bai pertsona eta baita materialen aldetik. Nire ustez borroka horretan urratsak ematen ari dira, baina prozesu luzea da.

Beste galdera batzuk:

Genero perspektibatik, indarrean jartzen diren neurri eta politiken oreka neurtzeko, Bartzelonako udalak sortutako tresna batean hartu duzu parte. Nola sortu zen kolaborazio hau? Zeintzuk dira zure konklusioak tresna honi buruz eta emandako emaitzari buruz?

Bartzelonako kolaborazioa hasi zen gobernu aldaketa egon zenean, Ada Colau eta Podemos partidua sartu zirenean. Aldaketa horretan konturatu ziren berdintasun politikak benetan eraldaketa global batean egin behar zirela, politika guztiak aldatu behar zirela, berdintasun politika oso transbersala izan behar zen.

Azken finean, Pekineko ituneko printzipioak indarrean jarri behar ziren, eta aldaketa horretan, emakume feminista asko zeudela ikusarazi zen, bai zuzendaritzan (Sonia Ruiz) eta beste esparru askotan. LGTBI+ mugimendurako ikusi zen oso garrantzitsua zela tranbersalitatea lantzea, aniztasun sexualaren inguruan ere. Berdintasun politikan, genero aurrekontuan funtsezkoak zirela ezarri zen. Hau da, aurrekontuan aztertu behar zirela.

Lehendabizi formakuntza batentzat deitu ziguten, eta haiekin lanean urte bete egon ginen. Argi ikusi zen lehendabizi pertsonak (langileak) aztertu behar zirela. Azken finean, langileria politikaren parte handia dute. Bigarrenik, soldatak aztertu behar ziren, hori baita aurrekontuetara heltzen dena, soldata arrakalak aztertuz eta abar. Adibidez, udaltzainen kasua; gizon polizia gehiago daude emakumeak baino, eta haien berdintasun plana nahiko eskasa zen. Beraz, aldagai horiek aldatu eta azterketa sakon bat egin behar zela ohartu ziren. Udaltzainetan bezala beste lan ere askotan ematen zen.

Orduan, politika bakoitzaren diagnostiko sakona egiten zuten zer nolako egoera zegoen ikusteko, eta ondoren, aurrekontuetan ze pixu zuten aztertu zuten ondoren, berdintasun planarekin zuen lotura aztertzeko. Hau da, berdintasun planak helburu batzuk zituen eta

jardueren jarraipen horietan pertsonen alde politikak sakontzeko bidea bilatzen zuten. Horrela, politika horiek berdintasunaren alde noraino laguntzen zuten jakingo zen.

Orokorrean helburua zen, politika eta aurrekontuetan sartzea, dirutik jaitsi jendearen bizi kalitatea eta egiten dugun hori nola egiten den eta noraino heltzen garen aztertu. Behin ikusita politika eraldatzailea dela, dirua bueltatu bilatzeko eta lotura hori ikusi.

Estatu mailan ere, zein lekutan eta zer neurriak jartzen diren martxan informatzeko eta trukatzeko *Forum Fem Pressupos* aplikazioa jarri dezute martxan. Zein da zure irakurketa gaurko egunean?

2019an atera zen proposamena Valentzian, Valentziako kongresuan 2 egun egon ginen eta 60 emakume inguru bildu ginen. Behin arazoak ikusita eta potentzialtasuna jakinda, ikusi zen oso ondo legokeela sare bat sortzea estatu mailan non txosten eta artikulua eskaintzen ziren.

Orduan Valentziako kongresutik aurrera Monika eta biok pentsatuz joan ginen nola aurrera eramán planteamendu hau. Oso motel joan zen, baino orain 4 urte pasa direla martxan dago, oraindik zeinbait txosten igotzen gaude, eta gainera fase berri batean sortuko gara (udaletxe eta foru aldundiak aldatuko direlako). Behin hauteskundeak pasata martxan jarriko dugu prozesua.

Orain aurrekontu bat eskatu dugu, baliabideak bilatzen gaude eta gure kabuz gauzak lantzen udazkenerako plataforma hau zabaltzeko. Azken kongresuetan parte hartu duten emakumeei foruma zabaltzeko eta bi urte barru plataforma hau martxan jartzeko.

Ekonomia Feministaren azken kongresuaren itxiera-saioan, Ekonomia Feministaren eta mugimendu feministaren baseen arteko distantziamenduaz hitz egin zen. Baliteke astuna eta konplexua izan daitekeen diskurtso akademikoak feminista baseetatik urruntzea?

Teresa Maldonadok idatzi zuen “Hablemos claro” liburuan, argi ikusten da. Bera ez da soilik ekonomia feministan zentratzen, feminismo beran ere zentratzen da. Feminismoak erabiltzen dituen hizkera batzutan ulergarria ez dela aipatzen du.

Nik esango nuke, mugimendu feministaren zati baterako gai ekonomikoak ez dira kezka nagusiak. Baina, gero langile mugimenduaren eta emakumeen sindikatuen zatia, hau da, zaintza munduan ibiltzen direnak mugimendu feministaren parte dira. Lan baldintza duinetaz kezkatzen dira, eta hori mugimendu feministaren zati bat bada.

Nire ustez ez dago distantziamendua, baino ekonomia feminista hainbeste esparru hartzen dituen, urruntasuna dagoela ematen du. Egia da agian, aurtengo kongresua birtuala izan denez, jendeak urruntasuna ikusten dutela, baino nik ustez ez dut oztoporik edo arazorik ikusten, harreman osasuntsua ikusten dut.

Aurreko galderarekin lotuta, zeintzuk dira kongresutik atera zenituen konklusio aipagarrienak? Aurreko urteko kongresua Bilbon ospatu zen. Pentsatzen al duzu ordutik hona aurrerapenik egon direla? Zeintzuk?

Normalean kongresu hauek saretzeko erabiltzen dira, eta kezkatzen zaizkizun gaien inguruan jendea ezagutzeko eta harremanak sortzeko. Bilboko kongresua COVID garaian arrapatu zigunez nahiko birtuala izan zen, eta hori oztopoa izan zen. Momentu horretako mapa eraikitzea lortu zen; non ginen eta nora joan nahi genuen, zein kezka zeuden eta nola egin aurre eta abar.

Bartzelonako kongresuan berriz presentziala egin zen. Gaia bitxia zela, baina hitz egin dudak kideekin oso polita izan zela esan didate. Gero, nire ustez bi kongresu hauen artean, gizarte moduan konplejizatu gara. Hots, ekonomia feministako zenbait puntu mantendu dira baina beste berri batzuk sortu dira. Azken finean, kongresu bakoitza momentuko egoeretara moldatzen dira (adibidez aurten gerra baten egoera gaude).

Nire ustez kongresu hauek oso aberasgarriak dira, beste emakumeei entzuteko eta harremanak sortzeko aukera delako, nahiz eta gogorra izan.

Bukatzeko, Karrera ematen den prestakuntza ekonomikoan, ekonomiaren kontzeptu klasikoen oinarri sendoak ematen dira. Baina, ez al duzu uste ekonomia ulertzeko beste modu batzuei buruzko zertzelada batzuk eman daitezkeela? Hala nola, ekonomia feminista, zirkularra edo ekologikoa ?

Bai. Guk dekanotzan planetatu genuen, eta ezetz esan ziguten, mundu eta errealitate honi erantzun behar genuela esanez. Nire ustez funtsezkoa da ekonomia feministaren inguruan hitzegitea, eta etorkizuna bide honetatik joan beharko zen, bestela, kontzeptu berdinak ikasten eta errepikatzen joango gara.

Ez dugu ekonomiaren jatorri grekoraino joan behar, baina ekonomia politikoa sortu zenean XVIII. eta XIX. mendean ekonomiaren oinarrian etika zegoen eta hori galtzen ari da. Orain etika ez dago erdigunean. Unibertsitateko zenbait tresna baliagarriak dira, baina beste hainbat tresna daude irakatsi behar direnak.

6.2. Elkarrizketa 2

Izen-abizenak	Mirene Begiristain
Ardura	Ekonomian doktorea eta ekonomia feministan aditua
Tokia	Donostian, EHUko Ekonomia eta Enpresa fakultatean
Eguna	24/05/2023
Ordua	15:00
Iraupena	Ordu 1

1. Aberastasunaren banaketa

1.1. Sistema kapitalistaren aurrean, zeintzuk dira ekonomia feministak eskaintzen dituen abantailak?

Bueno, ez dakit abantailak diren, baina ekonomia feministak korrante ezberdinak dituen pentsamendu bat eskaintzen du. Hots, praktika batzuk eta baita mugimendu sozial bat ere (feminismoa). Abagune bat eskaintzen du denentzat bizitza hobeko bat eraikitzeko.

Orduan, nire ustez hori dauka eskaintzeko. Noski, eskaintza hori konfrontazio garbi batetik dator, sistema kapitalistaren iraultzea.

1.2. Ekonomia feministak, bidegabea, mugatua eta desberdintasun asko dituen sistema bati irtenbideak ematen dizkio. Orduan, zergatik ez dago zure ustez gehiago sozial bat ekonomia mota hau babesten/bultzatzen duena?

Gizarte patriarkal batean gaudelako, eta hori da paradigma inperantea. Ekonomiaren erdigunean jartzen dena ez da guztia, eta nik adibidez ekonomia feministaren izeberra klasean jartzen dut.

Metafora oso ona da, Cristina Carrascok ekarri zuen, eta nik beti aipatzen dut oso garbi adierazten digulako gaur egungo paradigma ekonomikoa; zer den publikoa eta denon begi bistan dagoena. Hau da, merkatu logika eta Estatua.

Horregatik, menperatzen duen logika horretan BPG da erabiltzen dugun irizpide maximoa, eta horiek eraikitzen dute gaur egungo merkatu ekonomiaren eta ekonomia kapitalistaren ikusgarria den izeberraren atal hori; alderdi publikoa, ekonomia produktiboa.

Ekonomia feminista atal ikusezin handi bat dagoela seinalatzen du. Bereziki zaintza lanak azpimarratzen ditu; pertsonen arteko zaintza, interdependentzia. Etxeetako lanei garrantzia ematen dio, denok bizitzeko merkantziak eta zerbitzu publikoak beste, maitasuna, autoestima, eta abar behar ditugulako. Gainera, bizitzako momentu guztietan behar dugu zaintza; lehenago edo beranduago, eta era desberdinean, baina behar dugu.

Baina ikusezin horretan gelditzen den bakarra ez da pertsonen arteko zaintza. Alderdi ikusezinetan beste begi kate batzuk gelditzen dira; natur-sistemak eta komunitateak. Nahita nahiezkoak dira hiru begi kate horiek bisibleak diren beste biak (merkatua eta Estatua) eutsi ahal izateko. Ezin naizelako ni gaur hemen egon, nire bi semeak inor zainduko ez balitu, edo ni ezingo nintzateke hemen egon errepide bat egon ez balitz.

Orduan, ekonomia feministak guzti hau begi-bistan jartzea ekartzen digu. Baina logika kapitalista, heteropatriarkal, kolonialista, hirizentrikoak hau nahita ezkutatzea ekartzen du.

Gizarte patriarkal honetan gaudelako gertatzen da ekonomia hau bultzatzea, eta horrek botere harremanak oso modu desorekatuan antolatuta daudela esan nahi du. Genero sistema bat dago, patriarkatuan gaudelako. Bertan, logika binarioan sartzen gara; gizon eta emakumea, objektiboa eta subjektiboa, pribatua eta publikoa eta abar. Nik esango nuke iceberga irauli egin behar dela.

2. Bizitza erdigunean

2.1. Ekonomia feministaren bizitza erdigunean jartzea zer inplikatzeko/suposatzeko du sozial eta ekonomikoki?

Bizitza onaren kontzeptuari heltzea. Bizitza erdigunean jartzea gutxienez hiru bide egitea eskatzen du:

Lehenengoa, elkarrekin bizi nahi dugun bizitzaren beste ideia bat eraikitzea, gutxienez bi irizpide errespetatzen dituen. Bata, guztiontzat ona izatea da. Hots, denboraren edo beste ustiapen-baliabideen kontrara badoa, ez da bizitza ona. Eta bigarrena, bizitzaren aniztasuna errespetatzea, desberdina dena errespetatzea.

Horrez gain, nire ustez bi elementu izan behar ditu. Bizitza ona edukitzeko egitura sozio-ekonomikoak identifikatu behar dira eta gainera egunerokotasunarekin lotuak egon behar dira. Adibidez, energia beharrak, elikadura beharrak, mugikortasun beharrak, zaintza beharrak...

Hirugarrenik, eta azkenik, modu subironatasunean eraiki behar da. Denok zer ta nola eraiki erabakita. Orduan, egiturak eraiki behar dira. Izerberria irauli behar da, bizitza ona zer den, denontzako modu anitz batean eta egunerokotasun errealitatearekin lotuta eta gainera burujabetza eta subironatasunean izateko.

Honek begirada antropozentrikoa eta androzentrikoa gainditzea suposatzen du. Hau da, gizakia bizitzaren erdigunean ez dagoela kontuan izan behar da eta noski gizonezkoa ez dago erdigunean. Bizitza ona eraikitzeke beste espezieak ere kontuan hartu behar dira. Kapitalismotik kanpo gure burua imajinatu behar dugu benetako errealitatea eraiki ahal izateko. Ekonomia feminista eta ekonomia ekologikoaren lotura kontuan hartuz.

3. Lanaren banaketa ekitatiboa

3.1. Emakumeen eta gizonen rola oso definituak egon dira beti; emakumeak etxeko lanetaz arduratu izan dira eta gizonak merkatuko lanetaz (soldatapekoak). Nahiz eta emakumeen egora hobera igarotzen ari den, oraindik lan asko dago egiteko. Zeintzuk izan behar dira hurrengo pausoak zure ustez Lanaren Banaketa ekitatiboa lortzeko?

Ekitatearen eta lanaren kontzeptuak konplikatuak egiten zaizkit; zer da lana? Lanaren kontzeptua zabaltzeak ekitatea lantzeko aukerak erraztuko liguke. Gaur egungo errealitateara helduta, zaintza-sistemen egoera ulertu eta onartu behar da.

Orduan, lehenengo lanaren kontzeptua benetan garatu behar da (zer den lana eta zer onartzen dugun lana bezala). Horrek, parametro aldaketa izugarria ekarriko digulako.

Sistema ekonomiko batean gaude, non abiapuntu edozein izanda ere baldintza berdinak ezartzen dira. Baldintza berdinak jartzen baditugu, adibidez Gizarte Segurantzako ordainketan, ekoizpen agroekologiko txiki bat duen proiektu bati, edo eredu agroindustrialean inbertsio-fondo bat duen proiektu bati, ezinezkoa bihurtzen da zaintzea. Proiektu txikia duen pertsonak, ezingo du bere ingurukoak ezta bere burua zaindu eta prekarizatuko da.

Bi eredu ezberdin konparatzen dira baldintza ezberdinetan daudenean eta ez da bidezkoa, bata izeber osoa kontuan hartzen duelako eta besteak izerberraren punta soilik.

Gainera, emakume eta gizonen rola aipatzen ditugu, baina hori azken finean sistemaren logikak sortzen du. Orduan, ekitatea lortzeko pausoak hor ikusten ditut, abiapuntu eta baldintza ezberdinak daudela ikusita.

4. Neurri eta lege berriak

4.1. Ikusten da zaintza-munduan prekaritatea dela nagusi, eskubide gabeko emigranteak osatua eta batez ere emakumeak. Non daude mundu honetan gizonezkoak? Zure ustez, zeintzuk dira bermatu behar diren lege eta eskubide minimoak? Nola eragiten du imigrazio legeak guzti honetan?

Nire ustez ez da hainbeste gizonen kontu bat, baizik eta logika patriarkalaren kontu bat, eta hor noski gizonak dira pribilegiatuak. Izan ere, gizon txuri, burges, hirian bizi diren, eta gainera, hizkuntza hegemoniko jakin batean bizi direnak. Gainera, gizon horiek dira erabakiak hartzen daudenak, eta bere pribilegioei uko egiteko inongo intentziorik ez dutenak.

Legeen aurrean, sistema kolonialista eta arrazista batean bizi garela azpimarratu behar da, esate baterako, zaintza kate globalak eraiki dira. *Kolektibo XXK*, Amaia Perez Orozcok baldintza minimoak zeintzuk diren erreklamatzeko ditut. Nik ere Amaiaren ikuspuntu bera dut:

- Atzerritarrei buruzko legea indargabetzea, emakume migratzaileen oinarrizko eskubideak bermatzeko.
- Osasunerako, etxebizitzarako, hezkuntzarako eta Gizarte Segurantzako sarbide unibertsala
- Pentsio duinak eta justuak
- Prostituzio eta esplotazio sexualaren abolizioa
- Hezkuntza dibertsitatearen benetako berdintasuna
- Migrazioarako eskubidea

5. Oinarrizko eskubideak

5.1. Gaur egun badaude betezen ez diren emakumeen oinarrizko eskubideak. Zer egin behar dugu emakume gorputzaren esplotazioarekin eta sexu indarkeriarekin amaitzeko? Eta, emakume bakoitza bere buruaren jabe izateko?

Galdera hau aurreko galderarekin erantzuna gelditzen da, nire ustez horiek dira oinarrizko eskubideak.

6. Ahalduntzea

6.1. 28 urte pasa dira, Pekinen emakumeari buruzko IV. Kongresua ospatu zenetik. Nola baloratuko zenuke han egin ziren ahalduntzearen 7 printzipioen lorpenak? Eskasak dira? Nahikoak?

Nire ustez ez dira nahikoak. Gainera, kristalezko zapaietaz hitz egin beharrean, nire ustez, buztinezko lurretaz gehiago hitz egin beharko luke. Buztinezko lurak, hankak ezin mugitu uzten baiditu. Benetan zapalduak daudenak, ez daude kristaleko zapaietara begira, lokatzetatik nola atera daitezkeen daude.

Orduan, Pekineko printzipioekin Garapen Iraunkorreko Helburuekin bezala gertatzen da, eta lehen esan dudana bezala, denek ez gara puntu beretik abiatzen. Ezin da iraunkortasun-maila bera eskatu, Kolonbiako edo Nikaraguako pertsoneri, hau da, expoliatu ditugun lurraldetako pertsoneri edo hemengo pertsoneri.

Askotan mendebaldeko ekonomia feminista batetaz hitz egiten dugu, eta nire ustez Pekineko kongresuak feminismo Urbano, Europar, mendebal eta kapitalista bateko logikatik sortu zen. Horregatik gehiago ikusten dut genero ekonomiarekin lerrokatuta dauden printzipioak direla eta beraz ekonomia feministaren logikari ez dio erantzuten.

7. Interseksionalitatea

7.1. Ekonomia feministaren azken kongresuan hitz egin zen interseksionalitateaz aberastasun elementu gisa. Gobernuak ordea, arrazak, jatorriak eta kultura desberdinak bereizteko eta aukeratzeko interseksionalitateaz egiten dituzten erabilera maltzurra ere azpimarratu zen. Nola berbideratu daiteke egoera hau, batez ere gobernu “ezkertiarra” izanik?

Interseksionalitatea oso kontzeptu garrantzitsua eta baliagarria da. Guk adibidez, ekofeminismoan honetaz hitz egiten dugu. Hau da, ekonomia ekologikoa eta feminismoa interseksionalak dira eta aldi berean gertatzen dira. Adibidez, emakume baserritar bat. Askotan identitatean fokua jartzen da, baina fokua identitate horrek sortzen dituen desberdintasunetan jarri behar da. Lehen esan dugun bezala, abiapuntu ezberdinetatik abiatzen gara, bestela ez gaude kontuan hartzen kapitalismo razistak eraikitzen dituen egiturak.

Interseksionalitatea feminismo beltzean sortu da eta ulermena politikarizatzea eskatzen du. Politizatu egin behar da, ereduak sortzen dituen zapalkuntzak kategoriak ikusteko eta horrela aldatu ahal izateko. Askotan kontzeptu hauek diskurtso politikoan erraz erabiltzen dira baina gero errealitatean ez dira sakontzen.

Horrekin batera, garrantzitsua da zapalkuntza horietan dauden subjektuei entzutea. Behin horiei entzunda eta desberdinkeriak gainditzeko oinarri materialak erabilia, subjektu anitzak eraikitzen hasi gaitezke.

8. Politika publikoak

8.1. Aipatzen dira, berdintasun legea, genero indarkeriaren kontrako legea, abortuaren legea, sexu askatasunaren eta nortasunaren legeak, feminismoaren azken lorpenen artean. Honetaz aparte, zeintzuk dira zure ustez epe motzean inplementatu behar diren politikak emakumeak benetako burujabetasuna izateko? Eta epe luzean, sistema ekonomikoaren aldaketa sakona lortzeko politikak?

Nire ustez, ekonomia arloan bestelako eredu ekonomikoak eraiki behar dira. Hau da, bizitza erdigunera eramango dituzten proiektu ekonomikoak eraiki behar dira, ekonomia sozial eta eraldatzailearen logikan. Bertan, lanaren burujabetasuna, zaintza eta denboraren kudeaketa kontuan hartzea eskatzen da.

Bestetik, estrategia ekofeministak eraiki behar dira. Burujabetasuna iritsiko da, politikek emakumeen gorputzen gainean sortzen diren zapalkuntzak aintzat hartzen dutenean. Izan ere, naturaren gainean sortzen diren zapalkuntzekin gauza asko komunean ditu.

Beste galdera batzuk:

Ekonomia Feministaren azken kongresuaren itxiera-saioan, Ekonomia Feministaren eta mugimendu feministaren baseen arteko distantziamenduaz hitz egin zen. Baliteke astuna eta konplexua izan daitekeen diskurtso akademikoak feminista baseetatik urruntzea?

Bai, zalantzarik gabe. Ni kongresu hauetara gutxi joaten naiz, gaur egungo testuinguruak beste egoteko modu batzuk eskatzen ditu. Hala nola, mugimendu soziala, ikerketa ekintzetan parte-hartzea eta abar. Horien esku jarri behar dira ikerketak eta tresnak. Konplexutasun handia hartzen ari da errealitatea, eta oinarrietara etorri behar gara bertan praktika dagoelako.

Aurreko galderarekin lotuta, zeintzuk dira kongresutik atera zenituen konklusio aipagarrienak? Aurreko urteko kongresua Bilbon ospatu zen. Pentsatzen al duzu orduetik hona aurrerapenik egon direla? Zeintzuk?

Zaila egiten zait galdera hau erantzutea. Interesgarria izan zen digitalizazioaren gaia planteatzea, digitalizazioak eredu antropozentrikoa sakontzen baitu.

Baina, Bilboko kongresutik segida gutxi ikusi nuen, Uste dut aria galtzen ari garela kongresu hauetan, urruntzen ari garela. Sarea oso handia da eta sare horri heltzea zaila da. Nik uste dut gai hauek ere re-lokalizazioa eskatzen dutela, deshazkundera, ereduak txikitasunera ekartzea. Hala ere, ondo daude hausnarketa globalak egotea.

Bukatzeko, Karreraren ematen den prestakuntza ekonomikoan, ekonomiaren kontzeptu klasikoen oinarri sendoak ematen dira. Baina, ez al duzu uste ekonomia ulertzeko beste modu batzuei buruzko zertzelada batzuk eman daitezkeela? Hala nola, ekonomia feminista, zirkularra edo ekologikoa?

Bai. Unibertsitatearen irakaskuntzak eta ikerketa-logikak zeri erantzuten dio? Hor dago erantzuna. Fakultateak izerberaren begi-bistan gelditzen denari erantzuteko irekiak daude. Hau da, merkatua.

Horrez gain, klasera joaten naizenean izerberaren irudiarekin ikasleak txundituak begiratzen didate, zerbait arraroa erakusten banien bezala. Gure bizitzako egitura guztiak merkatuan dutelako foku.

Asko dago egiteko, eta ni prisma hori beste begirada batera eramaten saiatzen naiz, *OlatuKoop* sareekin adibidez. Baina klaseetan, merkatu ikuspegi hori hain barneratuta dagoenez beste modu batzuk ulertaraztea zaila da. Zaila egiten da ulertzea, irabazi asmoa ez dela lehenengo helburua, eta komunitatearen eraikuntzatik eta proiektu ekonomikoen iraunkortasunetik datorrela irabazia.